2021-01-22 EGUBAKOITZA / 890. ZENBAKIA / 21. URTEA
DEBAGOIENEKO DOAKO ALDIZKARIA GOIENA.EUS TOKIKOM

goiena
Zu hemen zaude.



# OÑATIKO IGERILEKU BERRIAK OTSAILERAKO IREKIKO DITUZTE

Zubikoa kiroldegiko eraberritze lan guztiak amaitzeke dauden arren, igerilekuak "segurtasun osoz" zabalduko dituzte, urtebeteren ostean / 34

Oñatiko igerileku berrituak, urez beteta, martitzenean.

XABIER URZELAI

## Behera egin dute COVID-19 positibo kasuek eskualdean, Euskal Herriko joeraren kontrara / 2

## Mugikortasun-mugek, eguraldiak eta bonu kanpainek tokiko komertzioa hauspotu dute Gabonetan / 4



\+ Aterpe bat, jauzi egiteko bizitza duinagorantz

Irune Robles antropologoari elkarrizketa

## Abian da Arrasateko Alde Zaharreko Plan Berezia berritzeko prozesua

Besteak beste, zuntz optikoa sartzeko aukerak aztertzen ari dira; 25 proposamenetatik 19 onartu dituzte / 10



### SINADURAK

IRATI ITZIAR / 8
MIKEL ARROIABE / 18
RAMON UGALDE / 12
MIGUEL LAZPIUR / 27
LEIRE ELEJALDE / 17
AGURNE BARRUSO / 48

MERKEALDIA
hau da zure momentua
prezio bereziak
VARILUX LENTEETAN
+
MONTURA OPARI



Otalora Lizentziaduna, 18
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE
Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA
multiópticas
www.multiopticas.com

# Gainontzeko lurraldeen kontrara, eskualdeko datuak hobera doaz

Debagoienean 67 positibo izan dira azken astean, eta, horrenbestez, positibo berrien beheranzko joera berretsi egin da, lau astez jarraian. Aldiz, Gipuzkoan, Bizkaian, Araban eta Nafarroan intzidentzia-tasak gora egin du denbora horretan

**Maialen Santos** ARRASATE

Joan den eguenetik eguazten honetara arte, 67 lagun kutsatu ditu birusak Debagoienean, aurreko astean baino sei gutxiago –73 izan ziren–. Arrasaten 32 kutsatu baieztatu dituzte, Aretxabaletan 15, eta gainontzeko herrietan, hamarretik behera. Leintz Gatzagan eta Elgetan ez dute positibo berririk atzeman, eta aipatzekoa da azken herri horretan abenduaren 29az geroztik ez dutela kasu berririk erregistratu. Horretaz gain, semaforoaren sisteman horiz margotuta daude 5.000 biztanletik gorako herri guztiak, Aretxabaleta izan ezik –laranjaz dago–.

Gauzak horrela, laugarren astez jarraian eskualdean hautemandako kutsatu berriek behera egin dute, nahiz eta beheranzko joerak apaltzera egin duen. Hego Euskal Herrian, ordea, azken lau asteetan gora egin dute positiboek, eta, hortaz, 100.000 biztanleko intzidentzia-tasek. Horrenbestez, Debagoienak Hego Euskal Herriko lurraldeekiko alderantzizko joera erakutsi du. Grafikoan ikusten denez, urtarrilaren 7tik 20rako egunetan baliorik altuenak erregistratu dituzte Bizkaian (515,30), Gipuzkoan (420,29), Nafarroan (402,79) eta Araban (386,42). Aldiz, Debagoienean baliorik baxuena erregistratu da azken bi aste hauetan (216,02). Abenduaren erdialdean, ordea, oso bestelakoa zen egoera: Debagoienean 697,43ko intzidentzia metatua erregistratu baitzen, eta gainontzeko lurraldeetan 376,75etik beherakoa –Bizkaiko balioa–.

POSITIBO BERRIAK

### ETXERATZE-AGINDUA AURRERATZEKO ESKAERA BAZTERTU EGIN DU MADRILEK

Espainiako Osasunaren Lurraldearteko Kontseiluaren batzarra akordiorik gabe amaitu zuten atzo. Izan ere, Salvador Illa Espainiako Osasun ministroak baztertu egin zuen zenbait erkidegotako ordezkariek, –tartean, Jaurlaritzakoek– etxeratze-agindua 20:00etara aurreratzeko egindako eskaera. Hala eta guztiz ere, eskaera hori "aztertzeko" konpromisoa hartu zuen. Ezezkoaren harira, Iñigo Urkullu lehendakariak sare sozialen bitartez Illari adierazi zion "aukera bat" galdu dela "adostasunean sakontzeko", egoera "oso larria" dela iritzita.

Osasun ministroak emandako ezezkoaren ostean, Euskal Autonomia Erkidegoak ezingo du etxeratze-agindua aurreratu. Edozelan ere, beste neurri batzuk zorrozteko aukera izango du Eusko Jaurlaritzak, birusaren hedapena gelditzea helburu. Hain zuzen, urtarrilaren 27an egitekoa zen LABIren bilera aurreratu egin du Jaurlaritzak, eta gaur, egubakoitza, bilduko dira; izan ere, sailburuak berak azaldu du pandemiak "okerrerako joera" hartu duela eta egoera "larria" dela. "Litekeena da EAE maila gorrira igarotzea aste honetan", esan du, aurrekoa berretsiz. Hori horrela, litekeena da bileran neurri murriztaileak zehaztea –alarma egoeraren dekretuak ezarritako mugen baitan–. Gotzone Sagardui Osasun sailburuak Lurraldearteko Kontseiluaren aurretik eman zituen aditzera Jaurlaritzaren proposamenak, eta horien artean daude hauek, besteak beste: udalerri guztien itxiera perimetrala zehaztea, pertsona bilerak laura murriztea eta 19:00etarako establezimendu mota guztiak itxi eta jarduera oro etetea.

## Lehen dosiak, jarrita

Ibarreko adinekoen egoitza guztietan hartu dute dagoeneko txertoaren lehen dosia: abenduaren 31n, Jose Aranako 26 egoiliarrek eta bederatzi langilek hartu zuten; urtarrilaren 5ean, Iturbideko 84 egoiliarrek eta 41 langilek; eta hilaren 7an, Mizpirualdeko 79 egoiliarrek eta langileetako batzuek. GSRn eta San Martinen asteon amaitu dute jartzen: 125 eta 70 egoiliarrek hartu dute, hurrenez hurren, eta baita langileetako batzuek ere.

POSITIBO BERRIAK

### DEBAGOIENEKO OSPITALEAN BI LAGUN DAUDE BIRUSAK JOTA INGRESATUTA

Debagoieneko Ospitaleari dagokionez, atzora arte, bi dira koronabirusaren ondorioz ingresatuta dauden pertsonak. Ildo horretatik, Sagarduik eguaztenean aitortu zuen ospitaleetako azken datuek "kezka" eragiten dutela eta "tentsioa" igartzen hasiak direla; izan ere, birusak kutsatzen dituen 100 lagunetik hamabi ospitaleratzen dituzte –horietatik bat, ZIUn–. Datuei erreparatuta, eguaztenean 83 lagun ospitaleratu zituzten EAEn, eta, guztira, 562 pertsona zeuden ordura arte erietxean; horietatik 97, ZIUn.

Konparaketa bat egitearren, hilaren 1ean, 323 lagun zeuden EAEko erietxeetan –eguaztenean baino 239 gutxiago–. Hogei egun hauetan, ZIUn dauden kutsatuen artean ere gorakada izan da: 77 zeuden urtarrilaren 1ean, eta eguaztenean 97; alegia, 20 gehiago. Hori gutxi balitz, datozen asteetan ospitaleratzeek gora egitea aurreikusten dutela azaldu zuen Gotzone Sagarduik.

ADINEKOEN EGOITZAK

### BAILARAKO ZAHAR ETXEETAN 28 LAGUNEK JARRAITZEN DUTE GAITZAK JOTA

Debagoieneko adinekoen bi egoitzatan dituzte koronabirus kasu aktiboak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eguaztenera arte emandako datuen arabera: Aretxabaletako GSR egoitzan 26 eta Oñatiko San Martinen bi. Joan den eguena ezkero, ez da hildakorik ez eta kutsatu berririk egon

## Intzidentzia-tasaren bilakaera

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA, EUSTAT ETA NAFARROAKO GOBERNUA




## Positibo kasuak

| | Positiboak aste honetan | Positiboak aurreko astean | Positibo metatuak | Positiboak mila biztanleko |
|---|---|---|---|---|
| Arrasate | 32 | 27 | 2144 | 97,09 |
| Aretxabaleta | 15 | 13 | 465 | 65,68 |
| Oñati | 8 | 12 | 618 | 53,89 |
| Bergara | 6 | 11 | 1071 | 71,23 |
| Eskoriatza | 4 | 8 | 246 | 59,96 |
| Antzuola | 1 | 0 | 150 | 68,84 |
| Aramaio | 1 | 1 | 77 | 52,03 |
| Elgeta | 0 | 0 | 50 | 44,21 |
| Gatzaga | 0 | 1 | 8 | 32,00 |
| **GUZTIRA** | **67** | **73** | **4.829** | **74,51** |

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

## Bailarako herrien intzidentzia tasa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA




egoitza horietan. Sendatutakoak, aldiz, sei izan dira: bost Aretxabaletan eta bat Oñatin.

TXERTOA OSASUN LANGILEEI

### DEBAGOIENEKO ESI-KO 108 LANGILEK ASTE HONETAN HARTUKO DUTE TXERTOA

Debagoieneko ESIko osasun langileak asteon hasi dira koronabirusaren aurkako txertoa hartzen. Hain zuzen, 108 langilek hartuko dute, orotara, aste honetan. Martitzenean eta eguaztenean 84 txertaketa egingo dizkiete Arrasaten dagoen Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuko osasun langileei, eta atzo eta gaur artean txertatuko dituzte eskualdeko osasun zentroetako 24 osasun langile. Debagoieneko ESIko Katy Ajalla medikuak azaldu du "lehen lerroan" lan egiten duten langileak izan direla txertoa hartzen lehenak: larrialdietan lan egiten dutenek, barne medikuntzako medikuek, erizain laguntzaileek, zeladoreek, COVID guneko langileek eta X izpietakoek.

Txertoa dagoeneko hartu duen erizainetako bat da Conchi Muñoz, eta hura hartu berritan honako hau adierazi dio GOIENAri: "Txertoa hartzeko desiratzen nengoen, ez dut inongo zalantzarik izan. Gainera, koronabirusa hautemateko lanetan aritzen naiz; PCR probak egiten, besteak beste". Iritsiko den dosi kopurua ikusita, eskualdean lan egiten duten osasun langileen %98k lehen dosia "hiruzpalau astean" jasoko dute.

BIRUSAREN AURKAKO TXERTOA

### ATZO HARTU ZUTEN TXERTOAREN BIGARREN DOSIA JOSE ARANAN

Pfizer eta BioNTech konpainiek garatutako txertoaren lehen dosia hartu eta 21 egunera, atzo hartu zuten bigarren dosia Eskoriatzako Jose Aranako egoiliar guztiek –26 dira– eta baita bederatzi langilek ere. Egoitzako arduradunek azaldu dute 25 langile inguru dituztela egoitzan –denek ez dute txertoa hartuko– eta une hartan lehen dosia hartu ez zutenak joan den astean ziztatu zituzten egoitzan; hortaz, bi aste itxaron beharko dute bigarren dosia hartu aurretik.

Arrasateko Iturbide egoitzan, ostera, martitzenean hartuko dute bigarren dosia 84 egoiliarrek eta 41 langilek. Txertoa hartzea erabaki duten gainontzeko 40 langileek joan den egubakoitzean hartu zuten lehen dosia, horiek ere egoitzan bertan.

Azkenik, Bergarako Mizpirualde egoitzan ere datorren eguenean hartuko dute txertoaren bigarren dosia bertan bizi diren 79 egoiliarrek eta langileetako batzuek.

# Automozioko emakume ikasleen topaketa birtualki egingo dute

Iazko topaketak "arrakasta" izan zuela ikusita, bigarren edizioa antolatzea erabaki dute; eguaztenean izango da

**M.S.** ARETXABALETA

Lanbide Heziketako Automozioko emakume ikasleen bigarren topaketa egingo dute datorren eguaztenean, 10:00etan. Osasun krisiaren eraginez aurten birtualki egingo dutela azaldu dute.

Iaz egin zuten ikasleen lehen topaketa, Aretxabaletako Lanbide Eskolan, eta hark izandako "arrakasta" ikusita "jarraipena" ematea erabaki dute.

"Hiruzpalau hizlari izango ditugu, automozioan lanean dabiltzan emakumeak izango dira, eta moderatzaile batek gidatuko ditu", adierazi dute. Izaskun Landaida Emakundeko presidenteak ere parte hartuko du, gainera. Online egingo duten mahai-ingurura batzera animatu dituzte automozioko Lanbide Heziketako ikastetxe guztiak.

Horretan parte hartzeko *ale-aretxabaleta.eus* webgunean esteka jarriko dute egunean bertan, eta azaldu dute euren Youtubeko kanalaren bitartez ere jarraitu ahal izango dela.

Mondragon Unibertsitatea

Gure ikasleen ahotan



## "Ikasketa prozesuaz disfrutatzen dut myGADE graduan"

**Ane Arrizabalaga Zubia (Aramaio, 19 urte) Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza graduko (myGADE) bigarren maila ikasten ari da, Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultatean, Oñatiko campusean.**

**Definitu apur bat zeure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak? Baduzu zaletasunik?**
Aramaioko San Martin Eskolan ibili ondoren, DBH eta batxilergoa Arizmendi Ikastolan egin nituen, Arrasaten. Nire zaletasun nagusiak mendi ibilaldiak, natura, kirola eta euskal dantzak dira.

**Zergatik aukeratu zenuen myGADE gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?**
Gaztetatik erakarri nau enpresa eta ekonomia munduak. Ikusitako unibertsitate guztietatik, Mondragon Unibertsitatea iruditu zitzaidan egokiena, ikasteko ereduagatik eta eskaintzen duen enpresa ibilbideagatik.

**Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?**
Orokorrean, esperientzia gogokoa eta gustukoa izaten ari da, ikasketa prozesuaz disfrutatzeko aukera izan dut.

**Nola definituko zenuke Enpresagintza Fakultatean jasotzen duzun ikasteko metodologia?**
Praktikoa. Kontzeptuak ahalik eta modu erabilgarrienean erakusten dira myGADE graduan, baita kontzeptu teorikoenak ere. Kasu errealen bidez kontzeptu horiek errealitatean nola aplikatzen diren ikasten dugu.

**Lanean ari zara ikasten duzuen bitartean, dual ereduan. Non ari zara jardunean eta zer lan mota egiten duzu?**
Ikasten dudan bitartean, Aita Menni Ospitaleko Giza Baliabideen sailean ari naiz lanean. Administrazioko zeregin desberdin asko egiten ditut bertan.

**Zer-nolako ekarpena egiten dizu eredu dualak?**
Graduko lehen mailatik enpresa munduan murgilduta egotea, zentzu askotan, baliagarria da. Eredu dualak pertsona moduan hazteko eta unibertsitatean ikasten ditudan kontzeptuak lan-munduan aplikatzeko balio izan dit eta ikasgelatik haratago lan-mundua ezagutzeko aukera eman dit.

**Atzerriko esperientziarik izan duzu edo izango duzu? Non? Nolakoa izan da, zer ikasketa izan dituzu?**
Bai; lehen mailan, Alemanian atzerriko esperientzia bat bizitzeko aukera izan nuen. Astebetez Munichen izan nintzen eta bertako hainbat enpresa ezagutu genituen, enpresa munduaren ikuspegi globalagoa ikusi nuen.

# Aurreikuspenen gainetik, dendariak ez dira kexu

Mugikortasuna galarazita egoteak, eguraldiak eta bonu kanpainek Gabonetan tokiko komertzioa hauspotu dutela nabarmendu dute ibarreko komertzio elkarteek; mendiko eta etxeko arropak zein elikadura produktuak izan dira herrietan gehien saldu direnak

**Hasier Larrea** ARRASATE

Urteko azken txanpa baliatzen dute dendari txikiek aurreko hilabeteetako emaitzak borobiltzeko. Mugimendu handiko egunak izaten dira hirugarren sektorearentzat, bezeroak ohi baino prestuago daudelako erosketak egiteko, eta, kasu askotan, saltzaileek biltegian daukatena saltzeko behar handia izaten dutelako, denboraldi berriko produktuei tokia egite aldera. Pandemiak ezerezean utzi zuen iazko martxoa eta apirileko tokiko komertzioen aktibitate gehientsuena; arrazoi horregatik, joan berri diren Gabonak normalean baino erabakigarriagoak izan dira eurentzat.



Aurtengo Gabonek, iazkoek ez bezala, etxean goxo egotera gonbidatu dute. H.L.

**"ASKOTAN EZ DUGU ASMATZEN BEZEROEI PROMOZIOEN BERRI EMATERAKOAN"**

MARI PAZ MANCERAS, TXANDAKO KIDEA

**"ASTEETAN DENDAK ITXITA IKUSTEAK GOGOETA PIZTU DIE HERRITARREI"**

JON APRAIZ, IBAI-ARTEKO PRESIDENTEA

**"OHIKO EKITALDIAK BERRASMATU BEHAR IZAN GENITUEN IAZ, MURRIZKETENGATIK"**

MAITANE AZKARATE, BEDELKAR

**"TXAPELA KENTZEKO MODUKO JARRERA DAUKATE BEZEROEK, OROKORREAN"**

IDOIA ELEXPURU, ARETXARTEKO KIDEA

### Sektore bakoitzak, berea

Hala ere, ziurgabetasun handiz itxaron zuten abendu bukaeraren etorrera Debagoieneko saltzaileek, azaroan ostalaritza itxita zegoelako, batik bat. Dendariek argi daukate tabernak zabalik egoteak lagundu egiten diola merkataritzari, "kalean girotzea" dakarrelako horrek. Aretxarte komertzio elkarteko bazkide Idoia Elexpuruk, adibidez, beste urteekin alderatuz arropa dendako fakturazioan "%20 inguruko jaitsiera" edukiko zuela kalkulatu zuen Gabonei begira. Errealitateak, oraingoan, irribarre egin dio, "beste urteetan bezala edo hobeto" ibili direlako aurten, "eta ez bakarrik nire dendan".

Ildo beretik mintzatu dira, Aretxabaletakoak ez ezik, Arrasateko, Bergarako eta Oñatiko komertzio elkarteetako kideak ere. Faktore asko izendatu dituzte komertzioen susperraldiaren jatorri gisa. Horietako bat, elurtea. "Kirol eta lentzeria dendek atera diote denboraleari etekinik handiena, mendian eta etxean eroso egotea lehenetsi dutelako herritarrek", adierazi du Jon Apraiz Ibai-arteko presidenteak.

Kontrara, zeremonietako arropa dendek, liburu-dendek eta bidaia agentziek ez dute urte amaierari zukua ateratzerik izan: "Ezkontzak eta bidaiak murriztu egin dira erabat", diote Apraizek berak eta Oñatiko Txanda elkarteko Mari Paz Mancerasek. Jendeak Interneten "asko" erosten duela ere esan du oñatiarrak: "Liburu-dendari batek esan zidan gehien saldu duen produktua oparitarako paperezko bilgarria izan dela; beraz, pentsatzekoa da plataforma handietara jotzen dutela askok Gabonetako erregaluak egiteko orduan".

### Bonuen bultzada

Eusko Jaurlaritzak, udalek eta komertzio elkarteek bonu-kanpaina desberdinak jarri zituzten martxan udazkenetik urte amaierara bitartean, eta herritarrek deskontuei "probetxu ona" atera dietela jabetu dira dendariak. "Bergarako Udalak pertsona bakoitzeko 200 euroko bonua atera zuen azaroan; partida indartsua zen, bezeroari %20 aurreztea ekartzen ziolako", aipatu du Maitane Azkarate Bedelkarko presidenteak, eta honako hau gaineratu: "Urteko azken egunean gastatu ziren bonu horiek". Dirulaguntzek gainontzeko herrietan ere eragin dute mugimendua mostradoreetan. Oñatin, esaterako, 100.000 euro baino gehiago jarri zituen Udalak dendetan gastatzeko, eta Aretxabaletan "astebetean" gastatu ziren establezimendu bakoitzeko 123 txartelak. Arrasateren kasuan, Ibai-artek berak jarri zituen bonuak salgai Gabonetarako, *zuzaraguretxertoa.eus* webgunearen bidez. "Udalaren iraileko bonuak urrian agortu ziren, eta guk abiatutako kanpainari esker igarri dugu mugimendu gehiago Gabonetan", azaldu du Apraizek.

### Kontzientziazio handiagoa

Orokorrean salmentek gora egitearen atzean "zalantzarik gabe" herritarren inplikazioa dagoela uste dute merkatariek. Bezeroen interesa pizteko ekintza ikusgarriek ere "laguntzen" dutela aipatzen dute. Iaz, mugak muga, ikuskizunak, publizitate spotak, oparien zozketak eta halako ekimenak egin zituzten komertzio-elkarteek. Eskaintza horiek gertukoen fidelizazioa lortzen dutela argi daukate, baita komertzio txikiek berezko abantailak dituztela ere: "Herrian erosi izanak erraztu egiten du, nahi izanez gero, produktua aldatu edo itzultzeko prozesua; Interneten eta zentro komertzial handietan, berriz, zailagoa da", alderatu du Elexpuruk.

Topikoa den arren, kaleko saltzaileek eskaintzen dute arretarik hurbilena, eta hori bezeroak badaki. Urtarrilean zehar ere izango du deskontuak eta tratu adeitsua jasotzeko aukera.

# Hazilan proiektuak harrera aparta jaso du 10. edizioan

Atzo amaitu zen konpetentzia pertsonal eta profesionaletan trebatzeko tailerrean apuntatzeko epea

**H.L.** ARRASATE

20 eta 44 urte bitarteko debagoiendarrei zuzenduta dagoen proiektua da Hazilan, Mankomunitateak kudeatzen duena. Lanbide Heziketako goi-mailako zikloren bat osatu dutenei edota unibertsitate ikasketak amaitu dituztenei dago bideratuta, gehienbat, eta pertsona kualifikatu horien laneratzea erraztea du helburu. Urtean birritan antolatzen den arren, bertan parte hartzeko eskari handia egon ohi da urtero, eta aurten, bereziki, pandemiak "lan merkatuaren egoera zaildu duelako", Mankomunitateko langileek adierazi dutenez. Testuinguru horretaz jabetuta, datorren edizioa normalean baino lehenago jarriko dute martxan; horrela, "lehenbailehen" hartuko dute parte iaz kanpoan gelditu ziren hautagaiek.

Tailerrak egin ditu lehen urratsak dagoeneko, joan den astelehenean egin baitzuten, modu birtualean, aurkezpen saioa; bertan parte hartzeko hamabost pertsonak eman zuten izena.

Hazilan tailerrak martxoaren 9ra arte iraungo du, "modu presentzialean eta beharrezkoak diren segurtasun neurriekin". Partaideek zeharkako konpetentziak jasoko dituzte hasierako asteetan, eta ondoren hurbilduko dira lan-merkatura "formakuntza jasotzeko eta lan-esperientzia metatzeko". Proiektuko partaideek eskualdeko enpresetan egingo dituzte praktikak, gainera. Antolatzaileek adinaren, jatorriaren eta ikasketa-motaren arabera sailkatu dituzte taldeak, "talde orekatuak sortzeko eta partaideen arteko harremanak aberasteko".

### Profila, "gero eta gazteagoa"

Jende kualifikatu berria lan munduan murgiltzea zaildu egin du pandemiak. Horregatik da hamargarren edizioko batez besteko profila "inoiz baino gazteagoa". Hazilanek "unean uneko egoeretara egokitzen" lagunduko die pertsona horiei.

# arizmendi ikastola




KONFIANTZAREN PEDAGOGIA®

## konfiantzaz

ZATOZ IKASTOLARA!

*Ate irekiak talde txikietan egingo dira.*
*Txanda hartzeko eman izena webgunean*
*edo 943 77 20 25 telefonora deituta.*

**www.arizmendi.eus**

## MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK

URTARRILAREN 18TIK 29RA

### HAUR HEZKUNTZA

erdu PROIEKTUA 0-6 urte

ATE IREKIAK

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| URIBARRI ⊙ | urtarrilak | 27 | (asteazkena) | 17:30 / 18:15 | Arrasate |
| OLARTE | urtarrilak | 27 | (asteazkena) | 17:30 | Arrasate |
| SANTA TERESA (2-6 URTE) | urtarrilak | 26 | (asteartea) | 11:30 | Arrasate |
| UMEZAINTZA ⊙ | urtarrilak | 25 | (astelehena) | 17:30 | Arrasate |
| BASABEAZPI (2-6 URTE) | urtarrilak | 22 | (ostirala) | 17:30 | Aretxabaleta |
| JOSE ARANA ⊙ | urtarrilak | 25 | (astelehena) | 17:30 | Eskoriatza |

⊙ ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
Arizmendi ikastolak kudeatutako Udal Zerbitzua (0-3 URTE)

⊙ eskoriatzako udala
Arizmendi ikastolak kudeatutako Udal Zerbitzua (0-3 URTE)

### LEHEN HEZKUNTZA

gura PROIEKTUA 6-10 urte · batu PROIEKTUA 10-14 urte

ATE IREKIAK

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| SANTA TERESA | urtarrilak | 25 | (astelehena) | 09:15-11:15 / 15:00 | Arrasate |
| ARIMAZUBI + GAZTELUONDO | urtarrilak | 25<br>27 | (astelehena)<br>(asteazkena) | 15:00 / 17:30<br>10:00 / 15:00 / 17:30 | Arrasate (Arimazubin) |

★ Gainontzeko kurtsoetarako jarri harremanetan bilera eskatzeko:
**S. Teresa** (Iban Roa: iroa@arizmendi.eus)
**Almen** (Aritz Olianguren: aroianguren@arizmendi.eus)
**Arimazubi** (Dorleta Arana: daranao@arizmendi.eus)
**Gazteluondo** (Iñigo Alzola: ialzola@arizmendi.eus)

### DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

batu PROIEKTUA 10-14 urte · izen PROIEKTUA 14-16 urte

BILERA INFORMATIBOAK DBH 1

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| ALMEN | urtarrilak | 26 | (asteartea) | 18:00 | Online |

★ DBH 2-3-4 kurtsoetarako jarri harremanetan bilera eskatzeko:
**Almen** (Unai Busturia: ubusturia@arizmendi.eus)
**Gaztelupe** (Elena Errasti: eerrasti@arizmendi.eus)

GIZATASUNA LANEAN · MONDRAGON · ikastolenelkartea

informa zaitez 943 77 20 25 www.arizmendi.eus

# Oztopoen gainetik, sarea ehuntzeko ahaleginean

Debagoieneko zenbait gurasok osatzen duten Katearen Loturak elkarteak aurkezpen ekitaldia egingo du Oñatiko Santa Ana aretoan, urtarrilaren 30ean, buruko gaitzak eta drogadikzioak dituzten pertsonen senideen artean "indarrak batzen jarraitzeko"

**Hasier Larrea** OÑATI

2019ko irailean sortu zuten, formalki, Katearen Loturak irabazi asmorik gabeko elkartea "substantzia estupefazienteekin lotutako edo lotu gabeko trastorno edota patologia desberdinak dituztenen" zenbait senide eta lagunek. "Tamalez", arrazoi ugarigatik eduki zuten erakundea martxan jartzeko determinazioa, Mariluz Casatorre idazkariak aipatu duenez: "Gure ingurukoek jasaten duten babesgabetasun egoerari amaiera eman nahi diogu, gizartea sentsibilizatuz eta administrazio publikoen arteko koordinazioan zubi-lanak eginez".

Debagoienean adinez txikiak zein nagusiak diren gazte askok arreta psikologiko eta terapeutikoa behar dutela aldarrikatzen du Casatorrek: "1/2016 Legeak argi eta garbi dio atentzio integralerako eskubidea bermatuta daukatela adikzioak zein buruko patologiak dituztenek; guk lege hori betetzea eskatzen dugu, ez besterik".

Errealitatean, ordea, oztopo "agorrezinak" izan dituzte arazo horiek pairatzen dituzten senideek. Udalek drogen gaineko prebentzioa "bakarrik" lantzen dutela diote, eta gaitza sortuta dagoenean "ezer gutxi" eskaintzen dietela. Bestalde, osasun zentro espezializatuek 18 urtez azpikoei baino ez omen diete jarraipen osatua eskaintzen, legearen arabera adinez nagusikoen kasuan "norberaren borondatearen araberakoa" delako tratamendua jasotzea. Kontraesan handia ikusten dio horri Casatorrek: "Denok dakigu drogek norbanakoaren borondatea suntsitzen dutela".

### Bidelagunen beharra

Ezintasun horren jakitun, "indarrak batzearen aldeko apustua" egiten dihardute Katearen Loturak elkartekoek. Aurrerapausoak emateko profesional handien laguntza ezinbestekotzat jo du Casatorrek: "Familia-orientatzaileekin, kolektibo zaurgarriekin aritzen diren langileekin eta gazteen problematikak lantzen dituzten hezitzaileekin batu gara. Ekarpen ikaragarria egin digute, kontuan hartuta eskainitako laguntza guztia borondatezkoa izan dela", nabarmendu du erakundeko idazkariak.

Gipuzkoako Batzar Orokorretan ere aurkeztu zuten euren burua kolektiboko kideek. Bertan zer-nolako harrera jaso zuten galdetuta, politikariak euren aldarrikapenekin "erabat ados" azaldu zirela baieztatu du Casatorrek. Hala ere, eskertuko lukete administrazioek "euren eskuetan dagoena" egingo balute: "Gizarte alorreko arduradun politikoek planto egin izan digute behin baino gehiagotan; harrigarria egiten zaigu gurean hamarkadatan errotuta egon den arazo honi irtenbiderik emateko gai ez direla ikustea". Jasotzen dituzten dirulaguntzak ere "interes falta horren" adierazgarri direla uste du: "Erakundeen aldetik laguntza ekonomiko urria jasotzen dugu, eta horrek zaildu egiten du gure erronkak gauzatu ahal izatea".



Erantzunik ezean, adinez nagusikoen buruko arazoek "luze" diraute. KATEAREN LOTURAK

**PATOLOGIA DUALA PAIRATZEN DUTE ASKOK, ADIKZIOEN ETA BURUKO GAITZEN ARTEKO NAHASKETA**

### Helburuak lortzeko lanean

Etorkizunean "estigma eta bazterketa soziala murriztu eta droga-mendekotasuna duten gazteei zerbitzu integrala" eskaintzeko asmoz, proiektu bat bideratu nahi du Katearen Loturak elkarteak, Bizkaian kolektibo zaurgarriekin lan egiten duen Erain kooperatibarekin elkarlanean. "Guretzat lorpen handia litzateke eraikin bat eskuratzea, faltan sumatzen ditugun beharrak asetzeko bertan. Profesionalek eta erabiltzaileek harreman estua garatu ahalko lukete horrela, eta familiok hainbeste sufritu ditugun arazoak ekidin ahalko lirateke", dio Casatorrek. Kemenik ez zaie falta; bai, ordea, gizartearen eta instituzioen atxikimendua.

## Profesionalez betetako hitzaldia



Bujandaren liburuaren azala.

Elkartea sortu zutenetik bidean aurkitu dituzten "profesional eta pertsona apartek" gidatuko dute Oñatiko Udalarekin elkarlanean antolatutako aurkezpen ekitaldia.

Hasteko, Gabriela Michel familia-orientatzaileak hartuko du hitza. Psikoterapeuta "lehen momentutik" egon da Katearen Loturak elkartearekin harremanetan; erakundearen helburuak azalduko ditu berak.

Ondoren izango da Raul Giralde eta Iñaki Garcia Gaztedi eta Erain elkarteko kideen txanda; euren lan esperientzia eta gaiarekiko ikuspuntua azalduko dute.

Azkenik, modu birtualean parte hartuko du *Yo, madre de un adicto* liburua idatzi duen Desiree Bujanda venezuelarrak.

Hitzaldia 18:30ean hasiko da, eta 132 pertsonarentzako tokia egongo da aretoan.

**ARIZMENDI, KOOP. E.AREN BATZAR NAGUSIRAKO DEIALDIA**

Arizmendi Koop.E.aren Estatutu Sozialetako 30. artikuluak dioenari jarraituz, Kontseilu Errektoreak 2020ko abenduaren 17an egindako bileran adostu du Arizmendi Koop.E.aren bazkideak Ohiko Batzar Nagusi honetara deitzea, kooperatibaren interesetarako onuragarria delakoan.

**EGUNA:** 2021eko otsailaren 11.
**LEKUA:** Bideokonferentzia sistema bidez.
**ORDUA:** Lehen deialdia: 17:30ean. Bigarren deialdia: 18:00etan.

**GAI-ZERRENDA**

**1.** Aurreko Batzar Nagusiaren aktaren onespen-txostenaren irakurtzea. Aktaren onespenerako bi bazkide izendatzea.
**2.** 2019-2020 ekitaldiko zuzendaritza-txostena aurkeztea, eta hala balegokio, onartzea.
**3.** 2019-2020 ekitaldiko sozietate-kudeaketa eta Urteko Kontuak (Balantzea, Galera eta Irabazien Kontua, Ondare Garbiaren Aldaketen egoera-orria, Diru Fluxuen egoera-orria eta Txostena), baita Kudeaketa-Txostena ere, aztertzea eta, hala balegokio, onartzea.
**4.** 2019-2020 ekitaldiko emaitzak banatzea.
**5.** 2020-2021 ekitaldirako helburu nagusiak eta aurrekontu ekonomikoa aurkeztea.
**6.** Kontseilu Soziala berriztatzea
**7.** Kontseilu Errektorearen berriztatzea
**8.** Estatutu Sozialen 1, 3, 8, 9, 15, 17, 19, 22, 24, 25, 27, 28, 29, 30, 31, 32, 33, 35, 36, 37, 38, 40, 41, 46, 51, 53, 55, 56, 57, 58 eta 59 artikuluetan eta Xedapen Gehigarri Bakarrean testuaren aldaketa proposamena eta berregindako testua onartzea.
**9.** Barne Araudiaren Sarreran eta 7.bis, 9, 15, 17, 27, 29, 46, 54, 63, 64, 77 eta 91 artikuluetan testuaren aldaketa proposamena eta berregindako testua onartzea.
**10.** Kontseilu Errektorea ahalduntzea Batzar Nagusian hartutako erabakiak egikaritzeko.
**11.** Galde-erantzunak

Covid-19aren inpaktu ekonomiko eta sozialari aurre egiteko ezohiko premiazko neurriei buruzko 34/2020 Errege Lege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera, Batzar Nagusia bideokonferentzia sistemaren bidez egitea erabaki du Kontseilu Errektoreak. Bazkideek kooperatibaren egoitzan eta Alexian dute eskuragarri gai-zerrendako puntuei buruzko dokumentazioa. Bazkideek eskubidea dute kooperatibaren egoitzan Estatutu Sozialetan eta Barne Araudian proposaturiko aldaketen testu osoa eta justifikatzen duten azalpen txostenak, eta dokumentu horiek eskatzeko edo eta horien dohainik jasotzeko.

arizmendi ikastola

Goretti Maturana Esquibel
Kontseilu Errektoreko Lehendakaria
Arrasate, 2020/12/17

Otalora lizentziaduna, 8 20500 Arrasate.
Telefonoa 943 772025 Faxa 943 797922 www.arizmendi.eus

## Kaxa esne txar (I)

**IÑAKI IDIGORAS IGARTUA**

OÑATI

Ikusi al dituzu Eroskiren esne kaxak? Bi modelo, behintzat, baditu: CAV-erako bata, honen mapa, Trebiñuko zulo eta guzti, eta *EUSKADI* hitzarekin. CFN-rako bestea, bere mapa eta *NAVARRA*-rekin. Ez dut uste esne txarrarekin egindako bereizketa denik, baina ez digu euskaldunoi onik egiten.

Navarra vs Euskadi. Horixe da espainol separatistek nola ikusi nahi gaituzten: banatuta, eta, batez ere, aurrez aurre. Identitate bereiziak bagenitu bezala: foruak eta bandera nafarra lehenak, euskara eta ikurrina bigarrenak. Menpeko administrazio *vasco* zein *navarro*-ek indartu egiten dute nozio hori, nazioa ahulduz: lehenak *euskal* hitza bereganatuta; bigarrenak, *navarro*. Euskaldun izatea eta nafar izatea antagonikoak balira bezala.

Memoria egitea beharrezko dugu euskaldun nafarrok zatiketa honetara nola iritsi garen ulertzeko. Gogora ekarri dezagun: Vasconiarekin izendatu zuten erromatarrek egungo Euskal Herriko lurralde osoa, eta gehiago. Erromatar inperioa erori eta beste batzuk indartu ziren. Hauen erasoetatik defendatzeko baliatu genuen erromatarrekin ikasitako gerraren artea. Defentsa hobeto antolatzeko, Iruñeko Erresuma sortu genuen 824an. Geroago, Nafarroako Erresuma bilakatu zen, egungo Euskal Herriko lurralde osoa, eta gehiago, bere baitan hartuz. Aztarna ezin argigarriagoak jaso ditu Iñaki Sagredok bere *Navarra. Castillos que defendieron el Reino* bilduma oparoan, lurrazaleko zein artxibategiko lanak uztartuz. Nafarroa, beraz, euskaldunok geure burua, kultura, defendatzeko sortutako estatua da (sic).

Etapa desberdinetan, konkistatu eta zatikatu egin gaituzte, espainolek lehenik eta frantsesek gero: 1200, 1512 eta 1620. urteak dira mugarririk esanguratsuenak. Harrezkero, inperio horien kolonia gara: CAV, CFN eta CAPB. Lurraldea konkistatu ziguten lehenik, militarki. Instituzio nazionalak okupatu jarraian, boterekeriaz. Eta geure buruak nahastu harrezkero, administrazioetatik eta mediatikoki. Bat ez garela sinisten hasiak gara, jada egin ez badugu: vascos, navarros eta basques. Inperio ziren estatu *demokratiko* horien komunitate edo elkargoetan integratuak. Gure artean bereiziak, beraien baitan integratuak. Naturalki*, ikusi dugun bezala.

(Jarraituko du...)

**GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.**
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

**Salaketa-gutuna**
**Eskertza-gutuna**
**Eskari-gutuna**

Idatzi zure gutuna eta bidali ***gutunak@goiena.eus*** helbidera!

**Erantzun-gutuna**
**Aldarrikapen-gutuna**
**Kexa-gutuna**

## HAUXE BAI JENEROA!

**GARBIÑE UBEDA**



## ZABALIK



**IRATI ITZIAR**

# Sutondoan

Gaur, oso gustura ikusten dudan sukaldaritza programa bat aipatu nahi dizuet. Programa herriz herri doa eta tokiko *betiko* errezeta eta plater tipikoenak erakusten dizkigu. Herriko elkarte edo etxe baten kokatzen dira, bertako sukalde tradizionalean. Horixe baita programaren ezaugarri nagusia, sua: subajoan, sutondoan, beheko suan, supazterrean, sutantzean, suburuan, suetean, supekian, supizguan, sutean, sutokian… betiko sukaldean egindako errezetak direla.

Eta bereziki gustuko dut programa, emakumeak agertzen direlako sukaldean egiten. Askotan, ahoa betetzen zaigu gure amonen sukaldaritzarekin, baina gutxitan ikusten ditugu telebistan protagonista.

Jakia nola prestatzen den erakutsiko digute, etxean ikasten den bezala, eginez: neurriak etxekoak dira –apur bat, basokada bat, kilo erdi…–, teknikak berdin –moztu, frijitu, nahastu, egosi…–, osagaiak ere betikoak eta bertakoak –irina, patata, txerrikia, olioa…–.

**ERREZETA AZALDU ETA ERAKUSTEAZ GAIN, BERAIEN BIZITZARA LEIHOTXO BAT IREKITZEN DIGUTE**

Errezeta azaldu eta erakusteaz gain, beraien bizitzara leihotxo bat irekitzen digute: "Amak –edota amona– irakatsi zidan errezeta hau eta nire ilobei egiten diet", "hau eguneroko jana zen, langileen janaria", edota "hau jaietan bakarrik egiten zen, egun seinalatuetan". Eta pasadizoak eta abestiak ere botako dituzte, "gure ortuko produktuak dira, etxeko txarribodakoak, lehen ez zeuden hainbeste gauza orain bezala...".

Gertakizun eta bizimoduen argazkiak ere badira errezeta hauek. Iraganeko lan eta bizitzeko moduen isla. Errezeta pobreek gose garaien memoria dakarte; ospakizunetako plater oparoek, alaitasuna eta jai-giroa.

Hainbeste kutsatze-tasaren, indizeren, hildakoren, debekuren eta segurtasun-neurriren ostean, gustura ikusten den programa da, arnasa hartu eta eguneko tentsioa jaisteko atsegina, sutondoan –baneuka– ikusteko modukoa.

## MARRAZKIZ

**ALEX UGALDE**




## HANDIK ETA HEMENDIK

### Denboraren prezioa

**AITZOL ATUTXA**

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Gizakiak aspaldi eman zituen lehen pausoak, aspaldi ikusi zituen lehen argi printzak. Denbora horretan guztian zehar gauza asko ikasi ditu. Gauza asko ohitura bihurtu dira, baina hori guztia ez da debalde atera. Ikasten-ikasten, beti gure adimena zabaltzen, baina badirudi hanka sartzearekin ez garela nekatzen.

Oroitzen ditut *Ttap*-eko bozgorailu honen bidez urte berri on iragarri nizuela 2020. urterako; bada, oraingoan, ez dut berdina egingo, badaezpada.

Aurreratu nizkizuen ospatzear zeuden Olinpiar Jokoak, Boiseko Jaialdia edota beste ehunka ekitaldi. Horietako asko 2021era pasa dira, momentuz.

Joan zaigu 2020. urtea; zerbait ikasiko genuen, bai, baina ziur debalde ez dela atera. Asko galdu dugu, kolpean. Baina, gutxi bada ere, asko ikasi dugu tantaka-tantaka. Pezeta eta euro aldaketarekin prezioek inflazio handia jaso zuten; parekotasun handia hartzen diot orain izurritearen ondoren denborak izango duen balioari.

2019an, asteburu oso bat alferrik galtzean ez zen ezer gertatzen; 2021ean, ordea, egun bakoitza norekin eta nola igaro ondo erabakiko dugu.

Denborak gehiago balio du orain eta epe luzean errentagarritasuna aterako diegu gure bizitzako minutuei. Eta, horretarako, ondo erabaki beharra dago.

Nasa bakarreko bizitza da gurea; askotan, trena geltokian ikusten dugu, geldirik. Ez dakigu tren hori nondik etorri den, ezta bere noranzkoa zein den ere. Ez da tren bakarra igarotzen nasa horretatik, ez. Baina ez daude helmuga bera duten bi tren berdin ere. Gaizki hartutako tren batek hurrengo geltokira eraman beharrean aurreko geltokira eraman zaitzake.

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA
www.goiena.eus

**Argitaratzailea**
Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

**Lehendakaria**
Monika Belastegi.
**Zuzendari nagusia**
Iban Arantzabal.
**Eduki zuzendaria**
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzordea**
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

**Zuzendari komertziala**
Mireia Larrañaga.
**Administrazio zuzendaria**
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**
Iñaki Iturbe.
**Hizkuntza arduraduna**
Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa arduraduna**
Igone Osinaga.

**Sailetako arduradunak**
Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
**Maketazioa**
Imanol Soriano, Aitor Lagoma, Amaia Martinez de Arenaza.
**Publizitatea**
Mireia Larrañaga,
Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

**Administrazioa**
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
*harpidetza@goiena.eus*

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
*publi@goiena.eus*
**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
*berriak@goiena.eus*

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 19.000 ale
**Difusioa:** 18.723 ale

**Inprimategia:**
Zeroa Multimedia

GOIENAk ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia

Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

**Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

# "Whatsapp doakoa da, baina gure datuak emaitearen truke"

**MAITE GOÑI** TEKNOLOGIA BERRIETAN ADITUA

**Xabi Gorostidi** DEBAGOIENA

Berriki zalaparta handia sortu da Whatsapp sare sozialaren pribatutasun politika berri baten harira, eta horri buruzko xehetasunak izan ditu hizpide Maite Goñik Goiena telebistan.

**Pribatutasun politika berri horrek nola eragingo du Europako Batasuneko erabiltzaileengan?**
Lehenik eta behin, argi utzi behar da aldaketa horrek ez duela eraginik izango Europan aritzen garen erabiltzaileengan. Europako datuen babeserako legea zurrunagoa da; beraz, guk berdin-berdin jarraituko genuke, oraingoz.

**Aldaketa berri horrekin zertarako baimena emango genioke Whatsappi? Orain arte egin ezin izan duen zer egingo luke?**
Gure datuak Facebookekin partekatzeko aukera emango genioke: norekin hitz egiten dugun, zein lotura partekatu dugun, zein irudi elkarbanatzen dugun... Orain arte, aplikazio horren barruan egiten genituen interakzioak eta horiei buruzko datuak aplikazioan bertan geratzen ziren, eta horrekin negozioa egiteko aukera aplikazioaren jabearen esku zegoen soilik. Baina, aldaketa horrekin, datu horiek guztiak beste enpresa erraldoi batekin partekatzeko aukera ematen diogu, horrek dakarren guztiarekin. Kasu honetan, Whatsappen, Facebooken eta Instagramen egiten ditugun interakzio guztiak elkar lotzen dira, eta jabe bakarraren esku geratzen dira; hau da, Mark Zuckerberg-en esku.



Maite Goñi, teknologia berrietan aditua. OIER ARANZABAL

**Facebook, Instagram eta Whatsapp jabe berarenak izanda, normaltzat jo daiteke datuak partekatzearena?**
Gogoratu beharra dago duela sei urte erosi zuela Facebookek Whatsapp, eta momentu hartan Zuckerbergek esan zuen ez zituela sekula datu horiek gurutzatuko. Hala ere, nire ustez, denbora gehiegi tardatu du hitz emandako hura hausten. Sekulako dirutza ordaindu zuen Whatsapp erosteko, baina ez zuen aplikazioa bakarrik erosi; aplikazioko erabiltzaileak eta erabiltzaileen datuak erosi zituen.

**Datuak diogunean, zer da enpresa erraldoi horiei benetan interesatzen zaiena?**
Ez dituzte gure solasaldiak salduko. Baina bertatik ateratzen duten informazio horrekin guztiarekin, guri buruzko profil zehatzak osatzen dituzte: zer gustatzen zaigun, noiz erabiltzen dugun zerbitzu bat edo beste... Gure ahultasun eta indarguneak ia guk baino hobeto ezagutzen dituzte. Hala, Facebooken dauden enpresa iragarleek gure datuekin jokatzen dute, eta errazago asma dezakete guri eskaintzak egiteko orduan. Gero, gure esku egongo da amua jan edo ez.

**Norbaitek pentsa dezake: "Nire datuak han eta hemen ematen ditut; beraz, eskaera honek ez du garrantzirik..."**
Ondo ulertu behar dugu datuak, eta horien babesa, gure eskubideak direla. Norberaren erabakia izan behar da datu horiek saltzea, beste batzuei uztea... Eta hori egiteko komeni da ondo jakitea zeini ematen ari garen, horrekin milioika euroko negozioa egiten baitute. Baina kontziente izan behar dugu aplikazio hauek doakoak direla. Jende ugari dago horietan lanean, eta, azken finean, datuak emaitearen truke ordaintzen dugu, nolabait.

**Badaude Whatsappen antzeko zerbitzua ematen dutenak, baina pribatutasun handiagoarekin?**
Telegram eta, berriki, Signals. Whatsappek hamazazpi arlori buruzko datuak eskatzen dizkizu; Telegramek, lauzpabost; eta Signalsek telefono zenbakia bakarrik eskatzen dizu. Egia da Telegramen erabilera goraka doala. Gainera, Whatsappek ez dituen zerbitzuak ere baditu, potentzial handikoak; kanalak sortzea, esaterako.

ITURRI ONETIK

## Artedramaren azkena Oñatin estreinatuko dute

Artedrama Arte Eszenikoen Plataformaren –*Zaldi urdina, Hozkailua*...– azken lana, *Atzerrian Lurra Garratz* izenekoa, Oñatin estreinatuko dute otsailaren 12an. Ander Lipus buru duen plataformaren azken lanaren zuzendaria Amancay Gaztañaga da eta agertokian Laura Penagos eta Ander Lipus ageri dira. Dena den, asmoak eta datak alda daitezke, Jaurlaritzak ezartzen baditu neurri murriztaile zorrotzagoak eta, esaterako, kultura jarduerak egiteko ordutegia murriztu.

ALBISTE IZAN ZEN




GOIENA

2012-01-20

## Kortazar, Irizar, Aristi eta Lopez Rekarte, saridunak

Debagoieneko Kirol Sariak banatu zituzten Elgetan. 2011n nabarmendu ziren eskualdeko kirolariak saritu zituzten Espaloia Kafe Antzokian: Oihana Kortazar antxintxikalaria, Markel Irizar eta Mikel Aristi txirrindulariak eta Aitor Lopez Rekarte futbolaria –azken hori, kiroleko ibilbide osoagatik–. Ekitaldi haren ostean, DKS ez zen urte batzuetan antolatu, eta 2019an itzuli zen, Arrasateko Amaia antzokian egindako ekitaldian.

HAU BE BADOGU!

## AEBetako presidente aldaketa hizpide

Joe Bidenek eguaztenean hartu zuen Trumpen lekua Etxe Zurian, eta gaia *trending topic* izan da txiolari euskaldunen artean:

*@amaiauribe*: "Bulego Obalera iritsi bezain laster, 17 dekretu sinatu ditu Bidenek. Besteak beste: Pariseko Akordio Klimatikora itzultzea, gehiengo musulmana duten herrialdeen kontrako betoa bertan behera uztea eta berriro Munduko Osasun Erakundearen parte izatea".

*@zuribia*: "Batasunaren aldeko aldarri agonikoa, diskurtso tristea, ahula... *Shock* egoeran daude Estatu Batuak...".



Ferrerias kaleko bi partzela horietan ezin izango da eraiki plan berria onartu ostean. Biteri plazako berdegunean ere ez. E.A.

# Alde zaharra birgaitzeko 19 proposamen, onartuta

Hainbat ordezkari politikok eta herriko eragileek osatzen duten Hirigintzako Aholku Kontseiluak, herritarren proposamenez gain, Udal Gobernuaren proposamenak batu ditu. 25 proposamen eduki dituzte mahai gainean eta horietatik 19 onartu dituzte

**Eneko Azurmendi** ARRASATE

Azkenekoz aldatu zutenetik ia 30 urte pasa ostean, martxa hartzen doa Alde Zaharreko Plan Berezi berria, hura birgaitzeko helburua daukana. Horretarako, "ezinbestekoa" izan da Hirigintza Aholku Kontseiluak egin duen lana, Maria Ubarretxena alkatearen esanetan, eta eskerrak eman gura izan dizkie kontseiluan aritu izan diren kide guztiei, "erakutsi duten inplikazioagatik eta egindako lanagatik".

Berez kontseiluak erabakitakoa loteslea ez den arren, Ubarretxenak nabarmendu du kontseiluan adostutakoari kasu egitea izango dela Udal Gobernuaren irizpidea. "Horretarako aritu gara horrenbeste denbora elkarlanean", gaineratu du.

**Alde zaharra, bi esparrutan**

Esparruaren antolaketa bi gunetan banatzea izan da kontseiluak onartutako lehen proposamena, alde zaharra bitan banatzea, alegia: ondare babestua den almendra eta gainontzekoa, eraldatzeko "malguagoa" izango litzatekeena. "Eskatuko ditugun aldaketa guztiak Jaurlaritzak onetsi behar ditu, baina babestutako gunetik kanpoko aldaketak errazago egin ahal izango ditugu", adierazi du Ibon Arrupe Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasun Batzordeburuak.

**Bi "arnasguneak", mantendu**

Eraiki gabeko espazio libreak finkatzea ere onartu dute, Biteri plazako eta Ferrerias kaleko berdeguneetan, Irati taberna ondokoetan, eraikitzea galarazteko. "Partzela horietan eraikitzeko aukera dago egun, baina kontseiluak onartu du espazio horietan eraikigarritasun eskubidea kentzea, inguruari arnas apur bat emateko". Hala, behin plana onartuta, ezin izango da eraiki partzela horietan.

**Izaera publiko eta pribatuak**

Alai zinema eraikina, Iturriotz 13.a, ekipamendu pribatu eran dago jasota egungo Alde Zaharreko Plan Orokorrean, eta eraikin osoa hutsik dago egun. "Proposamena da ekipamendu pribatu izaera mantenduz etxebizitzak egiteko aukera ere eskaintzea, hainbat baldintza betez eta karga urbanistikoak ordainduz", azaldu du Arrupek.

Bestalde, udaletxearen atzeko eraikina, Zeharkale estalia 1 eta Erdiko kalea 11 blokea, etxebizitza eraikina da egun, baina erabilera aldaketa egiteko proposamena onartu du kontseiluak, "ekipamendu erabilerara" igarota. "Urteetan zehar Udala etxebizitza batzuk erosten joan izan da eta erdiak baino gehiago udal jabetzakoak dira dagoeneko. Hori dela eta, eraikin horretan hainbat udal zerbitzu daude, baina behin-behinekoz egokitutako geletan: informatikariak, hirigintzako hainbat alor, eta abar. Beraz, proposamena da etxebizitza izaera kendu eta izaera publiko izatera pasatzea bloke guztia", dio Arrupek. Horren ostean, proiektu urbanistikoa egingo lukete Zeharkale estalia kendu, mantendu edota bestelako erabileraren bat eman aztertzeko. "Asmoa da atzeko bloke guztia udal jabetzakoa izatea, udaletxearen luzapena izan dadin etorkizunean".

**Zuntz optikoa ere aztergai**

Zuntz optikoa ezartzeko aukera ere egon da mahai gainean. "Izan ere, arazo handiak ditugu lurretik jartzeko, lurperatzea eskatzen duelako. Guk baimena ematen dugu, baina baimen hori lurperatzearekin lotuta dago eta lurperatzea norberak ordaindu behar du. Egun indarrean dagoen planak ez du uzten aireko lineatik pasatzea, baina plan berriak ahalbidetu egingo du hori, karkabak eta aleroak erabilita. Hala, aukera egongo da lurperatu gabeko zuntz optikoa jartzeko", azaldu du alkateak.

**Bide luzea du oraindik planak**

Kontseiluan onartutakoa berretsi ostean, Hirigintza batzordeak tramitatzeko dokumentua prestatuko du, eta, ondoren, Eusko Jaurlaritzak txosten loteslea egin beharko du, alde zaharra babestutako ondarea baita. Ostean, osoko bilkurak emango dio behin betiko onarpena.

Onartu dituzten beste proposamen guztiak *Goiena.eus* webgunean daude irakurgai, baita onartu ez dituztenak ere.

**2020KO AZAROAN HASITA, KONTSEILUAK BOST SAIO EGIN DITU ETA TALDE TXIKIETAN ARITU DIRA LANEAN**

## Datorren astean hasiko dira beiratea jartzen kiroldegian

Urtarrilaren 11n ziren hastekoak Musakolako kiroldegiko beirate berriaren instalazioarekin –haizeak hondatu zuen urrian–, baina, "hornitzaileen atzerapenak direla eta", lanak urtarrilaren 28ra arte atzeratu dituzte. Hala, Udalak urtarrilean ere ez die kuota kobratuko Musakola kiroldegiko hezeguneko bazkideei. Azaroan, Udalak jakinarazi duenez, konponketa lanen aurrekontua eskatu zion tokiko enpresa bati. "Enpresak aurrekontua bidali zuen, eta lanak hilabeteko epean egiteko konpromisoa hartu. Udalak lanen kostuaren aurrerapen bat izapidetu zuen, abal bidez bermatua, materialaren erosketa egiteko".

Azkenik, Udalak zerbitzua "lehenbailehen" berrezartzeko konpromisoa hartu du eta barkamena eskatu die herritarrei, azken hilabete hauetan zerbitzurik ez eskaintzeagatik.

## Zarugalde, "irisgarriago"

Zarugalde kaleko 40 eta 42. atarien pareko plataforma kentzeko lanak hasi dituzte asteon, "eremua irisgarriagoa izan dadin", Udalak azaldu duenez. Obrek hiru hilabete iraungo dute eta eragina izango du bi atari horietan eta lokalean. Construcciones Frixi SL enpresak egingo du eraberritzea, 53.993,55 euroko aurrekontuarekin, BEZa barne.



E.A.

# Pandemiarekin lotutako 2.216 esku-hartze iaz

2020an, 6.207 esku-hartze egin zituen Arrasateko Udaltzaingoak, eta horietatik 2.216 izan ziren pandemiako neurriei lotutakoak; bestalde, radarretan bildutako dirua COVID-19ari aurre egiteko erabiliko dutela adierazi du Maria Ubarretxena alkateak

**Eneko Azurmendi** ARRASATE

Udaltzaingoaren ekintza gehienak mugikortasun eta edukiera kontrolak izan ziren iaz, 1.116, eta ospitalean, espazio publikoetan, merkataritza-guneetan eta trafiko-eremuetan egin zituztela azaldu du Zigor Andino udaltzainburuak. Herritarren segurtasunari buruzko Lege Organikoa ez betetzeagatik, bestalde, 447 zehapen edo zigor proposamen aurkeztu zituzten –maskararik ez eramatea, etxeratze-agindua ez betetzea, eta abar–. 2019an, esaterako, hamabost zehapen jarri zituzten Herritarren Segurtasuna Babesteari buruzko Lege Organikoaren esparruan.



Maria Ubarretxena alkatea eta Zigor Andino udaltzainburua, prentsaurrekoan. M.S.

Andinok gaineratu duenez, Ertzaintzari ere eman izan diote laguntza, "behar izan dutenean", eta, hori horrela, 107 kolaborazio egin zituen Arrasateko Udaltzaingoak 2020an. Inguruko herrietako udaltzainekin elkarlanean ere aritu dira "sarri"; batez ere, konfinamendu sasoian.

**Radarretan, 1.222 arau-hauste**

Garibai etorbidean, Uribarri etorbidean eta Arrasate pasealekuan dauden radarrek, Nafarroa etorbidean, Osinagan, jarri berri dutenarekin batera, 1.222 arau-hauste erregistratu zituzten iaz. Aurreko urtean, 2019an, 573 izan ziren mota horretako arau-hausteak, eta, beraz, igoera nabarmena izan dute: %113. Hala ere, radarrak jarri zituzten urtean, 2018an, 1.447 izan ziren.

**Bildutakoa, ongizatera**

Maria Ubarretxena alkateak nabarmendu du radarren helburua ez dela dirua biltzea, baizik eta "herri barruko bide segurtasuna hobetzea, abiadura mugak errespetatzeko kontzientzia indartzeko". Hori dela eta, gaineratu du isunetatik ateratako dirua, behin radarren gastua estalita, egitasmo sozialetara edota herritarren ongizatera bideratzen duela Udalak. "2018an batutako 25.000 euroak Gurutze Gorriaren eta DYAren artean banatu zituen Udalak, 12.500 euro bakoitzarentzat. 2019an, ez zen soberakinik izan, ekimena defizitarioa izan baitzen, eta Udalak 7.380 euroko defizita ordaindu behar izan zuen. 2020an, azkenik, 50.000 euroko gerakina egon da radarraren funtzionamendu-kostua, 74.680 euro, estali ondoren. Hala, Udalak COVID-19ari aurre egiteko neurriak finantzatzeko erabiliko du gerakina", azpimarratu du.

**139 istripu 2020an**

"Nahiz eta abiadura mugen errespetuan hobetu", 2020an 139 istripu izan ziren Arrasaten, Ubarretxenak jakinarazi duenez, eta horietatik hamazazpitan izan ziren biktimak. "Gidarien artean ez da hildakorik izan eta gehienak zauritu arinak izan ziren (54). Oinezkoen harrapaketei dagokienez, bestalde, bederatzi izan dira, eta horietatik hiru larriak", adierazi du.



# Lantegia eraitsiko dute, 49 etxebizitza egiteko

San Andres auzoko Uribesalgo fabrika zena desmuntatzeko lanak hasi dituzte asteon; izan ere, etxebizitzak egingo dituzte inguru horretan. Hilabete eta erdi inguruan lan horiek bukatzea aurreikusten dute, gero, ondo bidean, eraikitzen hasi ahal izateko

**Eneko Azurmendi** ARRASATE

Urtarril hasieran hastekoak baziren ere, aste honetan hasi dira Uribesalgo fabrika zena desmuntatzen, eta hilabete eta erdi inguruan lan horiek bukatzea aurreikusten dute, martxoko lehen egunetarako. Ondoren, ondo bidean, etxebizitzak eraikitzen hasiko dira inguru horretan. Izan ere, Leku-Eder promozioaren baitan, 49 etxebizitza eraikiko dituzte. Horietatik 28 libreak izango dira, eta 15 dituzte salduta, oraingoz, horiek komertzializatzeko ardura daukan Bibai etxe agentziako arduradun Zigor Aginagaldek azaldu duenez. Tasatuak, berriz, zozketa bidez banatuko dituzte, eta zozketa hori datozen hilabeteetan egitea aurreikusten dute. Gauzak horrela, interesatuek oraindik badute izena emateko aukera, Etxebiden.



Aste honetan hasi dira Uribesalgo fabrika zena desmuntatzen. E.A.

**Entrega, 2023 hasierarako**

Aginagaldek azpimarratu duenez, oso kalitate oneko etxebizitzak izango dira. "Azpimarratzekoa da oso zahartze ona dutela, eraikuntza kalitatea ona dutelako. Etxebizitza bereziak izango dira; izan ere, masaren azpian, perimetro osoan eta sabaian isolamendua edukiko dute, bai akustikoa eta baita termikoa ere. Bizilagunekiko paretak, esaterako, hirukoitzak izango dira. Horren harira, bukatuta daudenean, Arrasateko etxebizitza onenak izango dira". Etxebizitzak 2023 hasierarako entregatzea aurreikusten du agentziak.

Libreei dagokienez, bigarren solairuko etxebizitza batek, esaterako, 253.000 euro balio duela azaldu du Aginagaldek –%10eko BEZa gehitu beharko litzaioke kopuru horri–. Gainera, garajea erosteko aukera ere egongo da, eta etxebizitza erosi dutenek izango dute lehentasuna, "nahiz eta ez den derrigorrezkoa izango erostea". Hala, etxebizitzen azpian bi soto egingo dituzte. "Garaje bakoitzak 17.500 eurotik gorako prezioa izango du".

**"Esperientzia handiko" enpresa**

Grupo Sorelor enpresak egingo ditu etxebizitza horiek. "80ko hamarkadan ere hainbat eraikuntza-lan egin zituen Arrasaten: Ertzaintzaren egoitzaren pareko Villa Amparo eraikina eta Kontzezino kaleko lehen zenbakiak, eraikin ilunagoak direnak", dio Aginagaldek.



Leku-Eder promozioa horrela geratuko litzateke. BIBAI ETXE AGENTZIA

## Leku-Eder promozioa izango da

49 etxebizitza izango ditu Leku-Eder promozioak, eta, etxabeez gain, sei solairu edukiko ditu eraikinak. 28 etxebizitza libreak izango dira eta 21, tasatuak. Oraingoz, 15 libre daude salduta, eta tasatuak banatzeko zozketa datozen hilabeteetan egingo dute.

# Emozioetan sakontzeko tailerrak egingo dituzte

Urtarrilaren 27a da izena emateko azken eguna eta udal webgunean dago horretarako aukera

**E.A.** ARRASATE

Arrasateko Udal Prebentzioak antolatuta, adimen emozionala lantzeko hiru saio egingo dituzte otsailetik aurrera. Lehenik, 0-5 eta 6-12 urte arteko haurrak dituzten gurasoei zuzendutako tailerrak egingo dituzte, eta urtarrilaren 27a izango da izena emateko azken eguna, udal webgunean. Bi talde horiek otsailean hasiko dituzte saioak. Martxoan, berriz, 13-18 urteko seme-alabak dituztenentzako izen-ematea zabalduko du Udalak.

Saioen helburua da, Udalaren esanetan, gurasoak haien eta seme-alaben emozioei arreta jartzen trebatzea, "hauek identifikatu eta hauei lotutako portaerak ulertzeko". Hala, "seme-alaben heziketa prozesuan familian gertatzen diren egoera emozional ezberdinak kudeatzen ikasteko tailerrak" izango dira.

Hainbat eduki landuko dituzte, "hala nola emozioak zer diren, zein funtzio dituzten, zertara bultzatzen gaituzten emozioek, kudeaketa emozionala, haurrek eta nerabeek emozioak nola bizi dituzten eta gure seme-alaben bidelagun emozionalak izateko baliabideak zeintzuk diren". Informazio gehiago, *Goiena.eus* webgunean.

## Hamahiru zakarrontzi berri jarriko dituzte herriko lau gunetan

Musakolako bus geltokian, Musakolako erretiratuen egoitzaren plazan eta Gipuzkoa etorbideko 45ean jarriko dituzte horietako hamabi, eta bestea Arimazubi plazan jarriko dute. Zakarrontzi berriak jartzeak 7.774,25 euroko kostua izan du. Arrasaten 190 zakarrontzi-irla daudela azaldu du Udalak, bakoitza lau zakarrontzirekin –760, guztira–.

NIRE USTEZ



RAMON UGALDE

## Berben jatorria

Euskalaritza ofizialak ez du ahaleginik egin euskararen jatorria aurkitzeko. Asko jota, berba batzuk antzina batean nola esaten ziren kontatzen dute: ardau *ardano* batetik ei dator eta dot *daut*-etik, hizkuntzalaritza historikoaren metodoa eta sen ona erabiliz. Baina hitzen hasierara iristeko ez dagoela inolako modurik.

Beste hizkuntzalari batzuek, ordea, uste dute ahotsarekin baino lehenago eskuekin egindako imintzioekin sortu zela hizkuntza edo komunikazio sistema arautu bat.

Eta imintzioka hasita, zer diosku euskarak? Esku osoarekin barik hatzekin adieraz daitezken gauzak, gertaerak eta ekintzak aletuko ditut: etzi, irrintzi, jantzi, erantzi, tzibia, antzina, aitzina, ahantzi, jetzi, idatzi, iritzi, zortzi, bederatzi, burruntzi, ontzi, ortzi, aitzitik, imintzio, oniritzi, atximur, tziska…

Berbak sortu baino lehenago hatzekin adierazi daitezkeen zera horietan TZI modu erregularrean azaltzen da. Euskarak hasierako hizkuntza baten aztarnak ematen digu? Imintzioa eta berbak nahastuta egon ziren epe batenak?

## OHARRAK

### Laguntzen eskaera

Ostalariek eskaera egin dezakete, hilaren 25era arte.

### Liburu aurkezpena

*Cuba: verdades y mentiras* liburua aurkeztuko dute gaur, Kulturaten, 18:30ean.

### Zuntz optikoa: bilera

Alde zaharrean zuntz optikoa jartzeari buruzko saioa egingo dute hilaren 29an, Kulturaten.


arrasate
Herri Eskola
IKASI
MATRIKULAZIOA
ZABALIK
URTARRILAREN 18TIK 29RA
Egunero ko zaintza eta zaintza zerbitzu integrala irailean, uztailean eta gorriak ez diren eskolako opor egun guztietan
MUSAKOLA
BEDOÑABE
ERGUIN
ATEAK ZABALIK
Urtarrilaren 18tik 29ra
16.45etik 18:00etara arte.
Hartu hitzordua goizez: 943 79 77 74
MUSAKOLAKO ESKOLA ERAIKIN BERRIAREN AURKEZPENA
goieskola
debagoieneko euskal eskola publikoa
arrasate herri eskolako gurasoen elkartea
arrasate Herri Eskola
baikara
EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAZ HARRO!
"Guztion eskola, Guztion artean"
BEDOÑABE, Alfonso VIII, Tel: 943 79 20 69 | ERGUIN, Uribarri auzoa 36, Tel: 943 79 77 74 | MUSAKOLA, Elkano 10, Tel: 943 79 04 49



Arrasate Atletiko Taldeko atleta gazte talde bat, Mojategin, aurreko astean. ARRASATE ATLETIKO TALDEA

# Eguneroko lanari eusten ari zaio Arrasate Atletiko Taldea, egoera "zailean"

Ia 100 atletarekin hasi zuten denboraldia, urrian, eta, atleta federatuek "hala moduz" entrenatzen jarraitu badute ere, eskola-kirolekoak geldi egon dira bi hilabete luzez; bihar, zapatua, Gipuzkoako txapelketan ariko dira taldeko hamar atleta, Donostian

**Eneko Azurmendi** ARRASATE

80 bat haur dituzte eskola-kirolean, eta gainontzekoak federatuak dira. Jon Ormaetxea presidenteak nabarmendu du "ilusio handiarekin" ekin ziotela denboraldiari urrian, baina hilabete haren bukaeran geldiarazi egin zieten jarduna. "Duela astebete hasi ginen berriro; beraz, ezin dugu esan ondo ari garenik. Ez daukagu inongo jarraikortasunik, baina, ahal dugun moduan, lanean ari gara".

Bi hilabete haietan, federatuak entrenatu ahal izan dira, "hala moduz", entrenatzaileek bidalitako ariketa batzuk eginda, baina eskola-kiroleko haurrek guztiz etenda eduki dute jarduna. "Orain, berriz ari gara, apurka, entrenamenduak hasten, ezarritako neurriak errespetatuz, betiere. Hala, sei laguneko taldeetan ari gara, kontaktu fisikoa saihestuta, tenperatura hartuta, eta une oro maskara jantzita. Intentsitate handiko probetan bakarrik eranzten dute maskara", azaldu du Ormaetxeak.

**Lehen kontaktua txapelketekin**

Presidenteak dio ez dela erraza egoera hauetan entrenatzea. "Ez dakigu txapelketarik egongo den ala ez, aktibitatea etengo diguten ala ez, berriz konfinatuko gaituzten ala ez. Beraz, Donostiako parte-hartze libreko probara joatea erabaki genuen, lehiaketarekin kontaktua hartzen joan zitezen atletak. Kontuan hartuta batzuentzat lehenengo proba izan zela, oso jarrera baikorra eta lehiakorra erakutsi zuten. Urduri samar ere bazeuden, normala den moduan, baina asko gustatu zitzaidan nola aritu ziren. Iruditzen zait, duten adina kontuan izanda, garrantzitsuena gozatzea eta ondo pasatzea dela, ez zaigu horrenbeste axola ze marka egiten duten".

**TXAPELKETAK KOLOKAN DAUDELA IKUSITA, EGUNEROKO LANEAN DITUZTE JARRITA INDARRAK**

**Bihar, Gipuzkoako Txapelketa**

Taldeko hamar atleta ariko dira bihar Anoetako belodromoan: 60 metroko proban, Ainara Lopez, Ane del Fresno, Xubane Sagastagoia, Iker Menor, Ander Otero eta Gari Egia; 300 metrokoan, Araitz Aretxaga eta 1.500koan, Itxaso Plaza. Horrez gain, Real Sociedad taldeko Istar Dapena eta Eneko Carrascal arrasatearrak ere ariko dira, pertikan eta jauzi hirukoitzean.

## Lehen urratsak egiten ari dira



**ALMEDI MUJIKA**
13 URTE

"Lehen aldia izan da belodromo batean lehiatu naizena. 150 metroko distantzia oso gustuko dut, baina aurten 60 metrokoan ari naiz, gehienbat. Proba motzegia da niretzat, baina maila onean nago. Halere, hobetu dezaket marka".



**AINARA LOPEZ**
18 URTE

"Donostian 200 metrokoa egin nuen, eta esperientzia polita izan zen, nahiz eta gogorra izan, luzeegia. Nahiago ditut lasterketa motzagoak, 100 metrokoak edo 150ekoak. Asteburuan 60koa egingo dut, eta gogoz nago probatzeko".



**ANE DEL FRESNO**
14 URTE

"Korrika egitea gustatzen zait, eta horregatik aukeratu nuen atletismoa. 60 metrokoan ondo moldatzen naiz, eta baita 100ekoan ere. Lehen aldia izanik, Donostian urduri sentitu nintzen, baina pozik nago egindakoarekin".



**IZARO GARCIA**
14 URTE

"Abiadura probak gustuko ditut, motzak, eta hobeto moldatzen naiz luzeetan baino. Donostiakoa nire lehen proba izan zen, eta asko gustatu zitzaidan. Esango nuke, gainera, nire marka hobetzeko moduan nagoela oraindik".



**OIHAN ZULUETA**
16 URTE

"Bi hilabete daramatzat atletismoan, eta zaletasun moduan hartzen dut. 60 metrokoak egiten ditut, baina ez dakit distantzia horretan jarraituko dudan. Donostian marka ona egin nuela uste dut, nire lehen aldia zela aintzat hartuta".



**OLATZ MARTINEZ**
14 URTE

"Proba luzeak egiten ditut, 600 metrotik gorakoak, eta nire distantzia gogokoena 1.000 metrokoa da. Gurasoak ikusita korrika egiten hasi nintzen eta gustatu egin zitzaidan. Donostian egin nuen nik ere nire lehen proba".

# "Gazteek marken bidez eraiki dute euren irudia"

**JAVIER TRIVIÑO** DISEINATZAILE GRAFIKOA

'Snopshot' izeneko galeria ireki du Logroñon artista arrasatearrak, argazki originalak deformatuz, gaur egungo 'influencer' garaien gaineko irakurketa "irekia" iradokitzeko

**Hasier Larrea** ARRASATE

Logroñon Diseinu Grafikoko ikasketak egin eta Europan barrena lanean ibili ostean, Errioxara itzuli zen 2018an Javier Triviño (1985). Bere margolan eta eskulturak ikusgai jarri ditu Caja Rioja-Bankia Fundazioan.

**Zer esan nahi du *snopshot* hitzak?**

Soinean markako arropak erakusten dituzten irudiak dira; *selfie*-en kontrara, enkoadraketetan gorputz osoak ageri dira.

**Tendentzia hori da zure erakusketaren gai nagusia. Zergatik?**

Irudi mota horiek direlako, nire ustez, bizi ditugun garaiak hobekien ordezkatzen dituztenak. Gazte *influencer* eta *celebrity* askok erakusten dituzte *snopshot*-ak sare sozialetan, estetika agresibo baten baitan, gainera.

**Gazteek jarrera hori azaleratu ohi dute jendaurrean; zer dela eta?**

Garaian garaiko belaunaldien ezaugarria da "biolento agertzea", talde identifikazioa eta nortasuna eskaintzen dizkielako sarri. *La Haine* pelikula, *hooligan*-ak eta kale borroka ideia horrekin lotzen ditut, eta esan genezake gaur egun arropa markek bereganatu dutela iruditeria hori.

**Aipa al zenezake adibiderik?**

Adidas markak, esaterako, bere estetika Errusiako mafietan oinarritzen du. Bestalde, gorputzen posizioetan ere bada amorruaren zantzurik, kokoriko jartzen direnean, adibidez: gulagetatik dator jarrera hori, presoek esertzeko aulkirik ez zeukatelako.



Triviño, hilaren 8ko inaugurazioan J.T.

**Nabari da estetika eta politika uztartzea gustuko duzula. Nondik datorkizu joera hori?**

Txikitan Arrasateko kaleetan ikusten nituen pintaketetatik: Picassoren *Gernika,* ETAren anagrama, presoen aurpegiak... Irudiek sekulako boterea daukatela konturatu nintzen, sentimendu eta esanahi asko pizteko ahalmena daukaten lez.

**Orain esku artean duzun gaia bestelakoa da, "gaurkotua", agian.**

Norbera online promozionatzeko irudiak ditut hizpide galerian. Askotan, autoestimuaren gabezian eta antsietatean egoten da *selfie* horien jatorria; argazki asko atera, gure idealera gehien hurbiltzen direnak aukeratu eta sareetan partekatzen ditugu era masiboan. Azken finean, garenaren eta erakutsi nahi dugunaren arteko aldea ezabatzea da *selfie*-en helburua.

**Zein da dikotomia horren emaitza?**

Deformazioa. Horregatik dira nire koadroen protagonistak deformeak.

**Artistikoki, zer egiten duzu desitxurapen horietara heltzeko?**

Pertsona ezezagunek sareetan erakusten dituzten irudiak "lapurtu" eta era askean aldatu: nire eskuekin, collage teknikaren bitartez edo inteligentzia artifizialarekin. Espero ez ditudan emaitzak irteten dira hala.

**Gustatuko litzaizuke zure proiektuak jaioterrira ekartzea?**

Bai, noski. Urte asko daramatzat Arrasatetik kanpo bizi izaten; joan nintzenetik asko aldatu naiz, beraz. Aldaketa hori nire obran ere islatu denez, ilusio handia eragingo lidake gaur egun naizen hau arrasatearren aurrean erakustea.



2012an hartu zuten pailazo berriek jatorrizkoen testigua. KATTALIN ANSORENA

## Txirri, Mirri eta Txiribitonekin, euskal festetan barrena Amaian

Bihar, hilak 23, 'Bart non ote nintzen ni' ikuskizuna eskainiko dute hiru pailazoek, 17:00etan hasita

**H.L.** ARRASATE

Euren eskutik idatzitako lehen testua aurkeztuko du Txirri, Mirri eta Txiribiton hirukote gazteak zapatu honetan Amaia antzokian. 1982an sortutako abestitik abiatuta, euskal hiriburuetako festa nagusietan barrena murgilduko dituzte pailazoek adin guztietako arrasatearrak, "*Paristik natorren, Pintto Pintto* eta *Zapi zuria* kantuak alboratu gabe eta parrandetan gertatu ohi diren egoeren inguruko kontaketa umoretsuak eginez". Hala deskribatu du Kattalin Ansorenak *Bart non ote nintzen ni* clown emanaldia. Berak betetzen du Mirriren papera eta bere anaia Peruk, berriz, Txirrirena. Zirkulua osatzeko, antzinako Mirri bien aita dela aipatzea ere ez dago sobera.

Hain zuzen, hirukote historikoarekin "harreman estua" izaten jarraitzen du egungo belaunaldiko hirukoteak: "Erretiratuta daude eta gutxiago ikusten ditugu, baina estimu handia diogu elkarri", aipatu du Kattalin Ansorenak. Garaiak aldatu egin dira, ordea, eta pailazoen lan egiteko modua ere bai. Adibide modura emanaldien iraupena murriztu egin dutela nabarmendu du Mirrik: "Lehengo pailazoak bi ordu egon zitezkeen taula gainean, umeak aspertu gabe; gu ordubetez egoten gara, asko jota, neska-mutilen atentzioa gutxitu egin baita urte hauetan".

### Mende erdi 2022an

1972an eman zuten lehen ikuskizuna Txirri Mirri eta Txiribitonek, Kixki, Mixki eta Kaxkamelon ezizenekin orduan. Zahartzetik urrun, garai berrietara egokitu dute euren jarduna, "betiko esentzia egungo gai eta teknologiekin" uztartuta.




Patioko sabaia, kaltetuta. ARANTZAZU EZKIBEL


Zaborra lurrean. A.E.

# Eskolako patioaren erabilerarekin kezkatuta

Aste bukaeretan eskolako patioan edo inguruan egoten da jendea, babesean; hala, astelehenetan patioa nola egoten den ikusita, eskolako arduradunak haserre eta kezkatuta daude. Elkarbizitzari ez zaiola garrantzirik ematen uste dute

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO

Azkenaldian Aramaioko eskolako patioan eta inguruetan gertatu izan diren kalteek kezka eta haserrea eragin dute eskolako arduradunengan. Astelehenean, esaterako, eskolako sarrerako atean latak eta botilak aurkitu zituzten, lurrean; eta botila horietako batzuk apurtuta, gainera.

Eskolako zuzendari Saioa Uriartek azaldu du Aramaioko eskola herri eskola dela, eta, herri eskola den heinean, herritarrena dela. Horregatik, penaz hartu zuen astelehen goizean ikusitakoa. Gaineratu du babesean egoteko leku gutxi eskaintzen duela Aramaiok, eta egoteko leku gisa eskolako patioa erabiltzen dela. "Patioa erabiltzen da babesleku gisa. Hori horrela da, eta horrela izan behar du, gainera. Baina zilegi al da horrela uztea?", dio Uriartek. "Kontuan hartu behar da ume txikiak etortzen direla eskolara, eta apurtutako botilak, kristala, zeudela lurrean astelehen goizean. "Eskolako langileak edo udal langileak ibiltzen gara lurrean uzten duten zaborra jasotzen", gaineratu du.

Horrez gain, patioko sabaiko plakak ere apurtuta daude, inoiz ez bezala.

### Genero estereotipoak

Uriartek azaldu du abendu erdialdean eskolako ordezkarien bilera izan zutela –LHko 1. mailatik LHko 6. mailara artekoak–. "Maila bakoitzeko bi ordezkari elkartzen dira ordezkarien bileran. Apurketen gainean aritu ginen berbetan, eta genero rolekin edo estereotipoarekin lotu zuten gertatzen ari den egoera. Oso aberasgarria izan zen batzarra", azaldu du Uriartek. Hori horrela, generoaren trataerari buruz eskolan zer hobetu daitekeen aztertuko dute; eta idatzizko mezuak idaztea proposatu zuten, patioan jartzeko.

**"PATIOA BABESLEKU MODUAN ERABILTZEA ZILEGI DA, BAINA HORRELA UTZI BEHAR DUTE?"**

### Patioko isolamendua

Patioko sabaiko isolamendua ere kaltetuta dago; hainbat plaka daude apurtuta. Jaurlaritzaren udal-laguntza lerroan eskatuko du dirulaguntza Udalak. "Zerbait finkoa jartzea da asmoa", azaldu du Lierni Altunak.

Udal ordezkariak ere gertatzen denaren jakitun dira: "Astelehenetan, garbiketak eskolan hasten dira". Gainera, gertatu diren apurketen harira, Udalak eskolako alarma sistema hobetu egin du: "Alarman hutsune bat zegoen eta hobetu egin dugu".

Horrez gain, aurreko agintaldian, 8 eta 13 urte arteko gazteen gurasoekin bilera egin zuten. Aisialdian hutsunea dagoela ere badakite, eta hori lantzen ari dira Txatxilipurdirekin.

## Anbulatorioko berogailu sistema hobetzeko lanean dihardute

Azken astelehenetako arazoak ezin direla onartu dio Udalak; Osakidetzakoak eguaztenean doaz anbulatoriora

**A.E** ARAMAIO

Azkeneko asteetan hainbat arazo izan dituzte anbulatorioan; astelehenetan izan dira arazo horiek. Aste bukaeraren ondoren, berogailu sistema martxan jarri eta anbulatorioa berotzeko zailtasunak izan dituzte. Udalak mantentze-laneko langilea bidali zuen anbulatoriora. "Urtarrilaren 11n, ihes bat izan zuen berogailuak eta galdara ur barik geratu zen; horrek eragin zuen berogailu barik egotea anbulatorioa, eta, besteak beste, sintromaren aparatuak ez funtzionatzea", esan du Cristina Etxenausiak, Gizarte Ongizate zinegotziak.

### Arazoa konpontzeko lanean

"Jakin badakigu ze garrantzitsua den berogailuak ondo funtzionatzea eta tenperatu egokia izatea anbulatorioan. Hona pertsona nagusiak etortzen dira, biluztu beharra izaten dute... eta, gainera, hotz handiarekin sintromaren aparatuak ez du funtzionatzen", dio Etxenausiak.

Askotan gertatzen den arazoa ez izan arren, horrelakorik ezin dela onartu dio zinegotziak.

### Osakidetzarekin bilera

Aramaioko Udalak mezua bidali dio, arazoa konpontze aldera, Osakidetzari: "Ikerketa bat egingo dute berogailu gehiago jarri behar den ikusteko". Hain zuzen, eguaztenean dira joatekoak Osakidetzako mantentze-lanen burua eta diruzaina Aramaioko anbulatoriora. Nabarmendu behar da lokala Udalarena dela, eta Udalak hitzarmen bat duela Osakidetzarekin: diru kopuru bat jasotzen du Udalak mantentzeaz ardura dadin. Hitzarmen hori berrikusi beharra nabarmendu du Etxenausiak.

## Adif-ek desjabetzeak egingo ditu Zabola eta Untzilla inguruan

Agindua Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dute; 15 egun baliodun dituzte lur-jabeek erreklamazioak egiteko

**A.E.** ARAMAIO

Adifek desjabetze prozesua zabaldu du Aramaion, Zabola eta Untzilla inguruko errepide batzuetan hobetze-lanak egiteko. Agindua Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zuten urtarrilaren 9an, eta lur-jabeek 15 egun baliodun izango dituzte erreklamazioak aurkezteko. Kaltetuak izango diren jabeek etxean jaso dute jakinarazpena.

Aramaioko Udalak ere jaso du jakinarazpena; izan ere, tarte horretan Udalak baditu hainbat lursail jabetzan.



Lanak egingo dituzten guneak. ADIF

### Prozesuak, bere bidea

Desjabetze prozesuak bere bidea jarraituko du; eta, behin prozesua amaitzen denean, Adifek obrak egingo ditu gune horietan.

Hain zuzen ere, obrak A-3920 eta A-4021 errepideetan egingo dituzte. Proiektuaren dokumentazioa ikus daiteke Espainiako Gobernuaren Ordezkariordetzan, Gasteizen, baita Aramaioko udaletxean ere; horrez gain, *www.adifaltavelocidad.es* atarian ere bai. Gasteiz, Bilbo eta Donostia linearen inguruan egingo diren lanak dira.



Panderoa ikasten dabiltzan gaztetxoak. LEIRE ETXEZARRETA

# Erronka berriak eraikin berriarekin etorri dira

Aramaioko Trikiti Eskolak Musika Etxean egiten ditu entseguak irailaz geroztik: eta, horrek aukerak zabaldu dizkietela nabarmendu dute. Hori horrela, erronka berria dute esku artean: ikasle ohiei bigarren aukera bat eman nahi diete, trikitiaz gozatzeko

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO

Iazko ikasturte xelebrea amaitu ondoren, irailean indarrez beteta hasi zuten trikiti eta pandero ikasleek ikasturte berria. Orain arte, San Martin eskolan egin izan dituzte entseguak; baina, egoera zail honetan horrela jarraitzea nahiko konplikatua zela ikusita, Musika Etxea dena erabiltzen hasi ziren.



Aritz Alustiza irakaslea, trikiti ikasleekin. AINHOA ULLIBARRIARANA

### Trikiti eskolak

Aritz Alustiza bergararra da azkeneko urteetan trikiti irakaslea Aramaion. "Aurtengo ikasturtean, pandemiaren ondorioz hainbat segurtasun neurri hartu behar izan ditugu: gela desinfektatu, aireztatu... Hala ere, klaseko dinamikari ez dio askorik eragin. Izan ere, eskolak bakarka ematen ditugu", dio Alustizak.

Hamahiru bat ikasle ditu Alustizak, eta umeak baino gehiago helduak dituela dio: "Erronka izan behar da ume gehiago erakartzea, etorkizuneko trikitilariak izan ditzagun". Aramaioko trikitiaren osasuna "egoera onean" ikusten du Alustizak.

### Panderorako zaletasun handia

Pandero irakaslea, berriz, Leire Etxezarreta arrasatearra da: "40 bat lagun ditugu panderoa ikasten; horietatik asko umeak dira. Taldeka entseatzen dugu, edukiera zainduz eta distantziak gordez".

Iraila ezkero, Musika Etxean entseatzen dabiltza, eta oso gustura daude: "Musikari dagokionez, eskaintza eta mugimendu handiagoa dago hemen".

### Elkartearen erronka

Aramaioko Trikiti Eskolako koordinatzaile lanetan Ainhoa Ullibarriarana dabil. Musika Etxea estreinatu eta erabiltzeko aukera izatea eskertu gura du: "Egoerak hala eskatuta, azken egokitzapenak egin zituen Udalak eraikina erabilgarri egoteko irailean". Gustura daude eraikin berrian: "Trikitia beste ingurune batean zabaltzeko aukera ematen du, beste instrumentu batzuekin nahasteko... ". Elkarteak badu erronka bat aurrera begira: "Umeei bideratutako eskaintza bakarrik ez izatea; nahi dugu helduen artean, gure ikasle izan direnen artean bigarren aukera bat eskaintzea. Oraindik zehaztu barik dagoen arren, bilera bat egin nahi dugu, eta asmoa izango litzateke eskaintza erakargarria egitea; adibidez, hilean behin elkartzea". Izan ere, konturatu dira ikasle izandako asko gaur egun gurasо direla eta guraso moduan gerturatzen direla elkartera.

Egoerak baldintzatuko du aurten ze ekitaldi egingo dituzten: "Iaz, bertan behera geratu zen Debagoieneko Trikiti Eguna, Aramaion egin behar zena; bada, horri heldu eta zerbait egiteko asmoa badugu, nahiz eta zelan egin zehazteke dagoen".

Santa Ageda egunean ohikoa izaten den kalejira egin edo ez, berriz, zehazteke dago oraindik.



NIRE USTEZ

LEIRE ELEJALDE

## Zeinek bai eta zeinek ez

Euskalkia erabiltzeko legitimazioa aitortuko zion orriaren bila abiatu zen Anttoni udaletxera goiz batean. Eskaera orria bete zuen laukiak urdinduz, boligrafoz. Erantzun osoak idatzi zituen haren kaligrafia ederrenean. Esango nuke, inoiz ikusi izan den idazkerarik politenean. Erantzun zituen *Linguae Vasconum Primitiae*, *Obabakoak* eta Haritza. Baita izendatu ere Aramaioko auzo guztiak. Haren Elizondo, Plazaola eta beste hamaikak zerrendatuta, baserria ere aipatu zuen. Izan ere, Anttoni Aramaioko baserri batean hazi zen, etxeko euskaraz hezita.

Egunonak ematen zizkion okinari euskaraz, eta ez zen gai zenbakien ordena beste hizkuntza batean esateko. Baina herritarrek zerbait ezberdina sumatzen zuten haren hizkeran –edo hori uste zuen Anttonik–. Ez zen etxekoa, leunagoa baizik, "batuagoa".

Horregatik, udaletxean euskalkia erabiltzeko baimena ezeztatu ziotenean orria apurtu zuen, etzauelako biher iñobezen permisoik gure zauen moruen berba itxeko.

## Banatu dituzte Kulturgura lehiaketa sariak, zozketa bidez

Eduardo Ibarreta, Alex Urquijo, Javier Arbulu eta Yunan Fernandez izan dira bonuen irabazleak

**A.E.** ARAMAIO

Gorbeialdeko Kuadrillaren 21. Kulturgura lehiaketako irabazleen izenak eman dituzte argitara. Dagoeneko egin dute zozketa, eta bonuen irabazleak dira: Eduardo Ibarreta eta Alex Urquijo –Kirolak dendako bonu bana–; eta Javier Arbulu eta Yunan Fernandez –Elkar dendako bonu bana–.

Galderak zuzen erantzun dituztenen artean egin dute zozketa; eta galderen erantzun zuzenak zeintzuk diren ere argitaratu dute: Gorbeialdeko Kuadrillako orri markagailu lehiaketaren XV. edizioa izan zen 2020koa; 36ko gerrako kokaguneen dibulgazioaz arduratzen dira Abadelaueta elkartekoak, eta, besteak beste, Keturako ibilbidearen ardura dute; 1863an inauguratu zen tren geltokia Izarrakoa da; esaten da Iruratxi haitzuloan zuela *Piztia*-k bizitokia; amillena esaten zaio lainoari: desagertutako Mendizabal herrixka Arratzua-Ubarrundia udalerrian dago; eta Santa Engrazia urtegia 1957an inauguratu zuten.

## Urtarrilaren 13an, hamazazpi lagunek eman zuten odola

Arabako odol emaileek esker mezua bidali diete aramaioarrei, eskaini duten laguntzagatik. Urtarrilaren 13an egon zen Arabako odol emaileen autobusa kultura etxeko ondoko aparkalekuan.

Egun hartan, guztira, hamazazpi lagunek eman zuten odola Aramaion; eta hamazazpi horietatik bat berria izan zen.

Odola ematearen garrantzia nabarmendu nahi izan du odol emaileen elkarteak; izan ere, gaur egun odola lortzeko modu bakarra odol-emate altruistak dira. Odola egunero erabiltzen da; EAEn, bost minututan behin behar izaten da odola.

Odol emaileen elkarteak mugikorrerako aplikazioak ditu odol-emateak non eta noiz izango diren informatzeko. Gainera, aplikazio horren bitartez, nork bere odol emateen gaineko kontrola eraman dezake.

# Proiektu estrategikoak abiaraztea helburu

Udal Gobernuak 12.400.000 euroko aurrekontu proposamena aurkeztu du 2021erako, eta asmoen artean du komentuaren eta Santa Kurtz kalearen lanei ekitea; horretarako 2,5 milioi euroko kreditua eskatuko duela iragarri du

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Aurrekontu "errealista eta egungo egoerara egokitutakoa" dela adierazi du Udal Gobernuak, 12.400.000 eurokoa, hain zuzen ere; iazkoarekin alderatuta, %24ko igoera izango du. Unai Elkoro alkateak lau zinegotzik lagun eginda eman ditu horren gaineko xehetasunak, eta adierazi du oinarrizko zerbitzuei eusteaz gain gizarte-laguntzak indartzea eta kaltetuenei babesa ematea dutela helburu. Baina, bereziki, iaztik datozen bi proiektu estrategikori heldu gura diete: Santa Kurtz kaleko lanei eta mojen komentukoei. Otsailaren 11ko osoko bilkuran aurkeztuko dute aurrekontu hori.



Alkatea eta aurrekontuaren berri eman duten zinegotziak Santa Kurtz kalean. M.A.

### Sarrerak jaitsi

Diru-sarrerei dagokienez, 9,9 milioi euro aurreikusi dituzte, 2020an jasotakoa baino 200.000 euro gutxiago –Udal Finantzaketarako Foru Funtsetik 300.000 euro gutxiago jasoko dira–. Hortaz, aurrekontua osatu eta bi proiektu estrategikoei heltzeko kreditua eskatzeko asmoa dute; gehienez, 2,5 milioi eurokoa. "Horrekin eta 2020ko diruzaintzako gerakinarekin egingo diegu aurre bi proiektuei. Udan hasiko ditugu biak eta bi urterako izango dira", azaldu du alkateak.

Udalaren finantza egoera "ona" dela argitu gura izan du Elkorok: "2021ean kiroldegiaren kreditua likidatu egingo da. Hala, kreditu berria amortizatzeko moduan gaude, eta agintaldi honen bukaeran Udala zorrik gabe uztea da gure helburua".

### Komenturako, 1,8 milioitik gora

Santa Kurtzeko Hornidura eta Saneamendu Plan Bereziarendako 2,3 milioi euro inguru aurreikusi dituzte, baina xehetasun batzuk ixteko dituztela aditzera eman du Xabi Otxoa zinegotziak.

Horrekin batera, beste proposamen batzuk ere jaso dituzte Hirigintzako aurrekontuan, hala nola Bedarretako irisgarritasuna hobetzea, Kurtzebarri eskola berritzeko lehen faseari ekitea eta Arlutz kantxa eraberritzea.

Komentuari dagokionez, gizarte zentro bihurtzeko lehen faseari heldu gura diote aurten, eta, horretarako, aurrekontua 1,8 milioi eurotik gorakoa izango da. Lehen fase horretan, eraikinaren beheko solairuari ekingo diote, eta hor kokatuko dira honako hauek: Basotxo erretiratuen egoitza, estimulazio kognitiboko tailerrak eta erabilera askotariko gela kapera zaharrean.

### Gizarte Zerbitzuek, ia 600.000 euro

Gizarte Zerbitzuetara 599.650 euro bideratu dituzte eta dirukopururik handiena etxerik etxeko laguntza zerbitzuarendako izango dela iragarri du Karmele Uribarri zinegotziak: 425.000 euro, hain zuzen ere. Zerbitzua lizitaziora aterako dute eta aldaketa batzuk egingo dituzte: "Orduaren prezioa 25 eurora igoko da. Era berean, etxez etxeko laguntza zerbitzuaren partida ekonomikoa indartzeko asmoa dugu, zerbitzu horren eskaria handitu egin delako".

Gizarte Larrialdietarako Laguntzen programarako 70.000 euro gordeko dituztela ere esan du.

### Euskara suspertzeko elkarlana

Euskararen Plan Estrategikoaren barruan, UDArekin elkarlanean jarduteko asmoa agertu du Koldo Zubillaga zinegotziak, baita Auzoko egitasmoarekin ere. Gainera, merkataritzan euskararen erabilera suspertzeko lantalde bat sortzea da asmoa.

Kirolari dagokionez, kiroldegiaren aurreko berdeguneari zein erabilera eman aztertuko dute eta trialsin gunea argitzatu, besteak beste.

Kulturara, ostera, 622.780 euro bideratu dituzte. Ainhoa Cabero zinegotziak onartu zuen pandemiak asko mugatu duela jarduna, baina "kulturaren aldeko apustuari" eutsiko diotela.

### Ostalaritzarako partida

Horiez gain, 90.000 euroko partida bat jaso dute aurrekontu proposamenean, ostalariek terrazetan egin beharreko inbertsioei laguntzeko.



NIRE USTEZ

MIKEL ARROIABE

## Txertaketa

Txertoa gizateriaren ongizatea lortzeko zientziak garatu duen tresna onena da, txertorik asmatu izan ez balitz Aretxabaletak biztanleriaren erdia ere ez zukeen izango. Bere argi-ilunak badituen arren, ezin da baieztapen hau zalantzan jarri.

Txertaketa, azken finean, gorputza engainatzea da, irudizko eraso baten aurrean prestatzea benetako birusa datorrenean erantzun azkarra emateko. COVID-19 birusaren kasuan, gainera, ez da birusa bera txeratzen, birusaren material genetikoaren (RNA) zati txiki bat baizik, gure zelulek COVIDaren azaleko proteina zehatz bat ekoitz dezaten. Proteina hori antigenoa da eta gure immunitate sistemari antigorputz espezifikoak gararazten dizkio. Horrela, gorputza *armatzen* dugu eta alerta egoeran jartzen dugu benetako birusa datorrenerako.

Txertoak izan ditzakeen albo-ondorio txarrena ez funtzionatzea da; hau da, arrazoiren batengatik esperotako erantzuna ez ematea eta, beraz, gaixotzea. Gerta liteke txertoaren osagaietako batek alergiaren bat sortaraztea ere. Kopuru oso-oso-oso txiki bati gertatuko zaio. Hortik aurrera, ez dago txip bat sartuko diguten arriskurik, txipak aldean daramatzagu mugikorretan.



# Txatxilipurdik jarraituko du gaztelekua kudeatzen

Lehiaketara atera zuen zerbitzua Udalak abenduan, eta bakarra aurkeztu da deialdi horretara. Hezitzaileak, baina, ez daude ados oinarrietan zehaztutakoarekin, eta elkarretaratzea deitu dute gaurko, "lan baldintza eta aisialdi duina" eskatzeko

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Txatxilipurdik jarraituko du izaten Atxagazte gaztelekuaren ardura. Abenduan deitutako lehiaketara bera bakarrik aurkeztu zen eta Udalak harekin sinatu du kontratua urtebeterako; luzagarria da. Oraingoan, baina, badago aldaketa bat, eta da orduka esleitu izana zerbitzua. Horren arrazoia azaldu du Unai Elkoro alkateak: "Iazko martxo eta apiril artean izandako itxieraren ondorioz murrizketa asko izan genituen, eta, hori berriz etor daitekeela aurreikusita, zerbitzua orduka esleitzea erabaki dugu, zerbitzua ez bada ematen Udalak galerarik ez izateko".

Beste langile asko ere "egoera bertsuan" daudela uste du: "Ez dut uste babes gutxiago dutenik gaztelekukoek. Administrazioarendako lan egiten baduzu, ordain dezala horrek uste izaten da…"

### Zerbitzua egoitzatik harantzago

Atxagazteko hezitzaileak, baina, ez daude ados oinarrietan zehaztutakoarekin; hau adierazi dute Alaitz Mendietak eta Ainhoa Azarolak: "Gaztelekuaren, lokal fisikoaren, itxiera etorriko balitz, ezingo genuke gure zerbitzua beste era batera eman; kalean edo digitalki, esaterako. Uste dugu aisialdia ezin dela lau paretetara mugatu". Gaineratu dute zerbitzua beste era batera emateko trebakuntza saioak jasotzen ibili direla, Foru Aldundiaren Gaztematika sarearen bitartez.

Mendietak eta Azarolak uste dute zerbitzua ez dela gastua, inbertsioa baizik: "Gastuak beste mila ditu Udalak. Gure zerbitzuarekin gazteei eskaintzen diegu aisialdia, balio batzuk, bidelagun batzuk… 200 nerabek dute izena emanda eta astero datoz. Datuek erakusten dute badutela zerbitzuaren beharra".

Hezitzaileek kalera eroango dute euren aldarrikapena, eta elkarretaratzea deitu dute gaurko, urtarrilak 22; udaletxearen aurrealdean egingo dute, 17:30ean.

# 54.000 euro banatu ditu Udalak 32 ostalaritza zerbitzuren artean

Dirulaguntzen beste deialdi bat egingo du, lokalak koronabirusaren aurkako neurrietara egokitzeko

**M.A.** ARETXABALETA

Zuzeneko dirulaguntzak iragarri zituen Udalak ostalariendako, eta abenduan egindako deialdiaren baitan 32 eskaera jaso zituen. Udalak jakinarazi du 54.000 euro baino gehiago banatu dituela horien artean.

Zuzeneko laguntza horiek honela banatu dituzte: batetik, 300 euroko zenbateko finkoa eman diote bakoitzari; bestetik, 600 euro, lantaldeko langile autonomo bakoitzeko: ostalaritzako lokal horietako 20k langile autonomo bat dute; zortzik, bi; hiruk, hiru langile; eta batek, lau. Eta hirugarrenik, soldatapeko langile bakoitzeko, azaroari dagokion Gizarte Segurantzako kuota hartu du bere gain Udalak, 600 euroko mugarekin: zazpi eskaera soldatapeko langile bat duten lokalenak dira; bostek bi dituzte; hiruk, hiru; batek, lau; bik, bost; eta hamalauk ez dute soldatapeko langilerik.

Emandako laguntzak 900 eta 3.500 euro artekoak izan direla negozio bakoitzeko jakinarazi dute, eta gehienak dagoeneko ordaindu direla.

### Lokalak egokitzeko laguntza

Bestalde, Udalak dirulaguntzen beste deialdi bat egingo du, merkataritza eta ostalaritza lokalak koronabirusaren aurkako prebentzio eta higiene neurrietara egokitzeko egin beharreko inbertsioak babesteko. Aldundiak 25.600 euro esleitu zizkion Udalari, eta horietatik 6.000 euro baino gehiago banatu dira onartutako hamalau eskaeren artean –aurkeztutako bik ez zituzten baldintzak betetzen–. Gainerako 19.000 euroak ere establezimenduetan egiten diren egokitzapenei laguntzeko erabiliko dira.



# "Kultura matematikoa indartu du COVID-19ak"

**LEIRE ARANA** 'MATEMATIKETAN.EUS' BLOGAREN SORTZAILEA

Bost urte bete berri ditu aretxabaletarrak 2016an abiarazi zuen 'matematiketan.eus' blogak. Matematikak COVID-19aren garaian hartu duen garrantzia azpimarratu du

**Jone Olabarria** ARETXABALETA

*Ipuinak eta matematika* sarrera izan zen Leire Arana Arizmendi ikastolako matematikako irakasleak bere blogean idatzitako lehen artikulua, 2016ko urtarrilaren 14an. Bost urte igaro dira ordutik hona, eta denbora tarte horretan blogak bizi izan duen bilakaeraren berri eman du Aranak.



Leire Arana, eguaztenean, Arizmendi ikastolako Almen gunean. L.A.

**1.500 jarraitzaile, 435 harpide... Espero zenuen halako harrera?**

Pozik nago harrerarekin, baina, batzuetan, lotsatu ere egiten naiz 1.500 jarraitzailerekin pozik nagoelako. Nire txikitasunean, konturatzen naiz Euskal Herri mailan, hezkuntza sistema ezberdinetan, interesa pizten duela, badagoela egarri bat, eta honek moduren batean erantzuten dio egarri horri. Hala ere, oso amateurra da; ni nire lanean nago eta beti esaten dut laugarren umea bezala dela bloga, ordu txikitan elikatutakoa.

**COVID-19aren ondorioz, garrantzi berezia hartu dute datuek...**

Ikuspegi matematikotik aztertuta oso interesgarria da gauzatzen ari den olatua; bat-batean, estatistikak interpretatzen jakitea oso garrantzitsu bilakatu da, garai batean batxilergoan bakarrik ikusten genituen grafiko motak ikusten dira komunikabideetan, portzentajeak, datuak... Kontzeptu matematikoak oso modu naturalean erabiltzen ditugu orain; R0 indizea, 100.000 biztanleko intzidentzia tasak... Izan ere, koronabirusak kultura matematikoaren indartzea ekarri du.

**Blogeko datuei erreparatuta, biderketak dira artikulu irakurrienak.**

Berrehun artikulu baino gehiago daude blogean, batzuk praktikoagoak, beste batzuk teorikoak... Praktikoen artean ere jolasak, ariketak, proposamenak eta erronkak daude, eta gehien irakurtzen direnak biderketa taulak lantzeko modu ludikoak dira. Oso kuriosoa iruditzen zait, eta, seguruenik, erlazioa du jendeak biderketak egitea memoria kontu batekin lotzen duelako, baina zati bat konplexuagoa da adin tarte horretan kenketaren kontzeptua ulertzea.

**"MODU NATURALEAN ERABILTZEN DITUGU KONTZEPTU ASKO: INTZIDENTZIA TASA, R0 INDIZEA..."**

**Semearen zalantza batetik abiatuta, tabletaren bateria kargatzeko denborarekin ariketa bat duzu...**

Semeak berak bota zuen galdera: "Zenbat denbora behar du tabletak bateria betetzeko?". Proposamena ere semeak egin zuen: "Hurrengo %1 betetzen zenbat denbora behar duen kontatzea eta hortik orotara zenbat denbora beharko duen kalkulatzea". Eguneroko gauza askori atera ahal zaio etekin matematikoa, hori da ideietako bat ere nire matematikaren planteamenduaren baitan. Kasu horretan, ni, nire semea eta bere interes-gunea ginen, baina ikasgela batean interes-gune asko dituzu denei heltzeko. Gakoetako bat, baina, hori da; interes-gune batetik abiatu beharra dago, nahiz eta kontuan izan behar diren gidatzen duenaren intuizioa.

**Proposatzen dituzun ariketen artean zerk sortzen du interesa?**

Sektore ezberdinek kontu ezberdinak kontsultatzen dituztela esango nuke, nahiz eta hau nire irakurketa den. Nik defenditzen dudan kontuetako bat, LHn, batez ere, kontzeptu matematiko gehienak fisiko egin daitezkeela da, ikusgarri eta ukigarri. Zelan egin azaltzen dut, eta inprimatzeko jartzen ditut, kasu batzuetan, ariketak. Halakoak asko erabiltzen dira, eta, normalean, irakasleak izaten dira. Beste asko ere desafio eta logikarekin lotuak daude.

**Zein da asmoa hemendik aurrera?**

Hasierako urteetan, hausnarketa pertsonal gehiago zegoen blogean, eta orain, adibide praktiko zehatz gehiago jartzen ditut. Uste dut oraindik urrats asko egin behar direla hemen; irakasleok tradizio matematiko instruktibista eta memoristikotik gatoz, eta hori apurtzea ez da erraza.



Ramon Agirre, Nerea Gorriti eta Inazio Tolosa, *Gu primer!* antzezlanean. ARKUPE

## Euskaldunak, ilargira iristen lehenak 'Gu primer!' antzezlanean

Asier Sotaren zuzendaritzapean, Nerea Gorriti, Ramon Agirre eta Inazio Tolosa arituko dira domekan Arkupen

**J.O.** ARETXABALETA

Domekan, hilak 24, iritsiko da *Gu primer!* lana Aretxabaletako Zaraia Aretora, 19:00etan. Asier Sotaren zuzendaritzapean, Inazio Tolosa, Ramon Agirre eta Nerea Gorriti aktoreak ditu protagonista domekan Aretxabaletan taularatuko duten lanak. Gidoia eta testuak Egoitz Lasarenak eta Ramon Agirrerenak dira.

**Paristik abiatuta, ilargiraino**

Antzezlanak Parisen, Artistaren Etxean, bizi diren Inazioren eta Ramonen istorioa du oinarri. Bertan lanean hasi berri den Nereak, baina, *programa* bat prestatu du bi lagunentzat: kontzertu sorta eskainiko dute, beren errepertorio eta bizipenak kantu-kontatuz. Bertan, balentria handi baten berri emango dute: ez amerikarrak, ez errusiarrak, bi euskaldun izan ziren ilargira iristen lehenak.

2010ean sortu zuten Agirrek eta Tolosak *Xentimorik gabe* ikuskizuna. Ondoren etorri ziren *Koka-kola eta barea* eta *Putinen guardasola* lanak. *Gu primer!* azken lanerako sarrerak lau eurotan eskura daitezke, Arkupeko txarteldegian.

GORA ETA BEHERA



GOIENA

### Urkuluko behatokiak, zaborrez beteta

Urkuluko urtegiaren bueltan dauden txorientzako behatokietan zaborra pilatuta aurkitu dute azken egunetan. Herritar batek argazkia atera eta Goienari jakinarazi dio.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? *berriak@goiena.eus* edo 688 69 00 07.



Bi gazte autobus geltokirantz joaten Eskoriatzako erdigunean. IMANOL BELOKI

# Dirulaguntzen ordenantza osatzeko kontsulta

Eskoriatzako Udalak dirulaguntzak emateko ordenantza orokorra egin nahi du, baina, aurretik, ordenantza proiektu horren aurreko kontsulta ireki du, interesdunek proiektua aztertu eta egoki iritzitako ekarpenak egiteko aukera izan dezaten

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak partikularrei, erakundeei eta herritarren kolektiboei dirulaguntzak emateko aplikatu beharreko araubidea eta prozedura arautu gura du, hala, ordenantza orokorra osatzeko. Horretarako, ekarpenak jaso nahi ditu herritarrengandik, eta proposamenak egiteko azkeneko eguna 2021eko otsailaren 3a izango da.

Gaur egun, Eskoriatzako Udalak ez du udal dirulaguntzak emateko ordenantza orokorrik, eta, beraz, ordenantza hori osatuta zenbait arazo konponduko direla adierazi du Udalak. Besteak beste, dirulaguntzak emateko prozesua argitzea eta zehaztea; dirulaguntzak emateko prozesua homogeneizatzea eta bateratzea udal arloetan. Ordenantza berriaz gain, dirulaguntzak emateko tramiteak arintzeko prozesuak sustatu eta ezarri nahi dira, hala nola erregistro elektronikoa eskaera aurkezteko modu gisa, interoperabilitate akordioak herritarrek administrazioaren esku dagoen dokumentazioa aurkeztu behar ez izateko, dirulaguntza justifikatzeko tramitea errazteko inprimakiak...

**Xehetasunak, udal webgunean**

Proposatzen den araudi proiektuaren xehetasunak, hau da, ekimen honekin konpondu nahi diren arazoak, araudia onartzeko egokitasuna, araudiaren helburuak eta araudi bidezko eta araudiz besteko zer beste irtenbide izan daitezkeen, Eskoriatzako webgunean azter daitezke. Hala ere, aipatutako epean ez badago iradokizunik, prozedurak aurrera jarraituko duela adierazi du Udalak.

**ESKORIATZARREK EKARPENAK EGITEKO AZKENEKO EGUNA OTSAILAREN 3A IZANGO DUTE**

**Ostalaritzari, aparteko laguntzak**

COVID-19aren ondorioz ostalaritzako sektorea jasaten ari den galera ekonomikoa arintzeko eta, horrekin, jarduera mantentzen laguntzeko asmoz, gainera, ostalaritzako sektorearentzako aparteko laguntzak eskainiko dituztela adierazi du Udalak. Oinarriak eta xehetasunak udal webgunean daude, eta informazio gehiago nahi duenak Ibarraundin galdetu dezake. Hala, eskaerak otsailaren 5era arte egin ahal izango dira.

**2021eko aurrekontuak**

Dirulaguntzak emateko ordenantzaz gainera, datorren martitzenean, hilaren 26an, urtarrileko ohiko osoko bilkura telematikoa egingo dute Eskoriatzako udalbatzako kideek. 18:00etan hasiko dira, eta nahi duten herritarrek aukera izango dute bertan adierazten dutena zuzenean jarraitzeko. Besteak beste, 2021eko udal aurrekontuak izango dituzte hizpide.



Martitzenean, Gorosarri auzo atzeko aparkalekuak asfaltatzen. IMANOL BELOKI

## Gorosarriko aparkalekuak asfaltatu eta margotu egin dituzte

Asfaltatze-makineria ekarri dutela aprobetxatuz, Olazar eta Gorosarri arteko bidegurutzea ere asfaltatu dute

**I.B.** ESKORIATZA

Olazar auzoko 1-5 zenbakien parean dagoen aparkalekuen zonan, hau da, Gorosarri plazaren gainaldean, obrak egiten hasi ziren azaroko azken astean, aparkalekuen zorua egoera txarrean zegoelako. Lanak hasi zituzten arren, geldi egon dira denbora batez, eta Gabonetako oporraldiarengatik eta eguraldia ez dutenez lagun izan, asfaltatze lanak egiteke, aste honetan berrartu dituzte.

**Olazar-Gorosarri kaleak, itxita**

Langileak astelehenean eta martitzenean aritu ziren Gorosarri kale atzeko aparkalekuak asfaltatzen, eta, horrekin batera, zona osoko zorua asfaltatu eta Olazar eta Gorosarri arteko bidegurutzea ere asfaltatu dute. Hala, Olazar eta Eduardo Gorosarri auzo atzeko aparkalekuen zona itxita izan da egunotan.

**Asfaltatzea, egun bakarrean**

"Gorosarri auzoaren atzeko partean aparkaleku eta oinezkoen babesgune berriak asfaltatzen eta margotzen izan gara egunotan. Lan hauek Gabonen aurretik egitea aurreikusita zegoen, baina atzeratu egin ziren. Eta gero, eguraldiaren eraginez, elurra eta hotza... ezin eginik egon gara", adierazi du Josu Ezkurdiak, Eskoriatzako Udaleko Hirigintza eta Mugikortasun batzordeburuak.

Denbora batez lanak geldi egon diren arren, geratzen ziren lanak berrartu, eta aste honetan hasi eta amaitu dituzte egin beharrekoak. "Asfaltatzeko makinak etorri direla aprobetxatuz, geratzen zitzaizkigun aparkalekuko asfaltatze lan horiek zein Olazar kalea eta bi auzoen arteko bidegurutzea asfaltatzen aritu gara. Asfaltatze lan guztiek 11.000 euroko kostua izan dute".

## Jose Arana egoitzakoek hartu dute bigarren dosia

Eskoriatzako Jose Arana nagusien egoitzako egoiliarrak eta osasun langileak izan ziren lehenengoak, Debagoienean, COVID-19aren aurkako txertoak jartzen.

Hain zuzen ere, abenduaren 31n, 26 egoiliarrek –Jose Arana egoitzako egoiliar guztiak– eta une hartan lanean ari ziren bederatzi osasun langilek jarri zuten Pfizer eta BioNTech konpainiek garatutako txertoaren lehenengo dosia.

Lehenengo dosia jarri ostean, bigarrena hartzeko 21 egun itxaron behar dira, eta, egun horiek pasata, atzo, eguena, jaso zuten lehen txanda hartan txertoa jarri zutenek bigarren dosia. Lehenengo dosia jarri barik geratu ziren Jose Arana nagusien egoitzako gainontzeko osasun langileek, berriz, joan den astean hartu zuten –hamasei langile–, eta 21 egunera jasoko dute bigarren dosia.

# "Marinara joatea tokatuta, argi nuen ez nintzela joango"

**AITOR KORTAZAR** INTSUMISO IZANDAKOA

Eskoriatzarra zuzenean deklaratu zen intsumiso 90eko hamarkadan. Hala, soldadutzara joateari uko eginda, epaitua eta kondenatua izan zen, gero epaia bete ez arren

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Hilaren 29an, Lander Garrok zuzendutako *Bi urte, lau hilabete* dokumentala proiektatuko da Zaldibar antzokian, 19:00etan. Intsumisioari buruzko lana da, eta bertan, soldadutzaren aurka borrokatutako sei lagunen istorioa kontatzen da. Euskal Herrian oihartzun handia izan zuen Espainiako armadari desobedientzia zibileko gizarte mugimenduak, eta milaka gaztek ezetz esan zioten soldadutza egiteari. Horietako bat izan zen Aitor Kortazar eskoriatzarra. Garroren lanean ez agertu arren, berak bizitakoak ekarri ditu gogora.



Aitor Kortazar eskoriatzarra. AITOR KORTAZAR

**Noiz egin zenion uko soldadutzari?**

18 urterekin Santa Ageda mutil –kinto– izaten ginen Eskoriatzan. Hala, 1990ean tokatzen zitzaidan joatea, baina, ikasketak luzatu nituenez, 91n edo 92an joan beharko nuen.

**Zer egin zenuen ez joateko?**

Kontzientzia eragozpena egiteko aukera zenuen garai hartan. Zerbitzua Gurutze Gorrian, musika bandan… edo zuzenean intsumiso deklaratu. Ni neu zuzenean deklaratu nintzen intsumiso.

**Intsumiso deklaratuta, zer gertatu zitzaizun?**

Soldadutzara joan behar ez zenuela deklaratzen zenuen, eta intsumiso zinela adierazi. Hala, nire kasuan, lehenengo, Bergarako epaitegian deklaratzera deitu ninduten, eta han hiru lagun batu ginen. Kasualitatez, horietako bat abokatua zen, Bergarakoa, Iñigo Elkoro, eta, berak bere burua defendatu ostean, gu defendatu gintuen gero. Hangoak amaituta, Donostiako epaitegira pasa zen kasua. Han epaitu eta kondenatu ninduten.

**Eta kartzelatua izan zinen?**

Ez; zortearen araberakoa izaten zen hori, epailearen araberakoa… Hala ere, kondena jasotzen zenuen, baina, askotan, eskaerak egiten ziren, kondenak ez betetzeko. Izan ere, ni epaitu baino bi edo hiru urte lehenago, ez zegoen hainbeste, baina denbora gutxian sekulako uholdea sortu zen; eta ikusten zen eta ikusten zuten Espainiako armadakoek ere ezingo zela gelditu. Hala, nire kasua linbo batean geratu zen, eta epaia ez zen bete.

> **"MARTUTENERA JOAN BEHAR BADUGU, JOANGO GARA, BAINA SOLDADUTZARA EZ NOA', ESATEN GENUEN"**

**Pausoa ematea zaila egin zitzaizun?**

Niri, Marinara joatea tokatu zitzaidan, eta oso garbi neukan ez nintzela joango. Gainera, nire kintan, ez dakit zenbat izango ginen, baina hiru edo lau bakarrik joango ziren soldadutzara. Askok ikasketak ere luzatu zituzten… Horrekin batera, babes handia geneukan. Nire kasuan, Eskoriatzako Udaletik etorri ziren babesa eta elkartasuna ematera.

**Eskoriatzan, beraz, mugimendu handia izan zenuten?**

Eskoriatzan moduan, Euskal Herriko herri guztietan. Hasiera batean, ni baino nagusitxoagoak zirenek txarrago pasa zuten. Esaterako, gogoan dut Arrasaten zenbait kartzelara joan zirela. Lagun asko ditut intsumiso izateko pausoa eman zutenak, eta batzuek bilatzeko eta atxilotzeko nazioarteko agindua zeukaten…

**Garai gogorrak, beraz?**

Borroka bortitza izan zen, baina une oro jendea lanean ari zen. Iruñeko jende mordoa sartu zuten kartzelan, eta erreferenteak ziren asko: Kojon Prieto y los Huajalotes musika taldeko abeslaria, kazetariak… Onartuta geneukan ez ginela joango. "Donostiako Martutenera joan behar badugu, bertan bukatuko dugu, baina soldadutzara ez noa", esaten genuen. Nire kuadrillako baten anaia hil egin zen soldadutzan zegoela, adibidez. Maniobra militar batzuk egiten ito egin zen pantano batean, eta horregatik ere oso barneratuta geneukan, txikitatik, joango ez ginela. Borrokarako prest geunden: okupazioa, desobedientzia zibila, mugimendu politikoa… zegoen, eta hau bat gehiago izan zen.



Belen Nevado antzezlea oholtzan, saioa eskaintzen. AMAIA GARCIA

## 'Ovarios verdes fritos' antzerki show probokatzailea zapatuan

Ikuskizun probokatzailea, apurtzailea eta dibertigarria izango da, 'Mastur Batetu' doktorearen eskutik

**I.B.** ESKORIATZA

Zapatuan, 19:00etan, Detritus Teatrus taldearen *Ovarios verdes fritos* antzerkia ikusteko aukera izango da Zaldibar antzokian. Belen Nevadoren gidaritzapean osatutako lana berak antzeztuko du, eta antzerki-show probokatzailea, apurtzailea eta dibertigarria eskainiko du, "emakumeentzako antzezlana, gizonek galdu beharko ez luketena", bere esanetan.

Zaldibar antzokiaren edukiera mugatua da eta sarrerak salgai daude Manuel Muñoz kiroldegian, bost eurotan. Hala ere, aldez aurretik saltzen ez diren sarrerak leihatilan erosi ahal izango dira saioa hasi baino hogei minutu lehenago.

**Umore probokatzailearekin**

Konplexurik gabe, *plazera ez du inork ematen, barnean daramagu* ideia berreskuratzen saiatuko da Belen Nevado antzezlea *Ovarios verdes fritos* antzerkiarekin.

Aktoreak publikoarekin harreman zuzena izan gura du oholtza gainean, eta, umorea ardatz, zenbait tabu apurtzen saiatuko da.

## Etxeko kontuak oholtzara, txotxongiloen laguntzarekin

Bihar txotxongilo taldearen azken antzezlana domekan izango da, 17:00etan, Zaldibar antzokian

**I.B.** ESKORIATZA

Ibilbide luzea duen Bihar txotxongilo taldea Eskoriatzan izango da, 45 minutu inguru iraungo duen *Etxeko kontuak* azken antzezlana eskaintzen. Ikuskizuna domekan izango da, Zaldibar antzokian, 17:00etan, eta sarrerak Manuel Muñozen daude salgai, hiru eurotan.

Txotxongiloak mugitzen eta pertsonaia bakoitzaren ahotsak jartzen Ainhoa Etxebarria arituko da, eta, lau txotxongilo protagonista nagusi izanda, hiru istorio ezberdin kontatuko ditu.

"Haurrei eta familiei zuzendutako ikuskizuna formatu ertainekoa izango da. Maria, Mariano, Martin eta Mirentxu dira familia bat osatzen duten protagonistak, familia nahiko xelebrea. Izan ere, hiru istorio desberdin aurkezten dira, eta, horietan, gizonen eta emakumeen, nesken eta mutilen arteko desberdintasunek sortzen dituzten arazoak modu dibertigarrian kontatzen dira", adierazi du oholtza gainean txotxongiloak gidatzen arituko den Ainhoa Etxebarria antzezleak.

# Batzar orokorra egiteko aukera barik, zain daude

Olazar Erretiratu Elkarteko kideak 2020ko martxoaren 17an ziren egitekoak batzar orokorra. Pandemiagatik bertan behera utzi zuten, eta oraindik ez dute zehaztu nola egingo duten, ezta noiz ere. Horrekin batera, ekintza guztiak gelditu dituzte

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Pandemiak gizarte osoari gogor eragin dio, eta ez dira salbuespen Eskoriatzako Olazar Erretiratuen Elkarteko kideak. Izan ere, eurek egiten dituzten ekintza guztiak ezin gauzatu daude martxoa ezkero; batzar orokorra egiteko eta batzordeko kide berrien zozketa egiteko ere ez dakite nola asmatu…

"Egonezin handia" dutela adierazi dute batzordekideek. Hala ere, pazientziaz hartzen ari dira, eta, egoera hobetzeko zain, ahal dutena egiten ari dira. "Erretiratuak ez gara ezer egiten ari. Izan ere, gure ekintza guztietan jende asko batzen gara. Ezin dugu merendolarik egin, ez bidaiarik… Horrekin batera, batzordea osatzen dugun zortzi pertsonetatik lau aldatzekoak ginen iaz. Martxoaren 17an egin behar genuen urteko batzarra, bertan hautatzeko, baina atzeratu egin genuen. Hori horrela, batzordeko kide berek jarraitu dugu orain arte; izan ere, 630 bazkide ditu Olazar Erretiratu Elkarteak, eta ezin dugu deialdirik egin, nahiz eta 30-40 lagun batzen garen, normalean. Guztiei bidali behar diegu deialdia, eta, aukera ezberdinak aztertu ditugun arren, itxarotea erabaki dugu", adierazi du Jasone Orbegozok, Olazar Erretiratuen Elkarteko kideak.



Olazar Erretiratuen Elkartekoek egindako azken batzar orokorra. IMANOL BELOKI

### Batzordeko kide berriak, ikasten

Elkarteko batzordekide berriak zozketa bidez aukeratu behar izaten dituzten arren, gaur egun osatzen dutenek proposatutako lau kide berriak, kargua hartu barik, egin beharreko lanak ikasten ari direla adierazi du Orbegozok: "Denbora aprobetxatu nahian, batzordeko kide berriak izango direnei elkarteko zenbait kontu irakasten ari gara: zer den egiten duguna, elkartea zer den… Konpromisoa hartu genuen hilero kultura etxean batzeko, eta horretan ari gara; hala, kargua hartzen dutenean, prest egongo dira egin beharretarako".

### Gabonetako opari-zozketa

Salbuespen moduan, ekintza bakarra egiteko aukera izan dute Olazarkoek, Gabonetan. Opari-zozketa bat egin zuten elkartea osatzen duten guztien artean, eta nagusienari, 103 urte dituen Pablo Gamboari, ere egin zioten oparitxoa.



Ludotekako haurrak eskulanak egiten izan ziren martitzenean. MIREN ZUBILLAGA

## Eskulanak eginda, datorren asteko antzezlana prestatzen

Ludotekako haurrak astean behin batu arren, denbora ondo aprobetxatu eta ekintza ugari ari dira gauzatzen

**Imanol Beloki** LEINTZ GATZAGA

Gatzagako ludotekan sei haur batzen dira, martitzenero, Miren Zubillaga hezitzaile eskoriatzarrarekin batera, arratsalde ederra pasatzeaz gainera, sormena landu eta gauza berriak ikasteko.

Ludotekako haur gazteena 3 urtekoa da eta nagusiena, berriz, 8 urtekoa, eta astean behin ordu eta erdiz, 17:30etik 19:00etara, soilik batzen diren arren, ahal duten denbora guztia aprobetxatzen dute jolas eta ekintza ezberdinak egiteko.

### Eskulanak egiten aritu dira

"Negu garaian, batez ere, ludoteka barruan egiten ditugu ekintza guztiak. Txotxongiloak egiten aritu izan gara, bizkotxoak ere egin ditugu… Aste honetan, berriz, eskulanak egiteko eguna izan dugu. Puxikak eta arrozarekin egindako malabarrak, soka batekin lotuta dagoen pilota basora sartzean datzan jolasa… egin ditugu, besteak beste. Amaieran, berriz, ohiturari jarraituz, marrazkiak eta mahai-jolasak izan ditugu, eguna borobiltzeko", adierazi du Miren Zubillagak, ludotekako hezitzaileak.

### Mozorrotuta, antzezlanak

Aste batetik besterako saioak prestatuta izaten dituzten arren, askotan egitaraua jarraitzea ez dela samurra adierazi du Zubillagak: "Datorren asteko plana antzezlan bat egitea izango da, eta, horretarako, haurrek mozorro ezberdinak erabiliko dituzte… Hori da hasiera bateko asmoa, baina ea eguna iristean egiteko gogoa duten. Hala ere, egiten ditugun ekintzekin gustura ari direla esango nuke. Dena den, eguraldi hobea egiteko gogoz gaude, hala, kalera atera eta aire libreko jolasak egiteko".

## Buztingintza ikastaroko herriko artistak bueltan dira Zubiaten

Joan den astean hasi zituzten helduen zein haurren ikastaroak buztingintza eta zeramikako ikasleek

**I.B.** ESKORIATZA

Eskoriatzako Buztinate buztingintza eta zeramikako elkarteko kideek ikasturte berriari ekin zioten joan den eguaztenean; hala, seigarren kurtsoari hasiera eman zioten.

Alvaro Garcia irakaslearen gidaritzapean, nagusien taldea eta haurren taldea izango da, beste urte batez, eta, orain arte moduan, eguaztenetan izango dituzte eskolak, Zubiaten. Hala ere, berrikuntzak ezarri behar izan dituzte egoera berrira egokitzeko; besteak beste, partaideak multzoetan banatu dituzte. Hala ere, ikaskuntza eta garapena bultzatzeko helburuarekin, eta herriari irekitzeko asmoarekin, abiarazi dute kurtsoa.

Haurrentzako saioak 16:45etik 17:45era izango dira eta helduentzakoak, 10:30etik 12:30era –berritasuna– eta 18:00etatik 20:00etara. Hala, ikastaroetan izena eman gura duenak, edo informazioa eskatu, eguazten arratsaldean Zubiatera joanda galdetu dezake.

## Pi zenbakia pilotalekuan

*X10* izeneko kale artistak pi zenbakia marraztu zuen 2009an Gatzagako frontoian; hain zuzen ere, proportzioak eskatzen zuen puntuan. Artistak bere lana egin eta gero, berritu egin zuen handik urte batzuetara frontoia Udalak, eta berriztapenean eutsi egin zioten *Pi* koadroari. Hala, bertan jarraitzen du irudiak, eta ikusten duten askoren arreta pizten du bitxikeria honek.




GOIENA



Bergarako frontoia lepo beteta, 1959ko irailaren 25eko buruz buruko finalean. ARGAZKIAK: BERGARAKO UDAL ARTXIBOA / TORIBIO JAUREGI FONDOA




Joxe Arriaran (Arriaran II.a) eta atzean Zurdo de Mondragon, 1950ean.



Pagoaga eta Etxague artekariak, apustu bat apuntatzen.




Ohikoa zen eguerdian pilota partiduak etetea angelusa errezatzeko.

# Pilotalekua aisialdi-gune nagusia zeneko aroa, 40 bat argazkitan erakutsita

Gaur irekiko dute 'Toribio Jauregiren pilotako argazkiak' izeneko erakusketa, Aroztegin, 1915etik 1970era Bergarako frontoian ateratako argazkiz osatutakoa; 2005ean Isabel Vidartek egindako lana baliatu du pilota eta argazki zalea den Iñigo Zaitegi bergararrak

**Jokin Bereziartua** BERGARA

"Azken bolada honetan bogan jarri dira argazki zaharrez osatutako erakusketak, garaiak nola aldatu diren erakusten dutenak. Eta honako hau ere buelta horretan koka dezakegu". Hitz horiekin azaldu du BKEko presidente ohi eta pilota elkartearekin harreman estua duen Iñigo Zaitegik gaur Aroztegin irekiko den erakusketaren helburu nagusia. *Toribio Jauregiren pilotako argazkiak* izeneko erakusketa da gaur Aroztegin ireki eta otsailaren 7ra arte zabalik egongo dena. Honako hau izango da ordutegia: martitzenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:30era; zapatuetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domeketan, 12:00etatik 14:00etara.

**Isabel Vidarteren 2005ekoa**

Erakusketa hori ulertzeko, Zaitegik azpimarratzen duenez, Isabel Vidarte eibartarrak 2005ean eta Toribio Jauregiren argazki fondoarekin antolatu zuen erakusketa arrakastatsua gogoratu beharra dago, Zaitegik haren lana hartu duelako oinarri moduan erakusketa berria antolatzeko: "Bergarako Udal Artxiboko arduradunek jakinarazi zidaten 2005ean Isabel Vidartek antolatu zuen erakusketa, eta argazki horiei begira nenbilela pentsatu nuen berriro erakutsi behar zirela. Argazki ederrak dira, Bergarako frontoia nola betetzen zen erakusten dutenak. Nola aldatu diren gauzak...". 1915etik 1970era arteko 40 bat argazki erakutsiko dituzte, Bergarako Udal Pilotalekuaren "urrezko urteetako harribitxi horiek" bergarar guztiei berriz erakusteko asmoz.

Zaitegik aurreratu duenez, "oso argazki politak" dira, orduko gizartearen aisialdiaren barruan frontoiak berebiziko garrantzia zuela islatzen dutenak: "Sekulako jendetza elkartu ohi zen munizipalean; Arrasatetik, esaterako, jende mordoa etortzen zen. Izan ere, Arrasaten bazegoen frontoia, baina ez zituzten partidu nagusiak jokatzen. Eibartik ere jende asko etortzen zen".

**"TELEBISTAREKIN, ASKO MURRIZTU ZEN FRONTOIRA JOAN OHI ZEN JENDEA"**

IÑIGO ZAITEGI, ANTOLATZAILEA

**Giroa, agintariak eta Eliza**

Erakusketan pilotaririk nabarmentzen den galdetuta, Zaitegik aipatu ditu, besteak beste, Arriaran II.a, Zurdo de Mondragon, Miguel Gallastegi eta Atano III.a agertzen direla, baina Toribio Jauregiri zor diogun altxor fotografiko horretan ez dago apenas argazkirik pilotariak jokoan erakusten dituenik: "Garai hartan oso zaila zen, ezinezkoa ez esatearren, pilotariak jokoan mugitu gabe harrapatzea".

Hala ere, frontoian bizi zen giroaz eta beste hainbat bitxikeriaz gozatzeko aukera izango du Aroztegira hurbiltzen den herritarrak: "Nolako giroa bizi izaten zen, agintariek izan ohi zuten presentzia nolakoa zen...". Eta bereziki aipagarria da, Zaitegiren arabera, Elizak garai hartan –eta ez duela urte askora arte– zuen indarra: "Nik ikusita daukat Bergarako frontoian angelusa errezatzen; partiduak goizean jokatzen zirenean, 12:00etan pilota partidua geratu egiten zen angelusa errezatzeko. Otoitz egin ostean berrekiten zitzaion norgehiagokari; helduon artean ezaguna da hori, baina ez dakit belaunaldi berriek halako bitxikeriak ezagutzen dituzten... Horregatik antolatu dugu erakusketa, gizartea noraino aldatu den erakusteko".

**Munizipalaren gainbehera**

Debagoieneko frontoien artean erreferente izaten jarraitzen du Bergarako munizipalak, afizionatu mailan antolatzen diren txapelketak tarteko, baina azken urteotako mugimendua ezin da alderatu 1950eko edo 1960eko hamarkadetakoarekin: "Telebista agertu zenean asko murriztu zen frontoira joan ohi zen jendea, erosotasunak agintzen duelako. Gainera, partidu garrantzitsuenak beste frontoi batzuetan jokatzen dira gaur egun".

**Partiduak, frontoiko ateak itxita**

Pandemiagatik frontoiko ateak itxita egin behar izan arren, pilota partiduek ez dute etenik: gaur arratsaldean eta domeka goizean, kadete eta senior mailetako partiduak jokatuko dira.



Artez enpresako Maite Fernandez eta Aida Paya aritu ziren hizlari errestaurazioaren gaineko saioan, Laboratoriumen. IMANOL SORIANO

# Zaharberritzearen artea, eta intrusismoaren kaltea

Laboratoriumeko piezen eta bestelako artelanen errestaurazioaren gaineko hitzaldia egin dute Artez enpresako adituek; diote "oso gutxi" baloratzen dela euren lana, eta salatu dute komunikabideetan agertzen diren adibide gehienak intrusismo kasuak izan ohi direla

**Jokin Bereziartua** BERGARA

"Unibertsitateko gradu bat da, lau urteko eta arlo askotariko ikasketak eskatzen dituena. Eta, tamalez, gure lanaren berri ematen denean komunikabideetan, gehienetan, intrusismo kasuen berri emateko izaten da". Artez enpresako Maite Fernandez adituaren berbak dira horiek, artelanen errestaurazioaren gainean Laboratoriumen egin zuten hitzaldian. Zaharberritzaileen lana "oso gutxi" baloratzen dela dio, eta iritzi publikora intrusismo kasuak bakarrik heltzen direla: "Ondo zaharberritutako lan asko egiten dira, baina hedabideetan Cecilia Jimenezen Borjako *Ecce Hommo* agertzen da. Artelanak zaharberritzea ez da eskulanak egitea".

Maite Fernandez eta Aida Paya Arte Ederrak ikasi eta zaharberritzean espezializatu ziren. Berritu beharreko artelana heltzen zaienetik prozesua bukatzen den arteko bidea azaldu zuten hilaren 16an, hogei laguneko edukiera murriztua motz geratu zen saioan. "Hasieran, artelanari buruzko dokumentazio eta ikerketa lana egiten dugu, eta, datuak jaso ostean, egin beharreko lanak zehazten ditugu. Azken pausoa zaharberritzea da", dio Aida Payak. Pandemiak euren ogibidean nola eragin duen galdetuta, honako hau dio Fernandezek: "Gu beti gaude krisian, azken bagoiko azkenak garelako; kultura gara, baina ez gara sortzaileak, eta dirulaguntzak amaitzen direnean gu izango gara laguntzok jasoko ez ditugunen artean lehenak. 2021a oso urte txarra izango da".

**Bergarako adibide batzuk**

Olaso etxeko lorategian dagoen armarria, San Pedro parrokiako San Pedroren irudia eta Hilzoriko Kristoaren kapera dira Bergaran zaharberritu dituzten artelanetako batzuk. Beste pieza batzuk ere erakutsi zituzten: Santa Barbararen irudia, Zientzia Instrumentuen erakusketako Haldaz aparatua eta Tavesa enpresako baskula eta planetario bat, besteak beste. "Ezinbestekoa da guretzat zaharberritzaileen lana. Urtero bideratzen da partida bat zaharberritzetarako", dio Laboratoriumeko arduradun Rosa Errazkinek.





EAJko Maite Agirre, Joseba Elosua, Elena Lete eta Iñaki Arrondo, Seminarioko patioan, eguazten arratsaldean. EAJ

# "Parkinga ez egitearen kalteak jasango ditugu"

Urtarrilaren 25ean onartzekoa den udal aurrekonturako negoziaketa "azken minutura arte" luzatzeko gertu dago EAJ, eta diote aurkeztutako emendakinetatik parkingak eragin duela eztabaida gehien: "Izugarrizko galera eragingo du aparkalekua ez egiteak"

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Urtarrilaren 25eko osoko bilkuran eztabaidatuko da, beste gai batzuen artean, 2021erako udal aurrekontua. EH Bilduren Udal Gobernuak egingo duen proposamenaren aurrean oposizioko talde nagusia den EAJk zer bozkatuko duen ezjakina da oraindik, jeltzaleek diotenez "azken minutura arte" negoziatzeko gertu daudelako. EAJrendako, Seminario azpiko parkinga da gakoa: "Aurkeztutako hamahiru emendakinetatik, parkingaren gaia izan da eztabaida nagusia. EH Bilduren Gobernuak beti esan du mugikortasun planaren emaitzaren arabera hartuko zela erabakia, baina ez da horrela izan. Hau zen Bergarak zuen azken aukera, hurrengo hamar urteetan, gutxienez, ez dugu beste aukerarik izango, honek herrian izugarrizko galera ekarriko du, ostalaritza, komertzioa, Seminarixoa, osasun zentroak… Guztiok jasango ditugu parkinga ez egitearen kalteak".

**"Pobrea eta lanketa gabekoa"**

EAJko Elena Letek dio Udal Gobernuak ez duela proiekturik: "Ez dute inongo lanketa berezirik egin inongo arlotan. Gainera, azken unean, hainbat proposamen jarri dituzte mahai gainean, ulertezina dena hilabete lanean egon ondoren. Kudeaketarik eta agintaldi osorako proiekturik eza nabaria da".

Aldi berean, dio Letek, EH Bilduren proposamena "oro har pobreak eta lanketarik gabekoa" da: "Kudeaketarik eza ere agerian geratu da, aldaketa asko azken astean iritsi dira eta. Aldi berean, guk egindako proposamen gehienen onarpenari esker, Bergararentzat aurrekontua hobetzea lortu da".

**SAN JOXEPE EGUNEKO ZENTROA KALTE ARINAK DITUZTENEI EGOKITZEA DA AKORDIOETAKO BAT**

**San Joxepeko eguneko zentroa**

Letek aipatzen dituen hobekuntza horiek dira jeltzaleek EH Bilduri proposatu eta haiek onartu dituzten proposamenak. Adibide garbiena da kalte arinak dituzten bergararrendako San Joxepeko eguneko zentroa egokitzea: "Bizi dugun osasun krisiaren aurrean, ezinbestekoa da lehenbailehen zerbitzua martxan jartzea. Zerbitzua egonkortzea kartera mapak zehaztu du; gure proposamena bere osotasunean ez onartu arren, martxan jartzeko konpromisoa hartu du EH Bilduk". Ostalaritzarendako laguntza zuzenetan ere akordiora heldu dira, neurri batean: "2021erako partida zehatza ezartzea eskatu du EAJk, 150.000 euro. Proposamena bere horretan onartu ez bada ere, diru partida handitu dute". Zubieta kalea eta Martokoa eraberritzeko proiektuetan ere, besteak beste, akordioak lortu dira. "Azken minutura arte" akordiorako lanean jarraituko dute jeltzaleek.




Martxanterek salda eta txorizoa banatu zieten pentsiodunei. MARTXANTERAK

## Pentsiodunei aitortza, plazako protestek hiru urte bete dituztela

Martxanterek omenaldia egin zieten, salda eta txorizoa ere banatuta: "Zuen borroka gurea ere bada"

**J.B.** BERGARA

San Martin plazako elkarretaratzeetan hiru urte egin izana aitortzeko "omenaldi txiki bat" egin zieten Martxanterek astelehenean, hilak 18, erretiratuei eta pentsiodunei: "Zuen borroka gurea ere bada. Pentsio duinak eskatzen ditugu, bereziki, bizitza sostengatu zuten eta sostengatzen jarraitzen duten emakumeendako. Gure gobernuei eskatzen diegu bizitza jar dezatela erdigunean, eta hori, beste hainbat neurrirekin batera, gure nagusiendako pentsio duinak ematen lortuko dugu. Sistema matxista, arrazista eta kapitalista hau bukatzeko, saretzen jarraitu behar dugu".

**Pentsiodunen esker on hitzak**

Pentsiodunek esker on hitzak izan dituzte herriko talde feministarendako: "Izugarrizko sorpresa eman ziguten. Pentsio publikoen eta duinen alde egindako mobilizazioengatik jaso genuen babesa; pentsiodunon adorea, kemena eta antolatzeko gaitasuna balioan jarri zuten. Mila esker gure eskubideen alde egiteagatik; guk plazetan jarraituko dugu, helburuak lortu arte".

## OHARRAK

### 'Debagoiena 2030': bioaniztasuna eta basogintza

*Pinutik eukaliptora? Euskal Herriko basogintzaren erronkak.* Hizlariak EHUko irakasle Arturo Elosegi eta Mendia Bizirik-eko Iñaki Madinabeitia izango dira. Urtarrilaren 26an izango da, Seminarixoan (18:00). Sarrerak egunean bertan, txarteldegian.

### Euskararen aztarnen gaineko hitzaldia

Laboratoriumen dagoen Soriako hilarrien erakusketako komisario Eduardo Alfarok hitzaldia egingo du gaur, hilak 22, Seminarixoan (17:30). Erakusketa domekara arte egongo da.

### Agorrosin: edukiera %50era, eta jakinarazpenak

Agorrosingo igerileku handian, aldi berean, kale bakoitzeko bi erreserba egin ahal izango dira. Beste kirol-eremuen gehiengo edukiera %40tik %50era igo da. Bestalde, erabiltzaile batzuek arauak bete ez dituztela ohartu eta jakinarazpenak bidali zaizkie.

### Odol emaileak: loteria eta hurrengo ateratzea

Gabonetako loterian bota adinakoa jasotzeko aukera dagoela adierazi dute, Laboral Kutxan. Odola emateko hurrengo zita: urtarrilaren 27an, 16:30etik 20:30era, Oxirondoko goiko solairuan. Bereziki, gazteak deitu dituzte odola ematera: 610 39 32 97.

# Topagunea berrituko dute, Uberaren izaerari heltzeko

Jaolatza elkartea eta eskola etxea egonkortzeko eta eraikin osoan irisgarritasuna bermatzeko obrak laster hasiko dira, eta uda partean amaitu; auzotarrendako "lehentasunezkoa eta estrategikoa" da Uberako topagune nagusia dena eraberritzea

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Azken errolda datuen arabera, 137 biztanle ditu Uberak, eta auzo alkate Gorka Buruagak kezkaz azaltzen duenez, geroago eta zaharragoa da uberarren batez besteko adina. Udalak interbentzio aipagarriak egin ditu azken urteetan auzoan; horren adibide dira 2019ko apirilean bukatu ziren plaza berria egiteko obrak eta duela urtebete inguru frontoiaren kanpoaldea margotzeko lanak. Eta orain, auzotarrendako "lehentasunezkoa" den eskola etxearen eraikina eraberritu ahal izango dute; eraikina egonkortzea eta irisgarritasuna bermatzea izango dira obraren helburu nagusiak.

26 urte daroatza eskola erabilerarik izan gabe, eta oroitzapen ederrak gordetzen ditu Buruagak, bertako azken ikasleetako bat izan zen eta: "Hemen hasi nintzen hezten, Lehen Hezkuntzako seigarren mailara arte. Bizitzaren hasierako guztia inguru honetan bizi izan nuen; horregatik, erro horiek oso barruan sentitzen dira".



Iñurrategi eta Buruaga, eskola etxe barruan, proiektuaren planoekin. JOKIN BEREZIARTUA

**Uberarendako ezinbesteko gune**

1990eko hamarkada amaieratik gaur egunera "oso garrantzitsuak" diren auzo batzarrak egiteko, hitzaldietarako eta tailerrak antolatzeko erabili izan dute eskola etxeko lokala. Ondoan dago Jaolatza elkarte gastronomikoa, bazkarietarako eta afarietarako auzotarrendako ezinbesteko gune dena. Eta beste bi gune ere maiz erabiltzen dituzte auzotarrek eta ingurukoek: batetik, Udalak kudeatzen duen frontoia; eta, bestetik, eliza.

Buruagak argi dio ez dagoela ulertzerik Ubera eskola etxe barik: "Eskola itxi zenean auzoaren parte handi bat hil zen. Adineko auzotar guztiek askotan aipatzen dute gaur egun Uberan ez dela umerik entzuten, eta horrela da. Garai hartan asko galdu zen auzoko bizitza eta uste dugu obra honek aukera berri batzuk eman ahalko dizkigula. Poliki-poliki, garai bateko indarra berreskuratzen joan nahi dugu".

Oraindik definitzeke dagoena da obra bukatu ostean goiko solairuan geratuko diren bi lokalen erabilera. "Auzotarrok erabiltzeko izango dela badakigu, baina oraindik zehaztu egin behar dugu zertarako erabili. Oso garrantzitsua dena da eraikinera sartzeko irisgarritasuna bermatuko dela; orain arte, beti izan ditugu eskailerak elkartera zein eskola etxera sartzeko, eta bada garaia oztopo arkitektoniko horiek, behingoz, kentzeko", gaineratu du Buruagak.

**Pandemia: kohesioari ere kalte**

Badira urte batzuk auzoen arteko kohesioa sustatzeko Auzuen Arteko Eguna eta halako dinamikak abiatu zituztela; 2020an Osintxun ospatu behar zuten, baina COVID-19ak asmo horiek ere jarri zituen hankaz gora: "Oso mugimendu polita zen, bereziki gazteak zirelako protagonista, baina pandemiarekin ezinezkoa izan zen. Ea 2022an berreskura dezakegun... Espero baino gehiago kostatuko zaigu, baina jarriko gara martxan. "Auzoak ere bagara euskal kultura, eta hori ezin dugu galdu".

**GOIKO SOLAIRUAN GERATUKO DIREN BI LOKALEI ZEIN ERABILERA EMAN EZ DAGO ERABAKITA**



Jaolatza elkartearen eta eskola etxearen eraikina eraberritu egingo dute. J.B.

## Eraikina egonkortu, eta irisgarri jarri

Jaolatza elkartearen eta eskola etxearen eraikinerako proiektua Biark arkitektura enpresak idatzi du eta Frixi Eraikuntzak enpresa izan da exekuziorako lehiaketa irabazi duena; aurrekontua 259.795 euro da, BEZa barne. Lanen helburu nagusia da eraikina egonkortzea eta irisgarritasuna bermatzea, eta, horretarako, besteak beste, estalki osoa berrituko dute eta arrapalen bitartez auzo elkartera eta lokalera "sarrera duina" bermatuko dira. Udalak Jaurlaritzaren Erein programako dirulaguntzetara aurkeztu zuen proiektua, baldintzak betetzen zituelako, eta 97.000 euroko laguntza jasoko du. Lanak hasteko "lehen urratsak" egiten ari da Udala, eta, exekuzio-epea lau hilabetekoa denez, espero dute udarako gertu egotea. "Uberak auzo izaerari hel diezaion proiektu estrategikoa da; oso inportanteak dira auzoak, oso aintzat hartzen ditugu", azaldu du Nagore Iñurrategik.



NIRE USTEZ

**MIGUEL LAZPIUR**

## Gauza batzuek kezkatu egiten naute

Ematen du gizadia kontrako norabidean dabilela. Etengabe dugu logika demokratikotik ateratzen diren ordezkari politikoen jardueren berri. Gainera, erregimen politikoak demokratatzat har daitezkeen herrialde batzuetan diktadura gisa jarduten dute. Mugimendu politikoak agertzen ari dira, non alderdi erradikalak boterea hartzen saiatzen diren, kosta ahala kosta. Are gehiago, munduko herrialde aurreratuenari erreparatzen badiogu, gobernantza demokratikoaren logikarekin zerikusirik ez duten jarrerak ikusi ditugu. Bestela, nola uler daiteke presidente batek hauteskundeetako porrota onartzeari uko egitea, egin diren zenbaketa guztien ondoren, eta bere jarrera azaltzeko inolako frogarik aurkezteko gai ez izatea? Nola ulertzen da presidenteak bere aldekoak bultzatzea, indarkeria erabiltzeko asmoz, bere helburu nazionalista eta arrazistak lortzeko, eta haiek obeditzea? Horiek ez badira ekintza faxistak... Zein jarrera har dezakete kargua uzten duen presidenteak eta haren aldekoek etorkizun hurbilean? Hauek dira kezkatzen nauten gauzak; eta guri eragingo digute, dudarik gabe.

## Martxoaren 8rako egitaraua landuko du kontseiluak

Urtarrilaren 25ean elkartuko da berriro ere Berdintasun Kontseilua, 18:30ean. Martxoaren 8aren bueltako egitaraua zehaztea izango da bilera horretarako aztergaia. Bilerak irekiak direnez, modu telematikoan konektatzeko aukera izango dela adierazi du Udalak, aurretik Berdintasun Sailera mezua bidalita: *berdintasuna@bergara.eus*.



Andoni Egaña bertsotan Bergarako Seminarixoan, 2019ko Erramu Zapatu bezperan egindako bertso saioan. GOIENA

# Bertsolaritzaz gozatzeko aukera paregabea bihar

Andoni Egaña, Ane Zuazubiskar, Jon Maia, Maialen Lujanbio eta Miren Amuriza arituko dira Seminarixoko taula gainean, 19:00etan. Kopla Barik bertso eskolako Ibon Leibar ibiliko da gai jartzaile lanetan, hasieratik sarrera guztiak agortu dituen saioan

**Jone Olabarria** BERGARA

Zapatu arratsaldeaz gozatzeko aukera hobeezina izango dute sarrera eskuratzea lortu duten bergararrek Seminarixoan. Izan ere, Kopla Barik bertso eskolaren gidaritzarekin, biharko bertso saioak goi mailako bertsolariak batuko ditu Bergaran, 19:00etan hasita. Bertan arituko dira, hain zuzen ere, Andoni Egaña, Ane Zuazubiskar, Jon Maia, Maialen Lujanbio eta Miren Amuriza bertsolariak.

### Gai serioetatik, umorera

Dagoeneko ohikoa den moduan herriko bertso saioetan, Ibon Leibar *Txinbo* arituko da gai jartzaile lanetan, Kopla Barikeko lagunekin batera antolatu eta zehaztutako saioan: "Asko jota, ordu eta laurdeneko saioa izatea aurreikusten dugu, eta, ohikoa dugun moduan, gai serioetatik hasi eta umorera salto egingo dugu, giroa berotu eta saioak aurrera egin ahala, hori da asmoa".

Bakarkako, binakako eta taldeko ariketak egingo dituzte bertsolariek, Leibarrek azaldutakoaren arabera. Era berean, zehaztu du bera gai jartzailea izango den arren, gaiak zehaztu eta saioa prestatzeko orduan Kopla Barikeko kideek ere parte hartu dutela.

### Sarrerak, berehala agortuta

Saioak izandako "harrera onaren" seinale, sarrerak salgai jarri eta berehala agortu zirela azaldu dute: "Lehen egunetan agortu ziren Seminarixoko sarrera guztiak. Ez genuen ia denborarik izan saioa iragarri edota kartelak jartzeko, ordurako agortuta zeuden. Herritarrek Bergarako Udalaren kultur agendan kontsulta eginda saioaren berri izan eta animatu ziren, antza denez".

> **"GAI SERIOAGOEKIN HASI ETA UMORERA SALTO EGINGO DUGU, SAIOAK AURRERA EGIN AHALA"**

Gogorarazi behar da COVID-19a dela-eta edukiera mugatua dagoela, Seminarixoan, 130 eserlekutara. Era berean, COVID-19aren hedapena saihesteko segurtasun neurri eta protokolo guztiak bete beharko dituzte saiora gerturatzen direnek.

### Bertsolaritzaren aldeko apustua

Azken urtean bizitako egoerak eraginda "milaka" bertso saio bertan behera geratu direla eta, Kopla Barikek bertsolaritzaren aldeko "apustu irmoa" egin nahi izan duela azaldu du Leibarrek: "Irailetik urtarrilera bitartean lau bertso saio antolatu ditugu Bergaran; bata irailean, beste bat urri partean, Gabonetakoa eta biharko saioa. Azken batean, horixe da asmoa, herritarrei kultura aukera zabala eskaintzea, eta, bide batez, denbora askoan geratuta egon behar izan duten bertsolariei plaza bat ematea".



Kea Ahots Taldea, tartean Marije Ugalde bergararra dela. M.U.

## Genero nortasuna kantuan, 'Euri lauso baten tanta finen' lanean

Marije Ugalde kide duen Kea Ahots Taldeak parte hartuko du Arantzazun egingo duten kontzertuan eta grabaketan

**J.O.** BERGARA

*Euri lauso baten tanta finen* lana *Horrela bizitzeko* bildumaren IV. alea da eta abesbatza eta organorako konposizioz osatua dago. Kea abesbatzak eta Ana Belen Garcia organo-joleak interpretatuko dute, Arantzazuko santutegian. Emanaldia 2021eko martxoaren 13an izango da eta grabazioa *Bandcamp*-en argitaratuko da handik hilabetera. Proiektuan parte hartuko dutenen artean dago, gainera, Marije Ugalde musikari bergararra.

Egitasmo osoak, baina kontzertuak oinarri duen ale horrek, "bereziki", sexu eta genero nortasunaren inguruan dihardu, Asier Li lanaren sortzaileak zehaztutakoaren arabera: "Hainbat pentsalari feministaren lanak ikertu eta haien ideiak trinkotu ditut hainbat konposiziotan, bildumak duen narratibotasuna utzi gabe".

### Abesbatzaren garrantzia

Abesbatzak "berebiziko garrantzia" daukala azaldu dute, "bere horretan mikro-gizarte bat islatzeaz gain, hizkuntza eta zaurgarritasunean nola elkar josten dugun gorputzeko" baliatu dutela azaldu dute.

Kea Ahots Taldearen baitan arituko da emanaldi berezian Marije Ugalde. Talde profesionala 1997an jaio zen, "konposizio koral garaikideak interpretatu eta sustatzeko asmoz". Ugaldek berak azaldu du ikuskizuna "oso berritzailea" dela.

### Diru bilketa, ia amaituta

Proiektua gauzatzeko diru kopurua 4.500 eurotan finkatu zuen antolakuntzak, eta aste hau izan da ekarpenak egiteko azkena, *www.verkami.com* webgunearen bitartez. Eguenerako, hilak 21, 215 euro baino ez ziren geratzen helburua lortzeko.

## Pirritx, Porrotx eta Marimotots, otsailaren 13an pilotalekuan

*Amaren intxaurrak* ikuskizuna otsailaren 13an izango da, larunbata, 18:00etan, udal pilotalekuan. COVID-19aren aurrean Eusko Jaurlaritzak eskatzen dituen neurri guztiak bete beharko direla jakinarazi du Udalak, eta, gehienez, 400 lagun sar daitezkeela. Sarreren salmenta urtarrilaren 20an 17:30etik aurrera egin zuten, aurrez aurre, Seminarixoko txarteldegian, eta *www.seminarixoa.eus* helbidean ere eskura daitezke, agortu arte.

Era berean, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen *Amaren intxaurrak* ikuskizunean ezin izango da goxokirik jan, bakoitzak bere lekuan egon beharko du eta 6 urtetik gorakoek derrigorrezkoa dute maskararen erabilera; hortik beherakoentzat, gomendagarria da. Sarreran eskuak garbitu beharko dira, eta aretoko sarrera eta irteera jarraibideak zuzen jarraitu.

# ELURRETAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA 2021

## Hartu parte!

Elurraz gozatzeko aukera bikaina izan dugu egunotan.
Paisaia zoragarriak, mendi bueltak, elur pilotekin jolasak…
Zure argazkiak ikusi gura ditugu!

Parte hartzaileen artean bi sari banatuko ditugu:

**1. Sari Nagusia.**
Oñatiko Soraluze jatetxearen eskutik bi lagunendako otordua.

**2. Publikoaren Saria.**
Intersport Loramendik emandako motxila eta mendirako makilak.
Publikoaren saria bozkatzeko epea
urtarrilaren 25etik 27ra zabalduko da 'Goiena.eus'-en.

Partaide bakoitzak gehienez bost argazki bidali ditzake.
Oinarri guztiak webgunean.
Parte hartzeko azken eguna: **urtarrilak 23**

**688 69 00 07**
**argazkiak@goiena.eus**



AIZKORRI | Argazkia: Amaia Alberdi



ANBOTO | Argazkia: Eider Etxebarria



'PAKITO' ASTOA (OÑATI) | Argazkia: Koldo Medrano Fuertes



ARANGUREN | Argazkia: Mikel Busto Agirreurreta



ELGETA | Argazkia: Jesus Belamendia



MADINAMENDI, ARAOTZ (OÑATI) | Argazkia: Amaia Andueza



ARRASATE | Argazkia: Iker Zubizarreta Iturbe



KURTZEBARRI | Argazkia: Maddi Larrea Ormazabal



AZKOAGA AUZOA (ARAMAIO) | Argazkia: Izar Elorza

**ANTOLATZAILEA:**
goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

**LAGUNTZAILEAK:**
INTERSPORT LORAMENDI
SORALUZE HOTELA OÑATI

**Argazki guztiak hemen:**
*goiena.eus/bereziak/elurretako-argazkien-lehiaketa-2021*



Udal pilotalekuan gaur egun jarrita dauden plakak. MAIDER ARREGI

# 128 plaka fotovoltaiko udal eraikinak elikatzeko

Goiener enpresaren Nafarkoop kooperatibak kaleratu duen txostenaren arabera, Antzuolako udal eraikinak energia berriztagarriz hornitzea errentagarria da. Hala, pilotalekuko eta Herri Eskolako teilatuetan 128 plaka jarri nahi ditu Udalak aurten

**Maider Arregi** ANTZOLA
Autokontsumo energetikoaren aldeko apustua egin du Antzuolako Udalak. Izan ere, herriko hainbat udal eraikin energia berriztagarriz hornitzea posible dela ondorioztatu du Goiener enpresaren baitan dagoen Nafarkoop kooperatibak.

Asteon, herriarendako proiektua errentagarria dela jakin du Udalak. Izan ere, ingurumenarekiko errespetua bermatu ez ezik, urtean sei mila euro aurreztuko lirateke argindarrean. Kalkulua eginda, hamar bat urtean egindako inbertsioa amortizatuta geratuko litzateke.

Proiektu horrek, ordea, bi zati dituela aurreratu du Beñardo Kortabarria Antzuolako alkateak: "Batetik, gure eraikin publikoak energia berriztagarriz hornitzeko sistema eratzearen proiektua dugu; eta, bestetik, herriko zenbait kaletako argiteria energia berriztagarrien bidez elikatzearen egitasmoa dugu esku artean une honetan".

**128 plaka fotovoltaiko**

Herriko eraikin publikoak energia berriztagarriz hornitzeko 128 plaka fotovoltaiko jarriko dira bi eraikin ezberdinetako teilatuetan. "Jaso berri dugun txostenaren arabera, 128 plaka fotovoltaikoko inbertsioa eginda, posible da energia berriztagarriz hornitzea udal eraikin publikoak. Plakak bai pilotalekuan eta baita ere Herri Eskolako eraikin berrian jartzea aztertu du Nafarkoopek. Hala, gaztetxea, Olaran, eskola, udaletxea, pilotaleku eta Torresoroa argindar jasangarriz elikatuko lirateke".

Orain, jasotako txostena ondo aztertu eta hausnartu nahi du Udal Gobernuak. "Aurrekontuetan mila euro bideratu dugu soilik, eta bagenekien proiektua egingarria bazen gehiago inbertitu beharko genuela. Horregatik dago lagata 110.000 euroko kreditu globala, eta propio dakigu gerakina erabiltzeko aukera daukagula. Txostenaren arabera, sistema martxan jartzea 65.000 euro kostatzen da. Helburua, orain, txostena errepasatu, diru partida bideratu eta lehenbailehen deialdia egitea da".

**AITZATIK KALERA DOAN UR-JAUZIAK BEHAR BESTEKO ENERGIA BA OTE DUEN AZTERTUKO DUTE**

**Kaleko argiteria**

Bigarren fase batean, Aitzako depositutik kalera doan ur-jauziak behar beste energia sortu dezakeen ere aztertuko dute. Helburua da ur-jauzi horren energia aprobetxatu eta Ondarre, Herriko Plaza, Kalebarren, Ahierra eta Beheko auzoa argi jasangarriz hornitzea. "Azterketa egin gabe dago, eta ez dakigu errentagarria izango den. Hala balitz, aurrera egingo genuke proiektuarekin. Aurten, lehen fasea egingo dugu, behintzat, eraikin publikoena".

## Antzuolak 2020a hamalau biztanle gutxiagorekin amaitu zuen

2020. urtean, guztira, hamar haur jaio ziren Antzuolan: zazpi neska eta hiru mutil, hain zuzen ere

**Maider Arregi** ANTZUOLA
2020. urteko erroldako datuen arabera, urtea hamalau biztanle gutxiagorekin amaitu zuen Antzuolak. Horrenbestez, erroldako datuetan kontuan hartzen diren jaiotza, heriotza eta erresidentzia aldaketa datuen arabera, Antzuolak biztanleak galdu ditu.



Herritarrak kalean. MAIDER ARREGI

**Hamar jaiotza**

2020ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra bitartean, guztira, hamar haur jaio ziren Antzuolan: hiru mutil eta zazpi neska. Hil zirenen artean, aldiz, hogeita hiru herritar daude: hamabi gizonezko eta hamaika emakumezko.

Datu horiek eta iaz gertatutako erresidentzia aldaketak kontuan hartuta, 2020an hamalau biztanle galdu ditu Antzuolak. Izan ere, 2020ko urtarrilaren 1ean, 2.107 biztanle zeuden erroldatuta; eta 2020ko urte amaieran, aldiz, abenduaren 31n, 2.093 ziren erroldatutako herritarrak.

Hortaz, 2020a biztanle gutxiagorekin amaitu zuen Antzuolak; arestian azaldu bezala, hamalau herritar gutxiagorekin.

## EH Bilduk batzar irekia egingo du hilaren 30ean

Urtarrilaren 30ean, zapatua, batzar irekia egingo du EH Bilduk Torresoroa aretoan, 09:30etik 12:00etara bitartean. "EH Bilduren kongresuaren eta udal jardunaren inguruan ariko gara, eta, ondoren, tarte zabala izango dugu bakoitzak dakarrenaren inguruan hitz egiteko", jakinarazi du Antzuolako EH Bildu alderdiak.

## Eskolako patioa aisialdirako berriro irekita dago

COVID-19ari aurre egiteko neurriek eraginda itxita egon da eskolako patioa herritarrendako. Asteon, ordea, berriro zabalik dago –egoerak bermatzen duen arte–. Izan ere, Eusko Jaurlaritzaren azken dekretuak kiroltalde ez federatua baimendu du. Hainbat arau beteta erabili daiteke: maskara jantzita eta, gehienez, seiko taldeetan elkartuta.

## Sorkuntza proiektuak sortzaileen lana sustatu gura du

*Geuretik sortuak* izeneko proiektua jarri zuen Udalbiltzak abian iaz abenduan. Literaturan, zineman nahiz antzerkian dihardutenen lanak sortzea da proiektuaren helburua. "Beren burua idazletzat, zinemagiletzat nahiz antzezletzat dutenendako da. Labur esanda, arte-alor horietakoren baten inguruko lanak sortzea da proiektuaren helburua", argitu dute. Jasotzen diren proposamenen artean, batzuk aukeratuko dira sortzaileek egonaldiak egin ditzaten Udalbiltzaren parte diren herrietako batzuetan. Eta, horrez gainera, herri horietan girotutako lanak garatzeko aukera izango dute. Bergararekin eta Elgetarekin batera, Antzuola ere tartean dago. Deialdiaren oinarriak *www.udalbiltza.eus* webgunean daude.

Proiektuak aurkezteko epea otsailaren 5ean bukatzen da.

# "Poesiak bizirik dirau gazteon jakin-minagatik"

**LAIA ALTUBE** IDAZLEA

Bi urte daramatza sustrai antzuolarrak dituen Laia Altube idazle gazteak Bartzelonan; pandemia egoerak bultzatuta, bere lehen poesia lana kaleratu du

**Maider Arregi** ANTZUOLA

18 urte ditu Laia Altubek. Arte Dramatikoa ikasten ari da, eta bere lehen liburua argitaratu berri du. Ausardiaz, bai kulturak bizi duen uneagatik eta baita ere barrua hustu izanagatik, *Aquí donde me atrevo a decirte de todo* poesia lana aurkeztu dio GOIENAri idazle gazteak.



Laia Altube, poesia liburua esku artean duela. LAIA ALTUBE

**Zergatik animatu zara poesia liburua idaztera? Zerk bultzatu zaitu?**

Idatzien eta poesiaren bidez espresatu izan naiz. Beti izan dut buruan kutxan gordeta nituen olerkiekin zerbait egitea, eta, berrogeialdia tarteko, motibazioa topatu nuen proiektua martxan jartzeko. Etorkizunarekin zer gertatuko den ez jakiteak buruan nuen proiektua gehiago atzeratu gabe egitera bultzatu ninduen.

**Diozu barrua hustu duzula poesia lerroon bitartez. Zein gai azaleratu dituzu?**

Bai, halaxe izan da. Poesia bakoitzarekin guztiz biluztu naiz. Izan ere, norberarendako idatzitako kontuak dira. Idazteak nire beldurrei, segurtasun faltari, antsietateari eta hainbat arazo gehiagori aurre egiten lagundu dit. Nire munduaren ikuspuntua nabarmendu dut eta harreman mota orok irakatsi eta inspiratu didatena irudikatu dut naturaren, egonezinen eta hausnarketaren bidez.

**Poesia formaturik zailena eta urrunena dela esan ohi da; batez ere, gazteengana heltzeko. Zer deritzozu, hala da?**

Egia da orokorrean jendeak ez duela poesia askorik irakurtzen, baina gazteen artean poesia irakurle komunitate handia dago Espainia mailan. Gaur egun, poesia moderno asko dago, gai ezberdin eta beharrezkoak lantzen dituztenak. Gazteek poesia modernoa irakurtzea nahiago izaten dute, eta nagusiek, aldiz, poesia klasikoa. Beraz, nire iritziz, poesia bizirik mantentzen dugunak gazteak gara, jakinminetik eta garapen soziokulturaletik jaiotzen baita.

**Zein harrera izan du zure lanak?**

Momentuz, oso harrera ona izan du! Ez nuen pentsatzen hainbeste jendek liburuarekiko interesa edukiko zuenik, baina errezitalak direla-eta ezagutzera eman dut neure burua eta liburu eskaera handia eduki dut. Horrek bigarren edizioa kaleratzera bultzatu nau.

**Zer transmititu dizute irakurleek?**

Komentario on eta aberatsak eduki ditut, jendeak pozik hartu du! Gehien nabarmendu didatena da inspirazio handira bultzatuta sentitu direla, eta horrek pozez bete nau.

**Euskaraz, gazteleraz eta ingelesez jasota dago zure lana; zergatik?**

Hiru hizkuntzatan hezi naiz; beraz, hiru hizkuntzatan idazten dut. Sentimendu diferenteak hizkuntza ezberdinekin bat datozela sentitzen dudalako.

**Katalunian bizi zara orain; bertan kultura asko babesten dute. Euskal Herriarekiko badago alderik?**

Bai, aldea igarri dut. Katalunian apustu asko egiten da kulturarekiko eta jendeak asko zaintzen du. Baina, batez ere, hiri handietan, hirira bazoaz kultura eskuragarriago dago eta. Poesiarekiko, adibidez, Bartzelonan mugimendu asko dago, taberna eta gaztetxe askotan mikro irekiak egiten ditugu, non, batez ere, musika, rap eta poesia asko entzuten den.

**Pandemia egoeran kultura kaltetua izan da, eta zu poesia liburua egitera animatu zara. Zaila izan da?**

Ez da egoera egokiena. Lokalak zabalik topatzea zaila da, eta, zabaltzen dituztenek edukiera murriztua dutenez, jende gutxi etortzen da. Kalean ere zaila da gauzak egitea, jendea gero eta gutxiago ibiltzen delako. Hala ere, harrera ona izan du eta herritarrek pozik hartzen dute kultura bizirik jarraitzea.

**Antzuolan ere bizi izan zara. Liburuan badago Antzuolaren zertzeladaren bat?**

*Aquí donde me atrevo a decirte de todo* laneko olerki asko eta asko Antzuolan bizi nintzela idatzi nituen, eta, beraz, horko esentzia ere mantentzen dute idatzitako poemek.

**"LIBURUAN JASO DUDAN POEMA BAKOITZAREKIN GUZTIZ BILUZTU NAIZ; BARRUA HUSTU DUT"**

## Bertso-saio 'polita'

Bertso-zaleek gozatu ederra hartu zuten zapatu iluntzeko punta-puntako bertso-saioarekin Torresoroan. Azken orduko arazo batengatik, Alaia Martinek ez zuen joaterik izan, eta Maider Arregi oñatiarrak ordezkatu zuen. Uxue Alberdi, Unai Agirre eta Beñat Gaztelumendirekin batera "saio polita" osatu zutela adierazi zuten bertaratu zirenek.



IMANOL SORIANO



MAIDER ARREGI

## Aire zabalean jolasteko aukera

Joan den astean jarri zuten Olaran etxearen aurrealdeko espaloian ping-pong mahaia. Herritarrek erabilgarri dute, beraz, dagoeneko. "Kanpoan lan egiteko eguraldi onik egin ez duenez, ping-pong mahai berria bukatzea kostatu egin zaigu. Dagoeneko erabilgarri dago. Erabili, gozatu eta zaindu!", adierazi dute udal ordezkariek.

# Elur egunetako udal kudeaketa, eztabaidagai

Elgetako jeltzaleek elurrari aurre egiteko hobekuntzak eskatu dizkiote Udal Gobernuari, gatza "modu intentsiboagoan eta bidezkoagoan" banatzeko. Harriduraz hartu dute proposamena Udal Gobernuan: "Egin ditugunak egitea eskatzen du"

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA
Elurrari aurre egiteko hobekuntzak egin daitezkeela uste du Elgetako EAJk, eta elur egunetako kudeaketarekin lotuta hainbat eskaera egin dizkio Udal Gobernuari. Eskaeretako bat da gatza "modu intentsiboagoan eta bidezkoagoan banatzea, elgetar guztiek behar duten guztietan gatza eskura dezaten". Adierazi dute auzoetan jadanik uzten direla gatz-zakuak, eta proposatzen dute erdiguneko gune gehiagotan ere uzteko, eta udaletxeko arkupea eskaintzen dute adibide gisa. Azaltzen dute modu horretan bulego ordutegian bertaratzerik ez dutenek ere eskura izango luketela. Oposizioak egiten duen beste eskaera batek baserritarrei eskainitako arretarekin du lotura. "EH Bilduren Gobernuari eskatzen diogu arreta, bitarteko eta laguntza gehiago jar ditzala baserritarrek beren lurretara eta etxebizitzetara sartzeko arazoak sortzen dizkieten eragozpenak saihesteko".



Brigadako bi langile eta herritar bat elurra kentzen urtarrilaren 2an. L.Z.L.

**GATZAREN BANAKETA ETA BASERRI BIDEEN EGOERA DIRA MAHAI GAINEAN DAUDE BI PUNTU NAGUSIAK**

**Udal Gobernua, "harrituta"**
Bulego ordutegiz kanpo gatz-zakuak udaletxeko arkupean izan direla erantzun du Udal Gobernuak. "Hainbat unetan agortu egin bada ere, berriz jarri dugu (...) Baserri bideetan aparkatutako autoak direla-eta (...) Ertzaintzarekin harremanetan egon gara, eta eskaera egin diogu inguru horiek zaintzeko. (...) Kanpotik etorri den jendeak izan duen eraginaren aurrean neurriak hartu behar direla garbi dago. Hala ere, demagogia iruditzen zaigu baserritarrei laguntzeko bitarteko gehiago jartzea eskatzea, Foru Aldundiaren jabetzakoa den baserri bide baten elurra Elgetako Udalak kentzen duenean". Elgeta-Kanpanzar errepidean gertatutakoak ere gogora ekarri dituzte."EH Bilduko zinegotziok lanean jardun dugu brigadari laguntzen: aitzur eta palarekin elurra kentzen, gatza botatzen (...) Eta garrantzitsuena, hurrengo elurtean gauzak hobeto egiteko ikasten!".

## Errepidera jausitako zuhaitzen auzia

Kanpanzar-Elgeta errepidearen kudeaketarekin kezka azaldu du Elgetako Baserritarren batzordeak. Nori dagokion errepidera jausitako zuhaitzak kentzea. "Orain arte, bide azpiegituretako brigadak kendu izan ditu, baina, oraingoan, lur-jabeak egin behar izan du. Baserritarrek ez dute halako lan arriskutsuetarako azpiegitura eta tresneria egokirik", azaldu du batzordeburu Sebas Aranzabalek. Aldundiko Bide Azpiegituretako Sailak erantzun die zuhaitzak jausi izanagatik errepide batean zirkulazioa erabat mozten denean, departamentu horri dagokiola zuhaitzak kentzea: "Etendako zirkulazioa lehenbailehen zabaltzea da gure zeregina". Gertatutakoa abenduaren 27ko haizetetik datorrela zehaztu dute. "Gure lantaldea zuhaitzak kentzen zebilela gehiago erortzen hasi ziren (...) Eta jabearekin harremanetan jarri ziren, honen intentzioaren nondik norakoak jakiteko. Ez zutenez erantzun zehatzik izan, urgentziazko lanak antolatu genituen beste egurgile batekin hurrengo egunerako". Zuhaitzak, ordea, jabeak kontratatutako kamioi batek eraman zituen arratsalde hartan bertan.



Pedro Ruiz ipuin kontalaria. ALABAZAN

## 'Liburuetatik ahora' hitzaldia eguaztenean liburutegian

Alabazan taldeko Pedro Ruizek ipuinak liburuarekin zein liburu barik kontatzeko gomendioak emango ditu

**L.Z.L.** ELGETA
Ordu eta erdiko tailerra izango da eta jorratuko den gai nagusia izango da noiz eta nola kontatu behar diren ipuinak liburuarekin edo liburu barik.
Bada kezka hori liburutegiko kontalari boluntarioen artean, eta saioan izango dira hainbat, baina herritar guztiei zabalik dagoen tailerra da. "Egia da liburuek lana errazten dutela kontatzeko orduan; izan ere, bertan dago dena. Baina horrek badu bere tranpa, ezin baikara gidoitik atera. Kontalaria lotuta dago, nolabait", azaldu zuen abenduko saioan Ruizen lankide Bego Alabazanek. "Gertatu daiteke irudiek presentzia handia izatea, eta testuarekin bakarrik geratzea da liburuaren zati handi bat galtzea. Horren harira, liburua babes eta euskarri oso interesgarria izan daiteke, baina badira egoerak non libururik gabe kontatzea oso interesgarria izan daitekeen. Halakoetan, umeek beraien irudiak sortu behar dituzte, eta irudimena lantzeko ariketa oso garrantzitsua da". Saioa 18:00etan hasiko da. Izena ematea beharrezkoa da.



ELGETAKO HERRI ESKOLA

## Sarriegiren martxak eskolan

Pandemia egoeragatik ezin izan dute kofradiako nobleen aurrean jo, ez eta gurasoen aurrean, baina urteroko danborrada egin dute Herri Eskolan. June Cantabrana Amesti izan da, aurten, danbor nagusia. Aurreko egunetan prestaketa lanak egin ostean, gogor astindu zituzten danborrak eguaztenean Haur Hezkuntzako eta seigarren mailako neska-mutikoek.


Lehen Hezkuntzako laugarren eta hirugarren mailetako haurrak, entrenamendu saioan, martitzenean. L. Z.

## "Umeek jarraitu egin dute kalean jarduerak egiten"

**ETOR GARATE** ESKOLA-KIROLEKO ARDURADUNA


L.Z.

Elgetako haurrak "gogotsu" bueltatu dira asteon kirol jardueretara.

**Zer motatako jarduerak egiten dituzue orain?**
Iraila ezkero, taldeko kirola alde batera lagata dugu, eta banakako ariketak egiten ditugu: askotariko jokoak, sokasaltoa...

**Lan handia izan da neurrietara moldatzea?**
Hasieran, ziurgabetasuna handia izan zen; gauza asko eskatzen zituzten eta ez genekien gai izango ginen horiek guztiak zorrotz eramateko. Dagoeneko, baina, ondo hartu dugu martxa.

**Nola bizi izan duzue eskola-kirolik gabeko aldia?**
Elgetan ez da horren larria izan. Umeek jarraitu egin dute kalean jolasten eta jarduerak egiten euren kabuz. Ez da hiri batean bezala, ez dagoela lekurik edo ezin dutela, bestela, harremanik izan lagunekin...

# Bueltan da eskola-kirola, baita Elgetako haurrentzat

Adin tarteen arabera eta eskolan zehaztuta dituzten burbuila-taldeak mantenduz, "gogoz" berrekin diote Elgetan ere eskola-kirolari asteon. Taldekako kirolak alde batera lagata, bakarkako joko eta jarduerak egiten dabiltza, beti maskara jantzita

**Jone Olabarria** ELGETA

Joan den astean indarrean sartutako dekretuak eskola-kirolaren itzulera ahalbidetu du, eta, beste askok egin bezala, Elgetako haurrak ere asteon itzuli dira kirol jarduera horretara. Astelehen arratsaldean bueltatu ziren txikienak, hirugarren mailakoak, eskolako gimnasiora, eta martitzenean, berriz, laugarren mailakoak, baita bosgarren eta seigarren mailetakoak ere; azken horiek talde bakarrean.

### Neurri zorrotzekin

Dena den, gogorarazi behar da baldintza jakin batzuk betetzea ezinbestekoa dela berriz ere eskola-kiroleko entrenamendu horiek martxan jarri ahal izateko: soilik entrenamenduetarako baimena dago,ez txapelketa edo partiduak jokatzeko. Taldeko kideek beti berberak izan behar dute, eta, posible dela, ohiko burbuilak mantentzea komenigarria da. Era berean, hura baimentzen duen dekretuak zehazten du intzidentzia metatua 500 kasutik gora duten herrietan eskola-kirola geratu egin beharko dela.

### Burbuilak mantenduz

Elgetan ikasturte hasieran definitu ziren segurtasun neurriekin berrabiarazi dute zerbitzua, "eskolako burbuila-taldeak errespetatuz eta higiene zein segurtasun neurri zorrotzak aplikatuz": "Hiru taldetan daude banatuta umeak, adinaren arabera, eskolako burbuilak mantenduz. Eskola-kirolaren kasuan, erraza da ondo zehaztuta mantentzea talde horiek, denak adin tartearen arabera etortzen baitira, eskolan bezala. Pilota eskola ere badugu, eta bertan zailagoa da; izan ere, haurrak adin ezberdinetakoak dira eta batzuk Bergarara ere joaten dira ikastera".

Elgetako eskola-kiroleko zerbitzuko arduradunek jakinarazi dute ordaindutako kuotaren erdia itzuliko zaiela gurasoei, jarduera etenda egon den denbora tartea dela eta.

### Frontoia eta squash kantxa

Horrez gain, kirol kantxak alokatzeko aukera dago eguaztenetik aurrera, libre dauden orduetan. Urtarrilaren 12ko dekretuan ezarritakoaren arabera, horretarako baimena dagoela-eta zabaldu ditu Udalak instalazioak. Gehienez ere lau kirolarirentzat egin ahal izango da erreserba eta frontoiaren kasuan pilota jokoetan soilik aritu ahalko da,– ez, esaterako, futbolean –, Squash kantxan soilik Squashean. Maskara derrigorrezkoa da, beranduenez 20:00etan amaitu, eta ezin da aldagela erabili.

**JARDUERA ETENDA EGON DELA ETA, ORDAINDUTAKO KUOTAREN ERDIA BUELTATUKO DUTE**

## Enduro taldekoak, pistak txukuntzen

Elgetako Piñu-koku enduro taldeko kideak eta lagunak mendian eginda dituzten enduro pistak garbitzen izan ziren joan den domekan. Bertako ordezkariek azaldutakoaren arabera, hainbatetan egiten dituzte urtean zehar halako mantentze-lanak; are gehiago, elurteen ostean: "Egoera nahiko txarrean aurkitu dugu, zuhaitz eta arrama asko erori dira".


PIÑU-KOKU ENDURO TALDEA

## OHARRAK

### Ipuinen ordua, hilaren 22an, liburutegian

Ipuinak HH-5, LH-1 eta LH-2 mailetako neska-mutikoendako, 17:15etik 18:00etara. Udal liburutegiak antolatutako ekintza da, eta kontalari boluntario taldearen eskutik gauzatua.

### Kantsatzeke: bazkidetza eta federazio txartela

Federatzeko eta elkarteko bazkide egiteko kanpaina martxan du Elgetako Kantsatzeke mendi elkarteak. Hitzordua kultura etxean da, 19:00etatik 20:00etara, urtarrilaren 26an, martitzena.

### Baserriko plastiko bilketa, urtarrilaren 27an

Arratsaldez utzi beharko dira plastikoak, zerbitzua aurretik eskatu eta telefonoz zehaztutako lekuan, 943 76 25 47ra deituta.



Goienako Ibai Zabala, igerileku berrien irudiak hartzen; atzean, Josune Odriozola, Oihana Elortza eta Xabier Igartua. XABIER URZELAI

# Garbiketa lanak egin, eta otsailerako prest egongo dira igerileku berriak

2019ko azken egunean itxi zituzten igerileku zaharrak, eta irekitzear daude berriak. Zubikoan egiten diharduten beste lanak ez dituzte amaitu oraindik, baina dena bukatu arte egon barik igeriketa zerbitzua eman gura du Udalak, "segurtasun osoz"

**Oihana Elortza** OÑATI

Urtebete pasatxo egon dira itxita Oñatiko igerilekuak, berriak egiteko, baina ez da askorik gelditzen. Egun gutxi barru egongo dira putzu berriak erabilgarri: otsailean, eta, ahal bada, urtarrilean bertan.

**Igeri egiteko aukera eman**

Igerilekuak erabilgarri egongo dira, baina oraindik ez dituzte kiroldegian egin behar dituzte lan guztiak amaitu, eta, beraz, hilabete pare bat edo, dena prest egon arte, langileek lanean jarraituko dute Zubikoan. "Dena bukatu arte itxaron barik, igeriketa zerbitzua ahalik eta azkarren ematea da gure asmoa. Gimnasioa, esaterako, Eltzian dago egokituta, baina igeri egitera beste herri batera joan behar dute herritarrek. Gauden egoeran egonda, edukierak mugatuak dira beste kiroldegietan ere. Aloña Mendiko igerilariek ere Bergarara joan behar izan dute entrenatzera. Lan guztiak bukatuta ez izan arren, kirol jardun hau eskaini ahal izateari eman diogu garrantzia", dio obren jarraipena egiten dabilen Xabier Igartua zinegotziak. Baliteke lehen egunetan elementu batzuk falta izatea, pegatinaren bat edo igerilekuen bueltan jarriko dituzten bankuak, esaterako, baina segurtasun berme guztiak izango ditu igerilekuak egongo diren gune hezeak. Gune lehorrean egongo dira, beheko solairuan, fitness gelak.

**Irisgarritasuna eta geotermia**

Eta obra guztiak amaitu bitartean, igerilekuetara sartzeko sarrera kantxa urdinetik izango da. Hau da, hango sarreratik sartu eta kantxa berdeko aldagelen pasilloa zeharkatuta helduko da herritarra gero sarrera izango den lehengo kiroldegiko sarrera zegoen tokira.

Behin sarreratik lehen solairura igota –eskailerak eta igogailua daude–, solairu bakarrean ikusiko ditu igerilekuak, aldagelak eta komunak. Igerileku txikiak hamasei metro izango ditu luzeran, eta 0,60 eta 1,10 metro arteko sakonera. Handiak, berriz, bederatzi kale eta 1,30 eta 1,60 metro arteko sakonera. "Kale gehiago dira, baina lehengo sakontasuna bi metrotik gorakoa zen tarte batean, eta, beraz, ur lamina antzerakoa da. Horrek esan gura du ura berotzeko gastatuko dugun energia antzerakoa izango dela gero ere, ez da handiagoa izango. Agian, txikiagoa, geotermia sistema jarri dugulako, eta horrek lagunduko digu gas gutxiago erabiltzen ura berotzeko", azaldu du Igartuak. Tenperaturaren kontrola hartzeko aste batzuk beharko dituzte, geotermiaren, eguzki plaken eta gasaren arteko oreka lortu eta puntu optimora edo kostu gutxienera iristeko.



OIHANA ELORTZA

**Irisgarria**. Igerileku biek dute aldapa bat eginda behar duenak erabiltzeko; goiko estrukturak ere bistan utzi dituzte, altuera irabazi eta lekuari arnasa emateko.

**Gatzari hartutako kloroa**

Joan den astean hasi ziren, poliki-poliki, putzu biak betetzen, eta ura berotzen jarriko dute gero; baita gune heze guztia epeltzeko berogailuak ere. Igerilekuetako urak izango du berezitasun bat: kloroa zuzenean bota beharrean, urak berak duen gatzetik hartuko dute. "Kloroa bera gogorregia da askorendako, azaleko arazoak sortze ditu, adibidez, eta, hori arindu guran, urak berak duen gatzetik –kloruro sodikoa– hartuko dugu kloroa gero berriz urari gehitzeko. Beste toki batzuetan erabiltzen dute teknika hori", gehitu du Igartuak.

**Igerilariekin hasiko dira**

Inaugurazio ekitaldirik egongo ez den arren, Zubikoako igerilekuak prest izango dira laster eta erabilera lehengoaren bera izango da hemendik gutxira, baina, hasiera batean, ez du %100eko zerbitzurik emango. Hau da, igerilariek izango dute lehentasuna, igeriketa elkartekoek zein igeri egin gura duten herritarrek, eta gero hasiko dira, esaterako, ikastaroak eskaintzen edo ikastetxeetako taldeak hartzen. "Igerilariek probatuko dute eta zerbait hobetu beharra badago, tenperaturan edo klimatizazioan, esaterako, kontuan hartuko dugu hobetzen segitzeko. Eurekin jarriko dugu martxan zerbitzua, eta umeendako ikastaroak jartzeko unea dela ikusten dugunean eskainiko ditugu horiek". Horri lotuta, oraintxe

## "Deseatzen gaude etxean entrenatzeko"



X.U.

**JOSUNE ODRIOZOLA**
IGERIKETAKO ENTRENATZAILEA

Bergaran entrenatzen dira Aloña Mendiko igerilariak, eta Oñatira bueltatuko dira igerilekuak zabaldu ahalaz bat.

**Gogorra izan da urtea?**
Pixka bat, bai, Bergarara joateak bere nekea du.

**Deseatzen etxeko igerilekuak estreinatzeko?**
Bai, horixe.

**Goizetan entrenatuko zarete gero ere?**
Hasiera batean, ez, baina asmoa bada goizeko seietan entrenatzeko ohitura berreskuratzea.

**Bederatzi kalerekin, aukera izango da txapelketak antolatzeko, ezta?**
Bai; Gipuzkoan ez daude igerileku asko aukera horrekin, eta Oñatik izango du gero.

**Nola doa denboraldia?**
Txapelketen egutegiak indarrean jarraitzen du eta horiek prestatzeko metroak etxean egingo ditugu laster. Pozik gaude.



OIHANA ELORTZA

**Erlojua.** Horrelako bi daude, igeri egiteko denborak hobeto hartzeko.



XABIER URZELAI

**Sarrera.** Aldageletatik igerilekuetara sartu aurretik dutxatu egin beharko da; soroslearen gelaren parean daude horretarako dutxak.



XABIER URZELAI

**Solariuma.** Igerileku txikiaren gainean eguzkia hartzeko terraza bat egongo da, bistak herri aldera eta Aloña aldera dituena.

ari dira zerbitzuak eskaintzeko beharko dituzten sorosle eta begiraleak kontratatzeko prozesua lantzen eta martxan jartzen. Sauna zerbitzua ere egongo da, baina ez lehen egunetan. Aldagelak eta dutxak hasieratik egongo dira erabilgarri.

**Nork hartuko du lehen bainua?**
Igerileku zaharrak itxi zituztenean, 2019ko azken egunean, igerilekuen ohiko erabiltzaile zein igerilari ohi batzuk joan ziren azken bainua hartzera. Berriak nork estreinatuko dituen, baina, argitu gabe dago oraindik: "Azken ukituak ematen ari gara orain buru-belarri. Ez dakit lehen saltoa nork emango duen, baina erretiroa hartzear dagoen eta Oñatin oso ezaguna den herritar hori ez dela urruti ibiliko iruditzen zait".

## Txandak eta kuotak

Gaur-gaurkoz, 07:30etik 21:00ak arte egongo dira gero igerilekuak zabalik, eta bazkideek izango dute erabiltzeko aukera. Horretarako, kiroldegira deituta edo online egin dezakete alta ematea edo abonu aldaketa. Kuotak 2019ko berak izango dira eta hamaika hilabete ordainduko dira 2021ean.

Igeri egiteko txandak egongo dira eta kaleak erreserbatu egin beharko dira. Telefonoz egin ahal izango dira erreserbak, eta Internet bidez egiteko aukera ere lantzen ari dira.



OIHANA ELORTZA

**Ur hotza sauna-gunean.** Sauna hezea eta lehorra dauden gunean, egoteko tokiaz gain, ur hotzez betetako baldea ere egongo da, gainetik behera botatzeko.



OIHANA ELORTZA

**Harmailak.** Igerileku handiaren parean daude harmailak, 100 bat lagunendako, eta barrutik zein kanpotik sartzeko bidea egongo da.



XABIER URZELAI

**Armairuak.** Aldageletatik ateratakoan pasilloan egongo diren armairuetan utzi beharko dira motxilak, oinetakoak eta bestelako trasteak.



OIHANA ELORTZA

**Uraren tenperatura.** Igerileku handiko ura 27,5 eta 28 gradu artean egongo da eta txikikoa, 29 eta 30 gradu artean.



OIHANA ELORTZA

**Aldagela mistoa**. Lehen bezala, aldagela mistoa egongo da orain ere igerilekuetan, mutilendako eta neskendako aldagela banaz gain.



XABIER URZELAI

**Lanekin aurrera.** Igerilekua zabalik egon arren, langileek kiroldegiko berritze lanekin jarraituko dute.




Haurrak jolasean Zubikoako kantxa berdean, aste honetan. OIHANA ELORZA

# Kirol eskolak martxan dira, aste honetatik

Txirrindularitza eta saskibaloia aste honetan hasi dira eta datozen asteetan dira hastekoak, esaterako, orientazioa, pilota, tenisa, gimnasia erritmikoa, atletismoa eta futbola. Eskola-kirola otsailean hastea aurreikusten dute; 400 umek eman dute izena

**M.S./O.E.** OÑATI

Egun dauden neurriei egokituta eta helduko diren berriei begira, martxan dira Aloña Mendiko kirol eskolak. Astean egin dute bilera sailetako ordezkariek, eta horretarako gogoa eta asmoa erakutsi dute denek.

**Zubikoan eta Larrañan**

Txirrindulariak izan dira hasten lehenak. "Astelehenean atera ginen errepidera. 40 neska-mutiko daude izena emanda, eta taldeetan egiten ditugu entrenamenduak, mailaren araberakoak, eta horiek, era berean, seiko taldeetan, gehienez", dio Kepa Umerezek. Saskibaloian izena eman zuten gaztetxoek atzo, eguena, izan zuten lehen kirol jarduna. "45 ume daude izena emanda, eta horiekin bost entrenatzaile ibiliko gara, lehen saskibaloian ibilitako bost guraso. Sekulako ilusioarekin. Zubikoan egingo ditugu saio batzuk, baina han ez dago tokirik denendako, eta Larrañan izango dira beste batzuk. Hobekuntzak egin ditugu horko kantxan eta saski berriak erosi ditugu. Seiko taldeetan banatuta, astean birritan entrenatzea da asmoa", dio Luis Carlos de Miguelek.

**Futbolean, 143 ume**

Aspaldi erabili gabe duten tapiza zabaldu eta garbitu eta umeak taldeka antolatu beharra dauka Lide Osinagak, baina otsailaren lehen astean gimnasia egiten hastea da asmoa. Eta tenisean aritzekoa Ainhoa Zumalderena ere: "Otsailean hasiko gara, baina ez dugu data zehaztu oraindik. 40 bat ume izango ditugu, eta bi hezitzaile". Atletismokoek ere erabaki dute saioak hastea: "Aste honetan erabakiko dugu nola antolatu eta hasi", Pello Uriarteren esanetan. Gauza bera gertatzen zaie orientazio eskolakoei. "Gurasoekin hitz egingo dugu lehenengo, eta, haiek ados baldin badaude, astelehenean ez bada otsaileko lehenengoan hasiko gara", dio Asier Osinagak.

**TXIRRINDULARITZA ETA SASKIBALOIA ASTEON HASI DITUZTE; ETA BESTE ASKO, DATORREN ASTEAN**

Futbolean izena eman zuten gaztetxoak, berriz, astelehenean hasiko dira. "Azkoagainen izango dira entrenamendu gehienak, eta batzuk Larrañan, mailaren arabera. 143 neska-mutiko daude izena emanda, eta hamar entrenatzaile ibiliko dira eurekin saioak egiten", azaldu du Auritz Larreak. Pilotakoak ere lanean hasteko gogoz daude. "27 neska-mutiko eta lau entrenatzaile arituko gara", adierazi du Iker Egañak.

Eskola-kirolari dagokionez, bilera ugari egin dituzte batzordeko ordezkariek, eta otsailean hasteko asmoa dute, baina oraindik lotzeko dituzte xehetasun batzuk. Ia 400 ume daude eskola-kirolean izena emanda.

## Pilotalekua berrituta, aste bukaeretan partiduei ekiteko

Moldaketa ugari egin dizkiote Zubikoako pilotalekuari; pilota sailekoak prest dira asteburuan neurketei ekiteko

**M.S.** OÑATI

Zubikoa kiroldegiko pilotalekua berritu egin dute: beltzez margotu dute, metro erdi gehiagoko garaiera eman eta lurra eta paretak lisatu. Aloña Mendiko pilota saileko lehendakari Josu Osak azaldu du lehen ere arauzko neurriak zituela frontoiak, baina 9,5 metrotik 10 izatera pasa dela orain, "zentimetro horiek esangura handikoak direlako". Hori gutxi balitz, eserleku berriak jarri dituzte, eta larrialdietarako ate bat egokitu dute: "Orain, segurtasun neurriak hobetuta, harmailetarako sarrera guztiak saldu ditzakegu, lehen ez bezala", zehaztu du.

**Partidu ofizialak hartzeko nahia**

Osak adierazi du pilota partidu ofizialak antolatu gurako lituzketela, baina osasun krisiaren eraginez momentuz ezin izan dutela halakorik egin: "Binakako txapelketako partidu ofizialak hartu ditugu, noiz edo noiz, Oñatin, eta aurten ere ondo legoke hala izatea".

**Asteburuan, neurketak**

Pilota sailaren egoeraz galdetuta, lehendakariak azaldu du entrenamenduak hasteko "zain" egon direla orain artean, eta federatu mailakoek horretarako baimena lortu dutela "azkenean". Are gehiago, asteburu honetan ekingo diote partiduak jokatzeari, lau eta erdiko txapelketari, kadete, gazte eta nagusien mailetako pilotazaleek.

Josu Osak esan duenez, azken boladan, neurketarik gabe zaila izan da jokalarien "motibazioari eustea", baina orain lanean hasteko "gogotsu" daude guztiak: "Egoeraren bilakaerari eta gorriz dauden herriei begiratu beharko diegun arren, luzaroan jokatu ahal izatea espero dugu".




Zubikoa kiroldegiko pilotalekua, berrikuntzak egin berri. OIHANA ELORZA

### 200 metro gehiago egin dituzte Gesaltzako galerian

Aloña Mendiko espeleologia taldeko kideek beste 200 metro egitea lortu dute Gesaltza-Arrikrutz sisteman.

Joan den hilabetean, abenduaren amaieran, egindako irteera batean egin zuten aurkikuntza; aurreko batean igo ez zituzten eskaladako metro batzuk igotzea lortu zuten, eta atzean galeria ederrak agertu zitzaizkien.

### 24. postuan sailkatu da Alonso Espainiako txapelketan

Bi domina lortu ditu Axier Alonso kide izan den euskal selekzioak asteburuan Boi Taullen jokatu zen Mendiko Eskiko Espainiako txapelketan. Proba bertikalean esku hartzera joan zen propio eskiatzaile oñatiarra. Sailkapenean 24.a izan zen, eta "penaz" etorri da: "Penaz nago, benetan nagoen sasoi puntuaz ezin gozatu izanagatik".

# Euskal kantagintza gertutik, martitzenean

'Hitzen ahairea, zeri kantatzen diogun' hitzaldia eskainiko dute Gotzon Barandiaran idazleak eta Rafa Rueda musikariak Kultura Etxean, 19:00etan. Musika eta literatura uztartuko dituzte, abestien nondik norakoei buruzko azalpenak emanda, eta kantuz

**Maialen Santos** OÑATI

Nabarralderen hitzaldi zikloaren barruan, *Hitzen ahairea, zeri kantatzen diogun* izenarekin hitzaldia eskainiko dute martitzenean Gotzon Barandiaran idazleak eta Rafa Rueda musikariak. Kultura etxeko zinema aretoan izango da, 19:00etan.

**Musika eta literatura, bat eginda**

Barandiaranek azaldu duenez, idazle musikazalea da bera, eta Rueda, aldiz, musikari literaturzalea: "Horiek dira gu bizi gaituzten bi kultur adierazbide nagusiak". Hala, euskaldunen historia eta euskal kantagintza "gertuagotik" ezagutzea izango dute helburu hitzaldian, musikarien eta idazleen arteko elkarreragin zuzenetik sortutako "kantagintzaren kontakizuna" eginez. "Kantatzen eta aztertzen ditugunak idazle bati eta musikari bati daude beti lotuta. Hori baino gehiago eta zabalagoa da euskal kantagintza, lehenagotik ere badatorrena, eta gaur egun ere badaude euren kantuak egiten eta kantatzen dituzten taldeak eta musikariak, baina gu hor ez gara sartzen", argitu du.

**Azalpen bidez eta abestuz**

Zehaztu du Euskal Herriaren historia "gainbegiratzen" dutela kantuetan oinarrituta, eta hauxe da jarduteko modua: kantua aurkeztu egiten du Barandiaranek, nondik datorren eta idazlearen zertzelada batzuk azalduta, eta, horren ondoren, Ruedk kanta horrek abesten ditu; zuzenean bertsioak eginez.

"Gure identitateaz ohartarazteko kanta hauek izan dira helduleku bat belaunaldi askorentzat; hau da, euskarari buruzko gure diskurtso politikoa gehiago elikatu dugu kantagintza honetatik, ezen ez bestelako iturrietatik", adierazi du. Eta gaineratu du diskurtso ideologikoa eraikitzeko kantagintzak "izugarrizko indarra" izan duela, eta oraindik ere baduela.



Felix Rüdiger Buff. 'ERRAN.EUS'

## Rüdiger, domekan, Antixena gaztetxeko oholtza gainean

Willis Drummond taldeko bateria jole Felix Rüdiger Buff-en proiektu berria da Rüdiger, eta domekan Antixeneko gaztetxean aurkeztuko du *Before It's Vanished* diskoa, 12:30ean. Gitarra jotzen eta abesten izango da Buff lehen aldiz agertoki gainean, eta, alde horretatik, "berezia" izango dela aitortu du. Gitarra elektrikoa jotzen haren alboan izango da Joseba Irazoki.

## Agortu dira 'Botadun katua' antzezlana ikusteko sarrerak

Domekan 17:00etan hasita eskainiko du Glu Glu antzerki taldeak *Botadun katua* antzezlana, Santa Ana aretoan. Sarrerak agortuta daude dagoeneko. Amama zahar baten eta haren biloben istorioa kontatzera igoko dira oholtzara antzerki taldekoak. Hala, bilobei jolas moduko proba ederra jartzea erabakiko du amamak.

## 'Geuretik sortuak' beka eskatzeko epea zabalik dago

Zinemagintza, literatura eta antzerkigintzan aritzen diren euskal artistei zuzenduta dago beka, eta Oñatik ere hartuko du parte proiektuan. Artista hautatuek euren bizilekua ez den herri batean egonaldia egingo dute, euskarazko sormen-lan bat garatzeko. Otsailaren 5era arte aurkez daitezke eskaerak, *www.udalbiltza.eus*-en.

Debagoieneko
PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA
ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ALBERDI ASESOREAK
BERGARA / Mabiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK
ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@uribesalgo.es

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK
ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

LARRAITZ VALENCIA AZKARGORTA
Arkitektoa eta tradesperson formazioa
Tel.: 636 89 92 11
larraitz.arkiestudioa@gmail.com

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.




Klub zuri-gorriak Superkopa irabazi berritan zabaldutako irudia, orain arteko eta gaur egungo entrenatzaileekin. ATHLETIC CLUB

# Ezustean irabazi duten garaikurra

**FUTBOLA** Zale gutxik espero zuten, Gaizka Garitano Marcelino Garciak ordezkatu berritan, Athletic Superkopa irabazteko gauza izango zenik. Talde bizkaitarrak beste behin erakutsi du partidu bakarrerako kanporaketan lehiatzeko daukan gaitasuna

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Athleticeko peña edo zale talde asko daude Debagoienean. Ritxi Mendiguren eta Oñatiko Zuri-gorriak Oñatin, Bergarako eta Aretxabaletako Peña Athletic taldeak, Elgetan Intxortako Lehoiak, Arrasaten Peña Imanol... Euretako batzuek aktibo jarraitzen dute eta beste batzuen jarduna apalagoa da edo desagertuta dago, baina bailaran talde zuri-gorriak zale asko ditu. Eta domeka gauean, Superkopako finaleko luzapenean Iñaki Williamsek 3-2ko ikusgarria egin zuenean, orro egin zuten denek.

Gehien entzun zena Euskadi Irratiko esatari Haritz Gallastegirena izan zen. Elgetarraren ahots apurtua ibarreko etxe askotara sartu zen; izan ere, futbola ikusteko ordaindu egin behar den garai honetan, irratiak bere lekua errekuperatu du: "Nik Gallastegi entzunda jarraitu nuen partidua. Ezaguna dut haren kontra futbolean jokatu izan dudalako, eta gustatzen zait partiduak irratiz entzutea, telebistan ikusteak baino emozio handiagoa izaten du", dio telefonoaren beste aldean Ibon Leibar *Txinbo*-k.

Eta Gallastegiren herrikide Jose Ramon Sarasua *Txapel*-ek bat egiten du *Txinbo*-rekin. Elgetarrak, baina, gurago izan zuen partidua Radio Euskadin jarraitu: "Gallastegi ezagutzen dut, baina ohitura dut Athleticeko partiduak Radio Euskadin entzuteko. Hori du irratiak, jokaldi guztiek izaten dutela emozioa... Baina luzapena irrati bidez luzea egin zitzaidan, hura sufrimendua... Ondoren, telebistan ikusi nuen laburpena".

**HAMALAU EGUN BEHAR IZAN DITU ENTRENATZAILE BERRIAK TITULU BAT IRABAZTEKO**

Oñatiko Mikel Vizcainok, berriz, telebistaz jarraitu zuen partidua, tentsio handiz: "Halako partidu bat ez dago lasai ikusterik. Urduri egon nintzen momentu oro, Williamsek gola egin zuen arte".

**Ezin, baina, garaipena ospatu**

Pandemia garai honek, baina, galarazi egin zien Athleticeko zaleei garaipena behar den moduan ospatzea: "Hori izan da penagarriena, denok etxean egon behar izate hori. Peñatik beste batzuetan egon izan gara finaletan, baina orain ezin izan dugu ezer antolatu, eta halaxe jarraitu beharko dugu".

## Horrela bizi izan zuten finala:



**HARITZ GALLASTEGI** EUSKADI IRRATIKO ESATARIA

**"Cartujan 200 lagun izango ginen harmailetan"**

"Final berezia izan zen; Cartujako estadioko harmailetan 200 lagun inguru izango ginen eta ospakizun berezia izan zen, baina polita. Real Madril eta Bartzelona taldeei irabazi izanak eman dio balioa garaikurrari, baina zaleendako ezustea izan da Athleticek Superkopa irabazi izana. Klub zuri-gorria dinamika gorabeheratsuan dago, bi korronte kontrajarri daude klubean. Dena dela, ikustekoa da Marcelinok hamalau egunean zer lortu duen. Ligan berretsi behar dute Superkopan egin dena".



**IBON LEIBAR** ATHLETICEKO ZALE BERGARARRA

**"Partidu bakarrera Athletic oso lehiakorra da"**

"Gaizka Garitanorekin taldea ez nuen horren txarto ikusten, gaur egungo futbola oso berdinduta dagoelako, eta bai, puntutxo bat falta zitzaien, baina ez zen horrenbesterako. Marcelinorekin, baina, taldeak beste aurpegi bat erakutsi du. Oso pozgarria izan da Superkopa irabazi izana, baina niretako bigarren mailako titulu bat da hau, ez da Liga edo Kopa irabaztea bezala. Ni neu Realaren kontrako finala irailera atzeratzearen aldekoa naiz; ea orduan egoera hobea den eta zaleek harmailetan ikus dezaketen partidua".



**MIKEL VIZCAINO** RITXI MENDIGUREN PEÑA

**"Marcelino ez dut gogoko, baina sekulakoa egin du"**

"Williamsen golak ezustean harrapatu ninduen; luzapenean jokalariak nekatuta zeuden eta jada ez nuen halako golik espero. Ederra izan zen, gutxitan ikusten den horietakoa. Hala ere, penagarria da final batera iritsi eta denok partidua etxean ikusi behar izatea. Ritxi Mendiguren Peñakook Kopako azken finaletan harmailetan egon izan gara, baina orain ezin da halakorik antolatu. Amaitzeko, ikustekoa da taldeak entrenatzaile berriarekin izan duen aldaketa; eskema apur bat aldatu du, baina...".



**JOSE RAMON SARASUA** INTXORTAKO LEHOIAK

**"Gaizka Garitanorengan ez zuten sinesten jokalariek"**

"Astelehenean 05:00etan jaiki behar nuen, baina partidu ostean telebistako laburpena ikusten geratu nintzen. Zaleondako sorpresa izan da Superkopa hau, taldea ez zegoelako ondo. Nik ez dakit entrenatzaile berriarekin zer gertatu den, esango nuke jokalariek ez zutela Gaizka Garitanorengan askorik sinesten. Orain, garbiago dute egin behar duten hori. Gabarra azkeneko aldiz atera zutenean bertan izan ginen gu, eta Realari Kopan irabazten badiogu ostera ere aterako dugu".

# "Igarri egiten dugu zaleen hutsunea harmailetan"

**ARATZ KORTAZAR** ESKORIATZAKO KAPITAINA

**ARETO FUTBOLA** Denboraldi bakarra egin dute maila nazionalean, eta bigarrenean, Eskoriatza ligako oilar bilakatu da; izan ere, lider da, zazpi jardunaldi jokatuta

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Aratz Kortazar (Eskoriatza, 1988) taldeko erreferenteetako bat da. "Lau beterano geratzen gara eta gainontzeko jokalariak gazteak dira. Eta gaztetasun hori igarri egiten da kantxan". Lehenengo postuan egon arren, mailari eustea da, oraindik ere, buruan daukaten erronka.

**Pandemiak baldintzatutako denboraldi honetan lider zarete. Espero zenuten halakorik?**

Egia esan, ez. Guretako bigarren denboraldia da maila nazionalean, eta iazkoa urte erdian bertan behera geratu zen; horrenbestez, iritsi berriak garela esan genezake. Hala, partiduak jokatzen joan garen neurrian garaipenak batu ditugu, eta erakutsi dugu, oraingoz, hor aurrean egoteko kapaz garela [Eskoriatzak oraindik ez du partidurik galdu: lau irabazi ditu, eta hiru berdindu].

**Non dago talde horren sekretua?**

Bada, ez daukat oso garbi. Egia esatearren, denboraldia hasi genuenean ez genuen aurreikusten horren aurrean egotea; oraindik ere mailari eustea da Eskoriatzak daukan helburu nagusia.

**Eta lider egoteak ez du hori aldatzen? Hau da, martxa honetan, posible da igoera fasea jokatuko duten taldeen artean egotea Eskoriatza.**

Bai; egia esan, dagoeneko zazpi jardunaldi jokatu ditugu, eta lehenengo laurak sailkatuko dira igoera faserako. Beste multzoan ere beste lau taldek egingo dute aurrera, eta baditugu aukerak hor egoteko. Dena dela, matematikek oraindik ez digute halakorik ziurtatu, eta gurago dugu poliki-poliki joan. Egia da, dena dela, gaur egun ze postutan gauden ikusita jaitsiera fasea jokatzen badugu, zapore gaziarekin amaituko dugula denboraldia.

**Pandemia egoerara ondo moldatu zarete, antza.**

Hainbat geldialdi izan ditugu liga honetan, eta beste batzuei baino gutxiago eragin digu horrek. Beste talde batzuk baxuago ikusten ditugu. Nik uste dut gazteengan dagoela gakoa. Hau da, COVID-19a dela-eta gaur egun gazteek ezin dute parrandarik egin, eta taldekide gazteenak sasoi betean etortzen dira partiduetara, biharamun barik; kar, kar, kar. Beteranoak jada ez gaude asteburuero parrandan ibiltzeko; horrenbestez, eurena da meritua.

**Arraroa izango da partiduak zalerik jabe jokatzea, harmailak hutsik ikustea.**

Bai; bereziki, etxeko partiduetan. Izugarri sumatzen dugu zaleen hutsunea, oso giro polita egoten da eta.

**Zer-nolako taldea duzue?**

Gaur egun, lau jokalari beterano gaude, eta gainontzekoak nahiko gazteak dira. Beteranoetako batek COVID-19agatik areto futbola uzteko erabakia hartu zuen, eta nik uste dut niretako ere azken urtea izango dela.

**Seguru? Beteranoek denboraldi amaieran urtero esaten duzue hori, baina gero... Harra hor egoten da.**

Kar, kar, kar... Halaxe da, bai. Inoiz ez dago jakiterik noiz den erretiroa hartzeko momentua, baina gertu dago, bai.

**Eskoriatzan, gainera, kapitain eta erreferente zaitugu. Sasoi batean, lagun asko Aretxabaletara joan ziren jokatzera, eta Eskoriatzan geratzea erabaki zenuen.**

Halaxe da, eta, bueno, erabaki zuzena izan zen, maila nazionalean jokatu ahal izan dut eta.

**Bide batez, derbia izango dute asteburuan Aretxabaletak eta Mondratek...**

Eta bi taldeak daude egoera onean, gainera. Ea biak ala biak igoera faserako sailkatzen diren, eta derbiak errekuperatzen ditugun.

**Duela bizpahiru urte, hiru taldeak Euskadiko Txapelketan...**

Denboraldi ederrak izan ziren haiek, giro ederra egoten zen derbietan. Faltan igartzen ditugu, egia esan.



Aratz Kortazar, baloiarekin. GOIENA

## "ERABAKI ZUZENA IZAN ZEN ESKORIATZAN GERATZEA, EZ NAIZ DAMUTZEN"



Iban Perez, azaroan *Harmailatik* saioan. GOIENA

# Iban Perez izango da Euskadiko Federazioko presidentea

**TRIATLOIA** Oñatiarra Gipuzkoako Federazioko presidentea da duela lau urtetik; erronka bikoitza izango du orain

**X.U.** ARRASATE

Joan den egubakoitzean amaitu zen Euskadiko Triatloi Federaziora hautagaitzak aurkezteko epea. Eta Iban Perezen hautagaitza izan da aurkezten bakarra: "Uste dugu Gipuzkoako Federaziorako baliagarriak izan daitezkeen gauza asko Euskadikoan ere aplika genitzakeela [Iban Perezek bigarren agintaldia hasi berri du Gipuzkoako Federazioan]. Baina egon dadila jendea lasai, Euskadikoa kudeatzeko ardura izanda ere ez dugu-eta Gipuzkoakoa bigarren mailan utziko. Berez, ez da lan bikoitza; sinergiak batzen ahaleginduko gara, lan asko bateragarriak izan daitezke, eta, Gipuzkoakoan egin genuen moduan, komunikazioan hobetzea izango da Euskadiko Federazioan zereginetako bat, bai triatletekin eta baita lasterketetako antolatzaile eta klubekin ere".

Hala, azken hamarkada pasatxoan Euskadiko Triatloi Federazioa zuzendu duen Agustin Mendez irundarra ordezkatuko du oñatiarrak.

**Denboraldia, hastear**

Berez, otsailean hasiko dute 2021eko duatloi denboraldia. Otsailaren 27an izango da lehenengo lasterketa, Mungian, eta, guztira, egutegian 22 lasterketa daude aurreikusita –Oñatiko duatloia apirilaren 24an izango da–. Pandemia egoerak, baina, goitik behera baldintza dezake urte hasi berria: "Bilbon iaz egin zuten distantzia ertaineko Espainiako Txapelketak erakutsi zuen gauzak ondo antolatuta eta osasun neurriak hartuta posible dela pandemia egoeran lasterketak antolatzea. Baina antolatzaileekin gertuko hartu-emana izan beharko da, eta euren iritzia batu".

## ARETO FUTBOLA Oilarren arteko derbia izango da Ibarran

Euskadiko Txapelketa barruan, derbia jokatuko dute lehenengo postuan dagoen Mondratek eta bigarren postuan dagoen Aretxabaletak. Jokatutako sei partiduetatik bost irabazi dituzte arrasatearrek eta lau aretxabaletarrek, baina sailkapena irauli egin daiteke asteburuan. Zoritxarrez, publikorik gabeko partidua izango da hori ere.



GOIENA

# "Intimitatetik unibertso osoak sortzeko gai da"

**GARAZI UGALDE PIKABEA** ITZULTZAILEA ETA IDAZLEA

Itzultzaile-interpretea da ikasketaz eta ofizioz, eta bi poesia liburu argitaratu ditu: 'Korapiloak lokarrietan' eta 'Morfologiak'; azken Jokin Zaitegi sariketa irabazi du

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE

Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat egiten du lan Garazi Ugalde Pikabeak (Lezo, 1988), baina datozen hilabeteetan beste erronka bat izango du: Louise Glücken *The Wild Iris* poema liburua euskarara itzultzea.

**Zorionak! Pozik? Espero zenuen?**

Oso pozik. Egia esan, mimo handiz prestatu nuen lagina eta gustura geratu nintzen emaitzarekin, baina halako sariketetan beste alderdi asko ere sartzen dira jokoan: aurkezten den lagin kopurua eta horien kalitatea, epaimahaiaren gustuak… Beraz, bai, sorpresa polita izan da.

**Epaimahaiaren esanetan, "bai lexikoan bai sintaxian akatsik bat ere ez, eta jatorrizko lanaren tonuan gehien asmatu duena izan zara". Zer deritzozu?**

Horixe da, hain justu, edozein itzultzailek bilatzen duena. Hizkuntzaren zuzentasunetik harago, jatorrizkoaren tonua jasotzen asmatzea.

**Ezagutzen zenuen aurrez Louise Glück eta haren obra?**

Ez nuen idazlea ezagutzen, Literaturako Nobel saria eman zioten arte. Saritu zutenean hasi nintzen haren poemen bila, eta harritu egin ninduen. Oso ahots berezia duela iruditzen zait: hizkuntza xumea erabiliz, intimitatetik, unibertso osoak sortzeko gai da.



Garazi Ugalde lezoarrak irabazi du azken Jokin Zaitegi sariketa. OLAIA GERENDIAIN.

## "OSO LAN ORIGINALA DA; NATURAREN EDERTASUNA ETA GIZA KONDIZIOA DITU ARDATZ"

**Zelakoa da *The Wild Iris?***

Oso originala da. Naturaren edertasuna eta giza kondizioa ditu ardatz. Denbora, hilkortasuna, ziklikotasuna… Gai aski unibertsalak lantzen ditu, baina oso modu berezian. Poemak loreetan oinarritzen dira, eta bakoitzak giza esperientziari buruzko zerbait sinbolizatzen du. Poemaz poema lorategi bat osatzen da, iruditeria oso bat.

**Pulitzer saria jaso zuen 1993an; bertigoa ematen dizu horrek ala, alderantziz, pizgarri da zuretzako?**

Bi gauzak batera! Literaturako Nobel sariduna itzultze hutsak ematen dit errespetua, jakina. *The Wild Iris* liburua bera bikaina da, eta erronka moduan hartuko dut hura itzultzeko lana.

**Zein izango da zure lan-prozesua?**

Aurrelanetan ari naiz: dokumentatzen, planifikatzen, egilearen lanak irakurtzen... Poema bakoitzak bere denbora eskatuko dit, mantso egin beharreko lana izango da. Bide horretan, eskatuko dut behar beste laguntza; itzultzaileok, normalean, ez gara bakarrik aritzen. Lankidetza hori ezinbestekoa da azken emaitza ona izan dadin.

**Xabier Mendiguren editoreak zera dio: "Hizkuntza xumea darabil egileak, baina, aldi berean, gai sakonak landu ditu. Kultuaren eta herrikoiaren arteko oreka hori izan daiteke gakoa". Bat zatoz?**

Erabat. Oreka horri esker funtzionatzen dute hain ondo haren poemek. Itxuraz xumea izan daitekeen hizkuntza horren atzean sakontasun handia dago. Xehetasunetik eta intimitatetik abiaturik iruditeria zabala sortzen du, sinbolismo handikoa, gai unibertsalez aritzeko.

**Poesia lana da. Zuk ere bi poesia liburu idatzi dituzu; esperientzia horiek lagungarri izango zaizkizu?**

Poesia-zale izatea bai, dudarik gabe. Itzultzaileak irakurle izan behar du, ezinbestean. Literaturaren eta hizkuntzaren baliabideak ezagutu behar ditugu, obra bat beste hizkuntza batean birsortzeko. Irakurtzea, idaztea eta itzultzea eskutik datoz.

**Ze garrantzi ematen diozu Jokin Zaitegi sariketari?**

Gure txikitasunean, halako sariketek eta lehiaketek zentzu betea dute, bestela nekez euskaratuko liratekeen liburuak euskaraz izatea errazten dute eta.

**Euskal Literatura oparoa izan dadin, itzulitako lanak beharrezkoak dira?**

Noski. Inor ez da bizi bere hizkuntzan sortzen denarekin bakarrik; itzulpenik ezean, inguruko erdaretara jotzen dugu.

# Huhezinema jaialdian parte hartzeko epea zabalik dago

Komedia saria izango da aurtengo euskarazko film laburren jaialdiaren berrikuntza nagusia

**A. A.** ARETXABALETA

Martxoaren 16tik 18ra bitartean egingo dute MUko Huhezi Fakultateak antolatzen duen hamalaugarren euskal film laburren jaialdia. Iaz, online egin zuten, baina ez dute oraindik zehaztu zein formatutan egingo duten aurten. "Modu presentzialean egin nahiko genuke, ekitaldi batzuk bai, behintzat, baina, oraingoz, ezin hala baieztatu", dio Iban Del Campo irakasleak.

Aurrekoetan moduan, edozein gai edo estilotako film laburrak aurkeztu ahal dira, eta parte hartu gura dutenek otsailaren 16a dute lanak bidaltzeko azken eguna. Kartelaren lehiaketa ere abian da eta otsailaren 1a bitartean aurkez daitezke. Oinarriak eta informazio gehiago *huhezinema.eus* atarian daude jasota.

**Komediari balioa emateko saria**

"Bizi dugun egoerari buelta eman gura izan diote jaialdia antolatzen ari diren ikasleek, eta, horregatik, komedia generoa, zentzu zabalean hartuta, saritzea proposatu dute; izan daiteke komedia beltza, komedia surrealista... Sail Ofizialean eta MUko ikasleen sailean aurkezten diren lanak hartuko dira kontuan sari berrirako hautagai moduan".

ELKARRIZKETTAP
GOIENA TELEBISTA
URTARRILAREN 27AN, EGUAZTENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN
ENEKO LAMBEA GIMNASTARI AIERT ARIETA-ARAUNABEÑAK EGINDAKO ELKARRIZKETA
goiena
Zu hemen zaude.





Donostiako Nogen taldeak kontzertua egiteko asmoa du astelehenean Amaia antzokian. IMANOL ARTOLAIN

# Sentimendu gordinak, doinu rockzaleagoekin

Nogen donostiarrek abenduan argitaratu zuten 'Azalaren azpian', hirugarren lana, Amaia antzokian aurkeztekoak dira astelehenean, 19:00etan; datozen egunetan ezarri ahal dituzten murrizketa berriek eragina izan dezakete ordutegian eta datan

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE

2020aren hasieran, aurreko lanaren –*Liv til doden*– aurkezpen bira bukatuta, urte berria atseden hartzeko eta hurrengo lana prestatzeko hartuko zutela esan bazuten ere, taldearen asmoak eraldatu egin zituen pandemiak. "*Streaming* bidezko kontzertuak ematera ohitu ginen orduan, eta, aldi berean, sortuta genituen kantuei forma ematen eta berriak sortzen aritu ginen", azaldu du Alex Irazusta gitarra-joleak.

Abenduan aurkeztu zuten *Under alt –Azalaren azpian–* lana eta harrezkero zortzi kontzertu egin dituzte. Neurri murriztaile berririk ezarri ezean, astelehenean Amaia antzokian izango dira; sarrera guztiak agortuta daude. "Edukiera mugatua izanda, gaur egun *sold out* egiteak badu bere barruan tranpa txiki bat; hortaz, alde batetik, pozik eta oso eskertuta gaude jotzeko ditugun aukerengatik, baina pena apur bat ere badugu, jendea areto kanpoan geratzen delako".

**Barruan arakatuz**

*Sentimendua, oroitzapena, ametsa, ilusioa, pena, zirrara, beldurra*... Halako hitzak musikaren bitartez azaldu gura izan ditu Nogenek bere hirugarren lanarekin. "Gure barrura begiratu, azala ondo arraskatu eta barruan dagoena kanpora atera dugu; eta barruan dagoena modu irekian kontatu dugu, jendeak kantua bere egin eta bere senti dezan. Bederatzi kantutatik zazpi itxialdiaren aurretik eginda genituen, eta ondoren atera diren beste biek ere ez dute zuzenean pandemiari buruz jarduten; gai horretatik aldendu nahi izan dugu, lan atenporala izateko eta gure bizitza normaletik gertuago egoteko".

**2016AN SORTUTAKO TALDE DONOSTIARRAK HIRUGARREN LANA AURKEZTEKO ASMOA DU AMAIA ANTZOKIAN**

Ezaugarri dituzten folk, pop eta indie doinuekin jantzi dituzte kantu berriak, ukitu rockzaleagoa duten arren. "Orokorrean, gitarra elektronikoak protagonismoa irabazi du, eta, ondorioz, abestiek indar handiagoa dute, rocketik gertuago daude. Etorri den zerbait izan da, ez dugu hori bilatu nahi izan; taldearen bilakaeraren erakusle da".

**"Emaitzarekin gustura"**

Hala daude taldekideak, eta pozik daude adituen eta zaleen aldetik jaso duten harrerarekin ere. "Helburua ahalik eta jende gehienarengana heltzea da, eta, egoera dagoen moduan, garrantzitsuena geldirik ez geratzea da. Gurpilak borobilak direnean erraz joaten zara, eta karratuak direnean indartsuago egin behar duzu aurrera egiteko, eta hala ari gara. Agenda nahiko betea dugu, eta inoiz baino gehiago balioan jarri behar ditugu guztiok zuzenekoak, geure buruari zor diogun alaitasuna emateko".

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko urtarrileko sariak!



SPC Tableta
Parte hartzeko sariaren izena: Tableta
EROSKI ARRASATE

ARRIKRUTZ
Sarrerak
Arrikrutz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikrutz

Otarrea
Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

PARTE HARTZEKO:
Posta elektronikoz: ... Whatsapp: ...

Irabazi bi lagunendako otordua
MAUXKA JATETXEARI ESKER
Begiratu *Puntua* aldizkariko *Otorduan* atala eta hartu parte!
Parte hartzeko azken eguna:Urtarrilaren 26
943 25 05 05 *kluba@goiena.eus*
KLUBA Jatetxea
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



*Puntua* aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailez gozatzeko...

BAZKIDETZA KUOTA 57€
Deitu: 943 25 05 05 • *kluba@goiena.eus*

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

ESKELA

## Begoña Martiartu Ugalde



2021eko urtarrilaren 20an hil zen, 82 urte zituela.

Gaur egungo egoera dela-eta,
bere oroimenez egingo den
hileta-elizkizuna aurrerago izango da.

Familiak Arrasate Tanatorioan hartuko zaituzte,
gaur, ostirala, 17:00etatik 19:00etara bitartean.

Bertaratuko zaretenoi, aurrez eskerrik asko.
Arrasaten, 2021eko urtarrilaren 22an.

4. URTEURRENA

## Ignacio Aramburuzabala Leturiaga



2017ko urtarrilaren 26an hil zen, 93 urte zituela.

Haren alarguna: Teresita Fernandez de Arroyabe Pagoaga (†).
Seme-alabak eta bilobak: Juan Ignacio eta Nieves, Marian,
Eider, Izar eta Iñaki, Elaia.

*Zure apaltasuna gogoratuz, batera zauziela, lasaitasunez.*
*Beti gogoan, aitxa ta aitaita!*

Otoitz bat eskatzen dizuegu bere oroimenez. Eskerrik asko.

Eskoriatzan, 2021eko urtarrilaren 22an.

4. URTEURRENA

## Mari Carmen Martin Martinez



2017ko urtarrilaren 23an hil zen, 60 urte zituela.

*Urteak aurrera doaz baina zuk gure bihotzean jarraitzen duzu.*

Etxekoak.
Aretxabaletan, 2021eko urtarrilaren 22an.

MEZA

## Mertxe Aguirrezabal Lamarain



Jose Mari Arejolaleibaren alarguna

2021eko urtarrilaren 9an hil zen, 87 urte zituela.

Haren aldeko ondra meza zapatuan izango da,
urtarrilak 23, 19:30ean,
Oñatiko Agustindarren elizan.

Bertaratuko zaretenoi aldez aurretik eskerrik asko.
Oñatin, 2021eko urtarrilaren 22an.

MEZA

## Jesus Arregi Arregi



'Errota'

2021eko urtarrilaren 7an hil zen, 74 urte zituela.

Haren aldeko ondra meza zapatuan izango da,
urtarrilak 23, 19:30ean,
Oñatiko Agustindarren elizan.

Bertaratuko zaretenoi aldez aurretik eskerrik asko.
Oñatin, 2021eko urtarrilaren 22an.

MEZA

## Sor Sabina Zumalde Arana



Mariaren Frantziskotar Misiolaria
Arantzazuko Gesaltza baserrikoa

2020ko abenduaren 3an hil zen, Iruñean, 101 urte zituela.

Bere familia eta ilobak: Irizar-Zumalde, Beristain-Zumalde,
Zumalde-Azkoitia, Zumalde-Barrena, Zumalde-Kortabarria,
Zumalde-Gorrotxategi; eta iloba txikiak.

Haren oroimenez meza berezia emango da domekan, urtarrilak 24,
12:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Aldez aurretik, mila esker elizkizunera zatozten guztioi.
Oñatin, 2021eko urtarrilaren 22an.

OROIGARRIA

## Jexus Mari Etxeberria Guridi



2021eko urtarrilaren 19an hil zen, Oñatin.

*Hire txispa,*
*umorea,*
*alaitasuna,*
*betirako gurekin.*

Arrasateko Udaleko lankideak.
Arrasaten, 2021eko urtarrilaren 22an.

OROIGARRIA

## Jexus Mari Etxeberria Guridi



—Goian bego—

*Ez dira betiko garai onenak*
*azken finean gizaki hutsak gara.*
*Ez dakigu non dagoen hoberena*
*eta zaude ziur,*
*ezin izango zaitugula ahaztu inoiz.*

*Hey Ho! Let's Go!*

Parkeko lagunak.
Oñatin, 2021eko urtarrilaren 22an.

OROIGARRIA

## Jexus Mari Etxeberria Guridi



'Poxolo'

2021eko urtarrilaren 19an hil zen, 57 urte zituela.

*Gure artean bizitzetik, gugan bizitzera pasa zara, Poxolo.*

Zure kuadrillakoak.
Oñatin, 2021eko urtarrilaren 22an.

OROIGARRIA

## Jesus Maria Echeverria Guridi Jna.

Arrasateko Udaleko langilea

2021eko urtarrilaren 19an hil zen, Oñatin.

Goian bego.

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Arrasateko Udala.
Arrasaten, 2021eko urtarrilaren 22an.

OROIGARRIA

## Jose Maria Ituarte Ugarte



2021eko urtarrilaren 16an hil zen,
Pont Saint Espriten (Frantzia), 65 urte zituela.

*Gure bizitzaren erdia baino ez dugu partekatu,*
*baina nahikoa izan da zu maitatzeko.*
*Orain zure oroitzapenak betirako partekatuko ditugu.*

Zure familia.
Oñatin, 2021eko urtarrilaren 22an.



## TXUTXU-MUTXUAK



















**1. Gabonetako zozketako irabazleak**
Ainara Alberdik, Martxel Olabarrietak, Ekain Askasibarrek eta Javi Gonzalezek irabazi dituzte Bergara Kirol Elkartearen sarietako batzuk. Zehazki, bigarrenetik bosgarrenera artekoak, hurrenez hurren. Izan ere, lehenengo sariaren irabazlea oraindik ez da agertu.

**2. Dantza eta trikitia, bat eginda**
Julen Alonsoren *Sutan dantzan* ikuskizunak lepo bete zuen Bergarako Seminarixoa. Trikitilari trebeak Eneritz Aulesti pandero-jolearen eta Oinkari dantza taldearen laguntzarekin ikuskizuna aparta taularatu zuen.

**3. Zuhaitzak landatzen**
Arrasateko Zuhaitz Eguna Etxezarreta inguruetan egin zuten. Ehun bat lagun egon ziren han, bi taldetan banatuta. Pertsona bakoitzak sei zuhaitz landatu zituen. Guztiak ezberdinak, baina denak bertakoak. Zuhaitzak landatzeaz bat, Iñaki Aizpuru biologoaren azalpenak entzun zituzten.

**4. Mahai-jolasak, maileguan**
Badira aste batzuk Bergarako Jardun Euskara Elkarteak mahai-jolasak maileguan ematen dituena. Egoitzan dituzten jolasak aldi batera etxera eraman ahal dituzte erabiltzaileek; eta, oraingoz, hainbat neska-mutiko dira aukera hori baliatu dutenak.

**5. Aniztasun sexualaz berbetan**
Oñatiko Zuazola Larraña Institutuko DBH-4ko eta batxilergoko ikasleek bisita berezi izan zuten aurrekoan: Yuri Paramos. Genero eta aniztasun sexualaren inguruan egin zuten berba, eta Paramosek bere esperientzia kontatu zien.

**6. 50 urte ezkonduta**
Oñatiko Maria Jesus Zubia eta Jose Miguel Palacios 1971ko urtarrilaren 23an ezkondu ziren. "Zorionak zuen 50. urteurrenean, familia guztiaren partetik! Espero dugu urte luzez zuen irribarre horiekin gure bizitzak alaitzen jarraitzea. Asko maite zaituztegu".




**7. Gabonetako zozketaren irabazlea**
Eskoriatza Kirol Elkarteak antolatutako lehiaketa Aritz Montoyak irabazi du. Aitaren laguntzarekin, kirol elkarteko ordezkarien eskutik jaso du oparia: 1.100 euro. Bide batez, klubak "eskerrak" eman dizkie Gabonetako zozketaren txartelak erosi zituzten guztiei.

## ZORION AGURRAK



OÑATI
**Oier Gavilan Iturbe**
Urtarrilaren 27an, 6 urte. Zorionak, Oier! Sei urte! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Muxu potolo bat guztion partetik!



BERGARA
**Alaine Da Silva Moreno**
Urtarrilaren 26an, 7 urte. Zorionak, printzesa! Primerako eguna pasatzea opa dizugu. Segi orain arte bezain jator eta maitekor. Etxekoek asko maite zaitugu. Besarkada bat Kenarren eta Tximisten partetik.



ARRASATE
**Nahia eta Maier Guerrero Valor**
Urtarrilaren 25ean, 9 urte. Zorionak, *mellis*! Ondo-ondo pasatu zuen egunean. Piloa maite zaituztegu. Familiakoen partetik besarkada handi bana.



OÑATI
**Arane Lizarralde Suarez**
Urtarrilaren 25ean, 5 urte. Zorionak, maittia! Ze azkar pasatu diren bost urteak! Segi beti bezalako irribarretsu izaten. Egun politta pasatu zure urtebetetze egunean! Irairen eta familia osoaren partetik.

# Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

**Internet**
Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta *https://goiena.eus/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

**Posta elektronikoa**
Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.eus* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

**Ordezkaritzak**
Etor zaitez Goienaren ordezkaritzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

**Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik argitaratuko ditugu.**

**Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.**



ARETXABALETA
**Uxue Fernandez Valor**
Urtarrilaren 24an, 6 urte. Zorionak, maitea! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Pila bat maite zaitugu. Amatxo, aitatxo eta Oier.



OÑATI
**Naroa Letamendi Narraspe**
Urtarrilaren 23an, 12 urte. Zorionak, Naroa! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Segi beti bezain jatorra izaten. Patxo handi bat etxeko danon partetik.



ARRASATE
**Nerea Fernandez Jimenez**
Urtarrilaren 20an, 9 urte. Zorionak, Nerea! Ondo-ondo pasatu zure eguna! Patxo handi bat familia osoaren partetik!



OÑATI
**Maialen Lizarralde**
Urtarrilaren 20an, 2 urte. Zorionak, Maialen, etxeko danen partetik!



ARRASATE
**Goiatz eta Eider Fernandez Bellido**
Urtarrilaren 20an, 9 urte. Zorionak, Goiatz eta Eider! Oso ondo pasatu eguna, *pitxinak*! Patxo erraldoiak etxeko danon partetik!



ARRASATE
**Aimar Merchan Garay**
Urtarrilaren 18an, 8 urte. Zorionak, mutikote! Oso ondo pasatu zure urtebetetzean! Pilo bat maite zaitugu. Patxo handi bat etxekoen partetik.



ARRASATE
**Julen Canales Diez**
Urtarrilaren 18an, 13 urte. Zorionak, Julen! Ondo pasatu zure egunean. Muxu asko 'Distrito 33'-ko bizilagunen partetik. Bereziki, zure aiton-amonak, Cipri eta Angelines.



OÑATI
**Haizea eta Aner Lizarralde Garcia**
Urtarrilaren 16an, 7 urte. Zorionak, polittok! Oso ondo pasatu zuen urtebetetze eguna. Patxo bana etxekuen partetik!



OÑATI
**Bernat Gonzalez Azkoaga**
Urtarrilaren 15ean, 6 urte. Zorionak, Bernat! Primeran ospatu zure eguna! Muxu handi-handi bat, etxekoen partetik!



ARRASATE
**Alazne Canales Losa**
Urtarrilaren 14an, 13 urte. Zorionak, maitia! Oso ondo pasatu zure egunean . Muxu asko familiako guztien partetik. Baita 'Distrito 33'-ko bizilagunen izenean ere.

# AGENDA

**EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN.** Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 22

**ESKORIATZA 'Hi, selfie!' argazki rallya**
8-12 urte arteko gaztetxoendako. Edukiera mugatuarengatik, hiru egubakoitzetan egingo dute ekintza berbera.
*Tortolisen, 17:00etan.*

**ELGETA 'Ipuinen ordua'**
Haur Hezkuntzako 5., Lehen Hezkuntzako lehenengo eta Lehen Hezkuntzako 2. mailetako neska-mutikoendako.
*Liburutegian, 17:15ean.*

**BERGARA Arkeologiari buruzko hitzaldia**
Eduardo Alfarok egingo du berba. Debalde, edukiera mugatuarekin.
*Seminarixoan, 17:30ean.*

**ARETXABALETA Gaztelekuko hezitzaileen elkarretaratzea**
Lan eta aisialdi duina eskatzeko, aldarrikapenak egingo dituzte.
*Udaletxe aurrean, 17:30ean.*

**BERGARA Pilota elkartearen erakusketa**
1915etik 1970era arteko erretratuak batu dituzte, Fernando Jauregi funtsekoak. Ikusgai egongo da otsailaren 7ra arte.
*Aroztegin, 18:00etan.*

**ARRASATE 'Cuba: verdades y mentiras' hitzaldia**
Izen bereko liburuaren gainean egingo dute berba Jose Manzanedak eta Milagros Aceak. 70 pertsonarendako edukiera.
*Kulturaten, 18:30ean.*

## ZAPATUA 23

**ARRASATE Ipuin kontaketa tailerra Saroa Bikandirekin**
0-7 urte arteko seme-alabak dituzten gurasoendako, eta hezitzaileendako.
*Bibliotekan, 10:00etan.*

**BERGARA 'Soldatapeko lana: telelana auzitan' hitzaldia**
Euskaratik gaztelaniarako itzulpena egingo da.
*Zubitxako eskolan, 17:00etan.*

**ARRASATE Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoak**
*Bart non ote nintzen ni?* izenburuko ikuskizuna egingo dute. Sarrerak, bost euro.
*Amaia antzokian, 17:00etan.*

**ESKORIATZA 'Batagun' mahai jolasaren aurkezpena**
Galdera-erantzun formatua dauka, eta hezkidetza lantzen du. Gaztetxoendako ekintza.
*Gaztelekuan, 17:00etan.*

**ESKORIATZA 'Ovarios verdes fritos' antzezlana**
Detritus Teatrus taldearen lana. Identitate eta gernu galeretan aditua den doktore bat da protagonista. Sarrerak, bost euro.
*Zaldibar antzokian, 19:00etan.*

**BERGARA Bertso saioa -sarrerak agortuta daude-**
Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Ane Zuazubiskar, Miren Amuriza eta Jon Maia bertsotan, Kopla Barik bertso eskolak gonbidatuta.
*Seminarixoan, 19:00etan.*

## DOMEKA 24

**OÑATI Rüdiger taldea**
Willis Drummond taldeko bateria jole Felix Buff-en proiektu berria da. Baketak albo batera utzi, eta gitarraren eta Joseba Irazokiren laguntza izango du. Sarrerak, bost euro; eta hiru, langabeendako.
*Gaztetxean, 12:30ean.*

**ESKORIATZA 'Etxeko kontuak' txotxongilo emanaldia**
Hiru istorio ezberdinekin, gizonen eta emakumeen, neskatilen eta mutilen arteko desberdintasunek sortzen dituzten arazoak modu dibertigarrian kontatuko dituzte. Sarrerak, hiru euro.
*Zaldibarren, 17:00etan.*

**ARRASATE 'Familian jolasean'**
0-8 urte arteko haurrendako eta euren familiendako txokoa.
*Okendoko ludotekan, 17:00etan.*

**OÑATI 'Botadun katua' antzezlana -sarrerak, agortuta-**
Charles Perrault-en izen bereko liburuan oinarritutako lana Glu Glu taldearen eskutik, 3-9 urte artekoendako. Sarrerak, lau euro.
*Santa Anan, 17:00etan.*

**ARETXABALETA 'Gu primer!' antzezlana**
Xelebrekeriak, umorea eta musika, Xentimorik Gabe taldearen eskutik. Inazio Tolosa, Nerea Gorriti eta Ramon Agirren oholtzan. Sarrerak, lau euro.
*Arkupen, 19:00etan.*

**ARRASATE Zea Mays taldearen kontzertua, online**
Hernaniko kiroldegian egingo duten emanaldia zuzenean jarraitzeko aukera.
*Gaztetxean, 19:30ean.*

## ASTELEHENA 25

**BERGARA 'Azken pandemiatik eratorritako irakaspenak eta egiteke dauden gizarte-eztabaidak' hitzaldia**
Deustuko Unibertsitateko irakasle Xabier Barandiaranek egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta.
*Foruen plazan,12:00etan.*

**OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea**
Pentsio duinak aldarrikatzeko.
*Foruen plazan,12:00etan.*

**ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea**
Pentsio duinak aldarrikatzeko.
*Herriko Plazan, 12:00etan.*

**ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea**
Pentsio duinak aldarrikatzeko.
*Herriko Plazan, 12:00etan.*

**BERGARA Pentsiodunen elkarretaratzea**
Pentsio duinak aldarrikatzeko.
*San Martin plazan, 12:00etan.*

**OÑATI 'Koronabirusa, eta konfinamenduaren ondorioak' hitzaldia**
DBHko eta batxilergoko ikasleen gurasoendako hausnarketarako lekua, Virginia Espinen eskutik. Guraso Eskolaren urteko lehen hitzaldia izango da.
*Online, 18:15ean.*



DETRITUS TEATRUS

**ESKORIATZA 'Ovarios verdes fritos' antzezlana**
Detritus Teatrus taldearen lana. Identitate eta gernu galeretan aditua den doktore bat da protagonista. Sarrerak, bost euro.
*Bihar, zapatua, Zaldibar antzokian, 19:00etan.*

**OÑATI 'Konkistaren mugarriak', bisita gidatua**
Izen bereko erakusketaren nondik norakoak, Beñi Agirreren eskutik.
*Kultura etxean, 18:30ean.*

**ARRASATE Nogen -sarrerak agortuta daude-**
*Under alt* diskoa aurkeztuko dute.
*Amaia antzokian, 19:00etan.*

## MARTITZENA 26

**ARETXABALETA 'Nire akuarelak' erakusketa**
Herriko paisaiak protagonista dituen Rakel Perez de Arenazaren lanak. Ikusgai urtarrilaren 31ra arte.
*Arkupen, 11:00etan.*

**BERGARA 'Pinutik eukaliptora? Euskal Herriko basogintzaren erronkak' hitzaldia**
EHUko irakasle Arturo Elosegik egingo du berba. Ostean, solasaldia.
*Seminarixoan, 18:00etan.*

**OÑATI 'Hitzen ahairea. Zeri kantatzen diogun' hitzaldia**
Gotzon Barandiaranen eta Rafa Ruedaren eskutik, Oñatiko Nabarralde taldeak gonbidatuta.
*Zinema aretoan, 19:00etan.*

**ARRASATE 'Adam' pelikula**
Martitzenetako emanaldia.
*Amaia antzokian, 19:00etan.*

**ELGETA Kantsatzeke: bazkidetza**
Mendi elkartearen bazkide egiteko aukera. Era berean, federatu txartela egiteko tramitazioan laguntzen dute.
*Kultura etxean, 19:00etan.*

## EGUAZTENA 27

**BERGARA 'Parásitos' pelikulari buruzko hitzaldia**
Pedro Saldaña zinema zuzendariak egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta.
*Seminarixoan, 10:00etan.*

**ARRASATE Sasoibide ibilaldia, mendira**
Elkartzen direnen artean erabakiko dute nora joango diren.
*Biteri plazan, 15:00etan.*

**BERGARA Odol ateratzea**
Deialdi irekia.
*Oxirondo azokan, 16:30ean.*

**ELGETA 'Liburuetatik ahora', tailerra**
Ipuinak liburuarekin eta libururik gabe kontatzeko aholkuak emango ditu Pedro Ruiz kontalariak. Aurrez eman behar zen izena.
*Liburutegian, 18:00etan.*

**BERGARA Eguaztenetako azoka**
Herritarren baserritarren garaiko produktuak erosteko aukera.
*Oxirondon, 18:00etan.*

**OÑATI 'Wikiemakumeok' solasaldia**
Mentxu Ramilok, Marisa Barrenak eta Sonia Franciscok egingo dute berba, euskaraz, Jabetze Eskolaren

baitan. Irekia da, baina aurrez eman behar da izena.
*Kultura etxean, 18:00etan.*

**ARRASATE Ipuin kontaketa Ane Gebararekin**
4 urtetik gorako umeendako. Aurrez eman behar da izena.
*Santa Marinako auzo bibliotekan, 18:00etan.*

**BERGARA 'In the mood for love' pelikula**
Zinekluba. Jatorrizko bertsioan, azpitituluekin. Sarrerak, hiru euro.
*Seminarixoan, 18:30ean.*

**BERGARA Literatura solasaldia**
Manuel Puig-en *El beso de la mujer araña* liburua oinarri hartuta egingo dute saioa, Ane Zapateroren gidaritzapean.
*Kulturaten, 20:15ean.*

## EGUENA 28

**ARRASATE Sasoibide**
San Baleriorainoko joan-etorria egingo dute.
*Biteri plazan, 10:00etan.*

**OÑATI Garbigune ibiltaria**
Herritarrek utzitako materialak jasoko dituzte, egun osoan.
*Olakuako BM supermerkatuaren ondoan, 10:30ean.*

**ESKORIATZA Literatura solasaldia**
Miren Amurizaren *Basa* liburua oinarri hartuta egingo dute, Mikel Antzak koordinatuta. Izena emateko azken eguna hilaren 27a da: 943-71 31 35 telefonoan edo *biblioteka@eskoriatza.eus* helbidean.
*Kultura etxean, 18:00etan.*

**OÑATI Ipuin kontaketa -gonbidapenak, agortuta-**
*Badut, ipuin musikatua* izenburuko emanaldia egingo dute Anduriñak eta *Txefo*-k.
*Haur liburutegian, 18:00etan.*

**ARRASATE Literatura solasaldia**
Gaël Faye-ren *Ene herri txikia* liburua oinarri hartuta egingo dute saioa, Alex Gurrutxagak gidatuta.
*Kulturaten, 18:30ean.*

**OÑATI 'Martin Eden' filma, zineklubean**
Pietro Marcellok 2020an zuzendutako pelikula. Sarrerak, bost euro.
*Zinema aretoan, 19:00etan.*

**ARRASATE Ingelesezko mintzapraktika taldea**
Jay Mannek gidatutako taldea hamabostean behin elkartzen da, eguenetan.
*Kulturaten, 19:15ean.*

## EGUBAKOITZA 29

**OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea**
Pentsio duinak aldarrikatzeko.
*Olakuako urmaelaren ondoan, 12:00etan.*

**ESKORIATZA 'Bi urte, lau hilabete eta egun bat' dokumentala**
Intsumisioari buruz Lander Garrok egindako lana. Debalde, edukiera mugatuarekin.
*Zaldibarren, 19:00etan.*

**BERGARA 'Gu primer!' antzezlana**
Xelebrekeriak, umorea eta musika, Xentimorik Gabe taldearen eskutik. Inazio Tolosa, Nerea Gorriti eta Ramon Agirren oholtzan. Sarrerak, zortzi euro.
*Seminarixoan, 19:00etan.*

**ARRASATE Erdigunean zuntz optikoa eskatzeko batzarra**
Alde zaharreko hainbat akademia elkartu dira Udalari proposamena egiteko. Eskaerarekin ados dauden herritarrak deitu dituzte batzarrera.
*Kulturaten, 19:00etan.*

## ZAPATUA 30

**ARRASATE Ipuin kontaketa tailerra Saroa Bikandirekin**
Azken saioa.
*Bibliotekan, 10:00etan.*

**BERGARA 'Jabetza burgesetik harago' hitzaldia**
Hitzaldian euskaratik gaztelaniarako itzulpena egingo da.
*Bibliotekan, 10:00etan.*

# ZINEMA

### ARRASATE

**AMAIA ANTZOKIA**

**Nieva en Benidorm**
Domeka: 19:00.

**Mi amigo pony**
Domeka: 16:30.

### BERGARA

**SEMINARIXOA**

**Las mil y una**
Zapatua eta domeka: 18:30.

**Ipuin herriko berriak**
Zapatua: 18:30.

### OÑATI

**KULTURA ETXEA**

**Nieva en Benidorm**
Egubakoitzetik astelehenera: 19:00.

**Elfinks**
Zapatua eta domeka: 16:30.

### EIBAR

**COLISEO**

**Vacaciones contigo y tu mujer**
Zapatua eta domeka: 16:00, 19:00.
Astelehena: 19:00

**Manual de buena esposa**
Zapatua eta domeka: 16:00, 19:00.
Astelehena: 19:00.

### GASTEIZ

**BOULEVARD**

**La maldicion de Lake Manor**
Egubakoitzetik domekara eta eguaztena: 16:30, 18:45.
Eguena: 18:45.

**Adú**
Egubakoitzetik domekara eta eguaztena: 18:30.

**Akelarre**
Egubakoitzetik domekara eta eguaztena: 19:00.

**Las niñas**
Egubakoitzetik domekara eta eguaztena: 17:00.

**Hasta el cielo**
Egubakoitzetik domekara: 16:00.
Egubakoitzetik domekara eta eguaztena: 18:30.

**Los Croods**
Egubakoitzetik domekara: 16:00.
Egubakoitzetik domekara eta eguaztena: 17:00.

**Wonder woman**
Egubakoitzetik domekara: 16:00.
Egubakoitzetik domekara eta eguaztena: 18:10.

**Los Elfinks**
Egubakoitzetik domekara: 16:15.
Eguaztena eta eguena: 17:00.

**Salvaje**
Egubakoitza eta zapatua: 19:00.

**En guerra con mi abuelo**
Egubakoitzetik domekara eta eguaztena: 17:00.

**La ultima gran estafa**
Egubakoitza eta zapatua: 19:00.

**GORBEIA**

**Trolls 2**
Egubakoitza eta zapatua: 17:10.
Domeka: 12:00, 17:10.

**La brujas de Roal Dahl**
Egubakoitza eta zapatua: 17:15.
Domeka: 12:00, 17:15.

**En guerra con mi abuelo**
Egunero, domeka izan ezik: 19:00.
Domeka: 12:00, 17:20.

**Wonder woman**
Astelehenetik eguenera: 18:00.

**El verano que vivimos**
Egubakoitzetik eguenera: 18:00.

**Hasta el cielo**
Egubakoitzetik eguenera: 18:55.

**Los Croods**
Egubakoitza eta zapatua: 17:15.
Domeka: 12:00, 17:15.
Astelehenetik eguenera: 17:10.

**Mi amigo pony**
Egubakoitza eta zapatua: 17:10.
Domeka: 12:00, 17:10.

**El inconveniente**
Egubakoitzetik eguenera: 19:25.

**La ultima gran estafa**
Egubakoitzetik domekara: 19:15.
Astelehenetik eguenera: 17:05.

**Salvaje**
Egubakoitzetik domekara: 17:05, 19:25.
Astelehenetik eguenera: 19:25.

**El pequeño vampiro**
Egubakoitza eta zapatua: 17:30.
Domeka: 12:00, 17:30.

**Las niñas**
Egubakoitza eta zapatua: 19:20.
Domeka: 12:00, 19:20.
Astelehenetik eguenera: 17:15.

**Elfkins (euskaraz)**
Egubakoitza eta zapatua: 16:45.
Domeka: 12:00, 16:45.

**Cazadores de brujas**
Egubakoitza eta zapatua: 17:20, 19:20.
Domeka: 12:00, 17:20, 19:20.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

**Akelarre**
Egubakoitzetik eguenera: 19:25.

**Wonder woman**
Egubakoitza eta zapatua: 18:25.
Domeka: 11:30, 18:25.

**FLORIDA**

**El jinete del dragon**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**En guerra con mi abuelo**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**El verano que vivimos**
Zapatua eta domeka: 11:30.

**Las cronicas de Fabulandia**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Hasta el cielo**
Egubakoitzetik eguenera: 17:00.

**Los Croods**
Egubakoitza, astelehena eta eguaztena: 17:15.
Zapatua eta domeka: 12:00, 17:15.

**El padre**
Egubakoitzetik eguenera: 16:55, 19:20.

# KRITIKA

**Martin Eden** ★★★☆☆
**Zuz.:** Pietro Marcello. **Herr.:** Italia (2019). **Aktoreak:** Luca Marinelli, Jessica Crezzy, Carlo Cecchi.

## Garai eta pertsonaia aztoratuak

**ANTONIO ZABALA**



Jack Londonek 1908 eta 1909. artean publikatutako izen bereko eleberria egokitu du Pietro Marcellok. Hori bai, kokalekua aldatu du: istorioa Napolin gertatzen da. Martin Eden marinelak, egun batean, neska burges bat ezagutzen du. Neskarekin gustura dago, baita haren familiak duen kultura eta heziketa mailarekin. Martinek gizarte maila horretan sartu nahi du, eta hori lortzeko hezten eta idazten hasiko da, idazlea izateko asmorekin. Hori da istorioaren abiapuntua. Denborarekin jokatzen du zuzendariak: joan den mendeko 50eko eta 60ko hamarkadetan kokatzen bada ere, erabiltzen dituzten jantziek, batzuetan, 20ko hamarkadan egotearen sentsazioa sortzen dute. Musikaren erabilerak, batzuetan klasikoagoa, beste batzuetan modernoagoa, guztiz zehaztu gabeko garaian mugitzen dela ematen du. Eta, zehaztasun falta horretan, Martin Eden ezagutuko dugu. Oso pertsonaia konplexua da: abenturazalea, idazlea eta indibidualista. Hasiera batean, gizon bizizalea; gizarte arteko gatazkan nahasten den neurrian, torturatuagoa. Bere kabuz mugitzen denez, ez du bere tokia aurkitzen: garai eta pertsonaia aztoratuak. Filmak bi zati ditu: lehena, arinagoa; eta bigarrena, politika eta ukitu filosofikoak sartzen direnean, astunagoa. Egia esatearren, ez da erraz sailkatzeko pelikula, baina ikustea merezi duen horietakoa da.

PEFC ziurtagiria
Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialez egina dago, birziklatua da eta Baso Kudeaketa Iraunkorraren ziurtagiria dauka
www.pefc.es

goiena
Zu hemen zaude.

AZKEN BERBA



AGURNE BARRUSO

## Barne ministroak eta torturak

Gaur –asteazkena– entzun dut Europako Giza Eskubideen Batzordeak berriz zigortu duela Estatu espainola tortura-salaketak ez ikertzeagatik. Ez da Estatu espainola zigortu duten lehen aldia, badira horrelako aurrekariak. Iñigo Gonzalez torturatu zutenean, Fernando Grande-Marlaska Auzitegi Nazionaleko epailea zen, eta bere ardurapean egindako operazioan torturatu zuten Iñigo. Sei aldiz zigortu du Europak Estatu espainola, Grande-Marlaskak zuzendutako operazioetan torturak salatu eta ez ikertzeagatik. Berria entzun dudanean, *déjà vu* moduko bat sentitu dut. Espainiako gobernuetako Barne ministroak beti egon dira torturatzaileak babesten, zuritzen eta zaintzen. Zenbait izen etorri zaizkit burura: Barrionuevo, Rubalcaba, Belloch, Corcuera... Berdin gertatu da Auzitegi Nazionaleko epaileekin. Eta oraingoan, bi karguak pertsona berean: bere garaian Auzitegi Nazionaleko epaile eta orain Barne ministro.

PSEk eta Ahal Duguk beraien Gobernuan onartzen jarraituko dute? Beste alderdi euskaldunek ez dute, berehalakoan, Fernando Grande-Marlaskaren dimisioa eskatuko?

BUKATZEKO

# Lur planetari ia bi bira, modu jasangarriagoan

Hori da Fagor Mugi ekimenak urritik hona batu duen zifra. Bazkideak lantegira modu jasangarrian joatea du helburu: oinez, bizikletaz, autoa elkarbanatuz edo garraio publikoz. 373 bazkide ari dira parte hartzen eta 77.000 kilometrotik gora batu dituzte



Fagor Mugiren webgunea. X.G.

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Mugikortasun ohiturak aldatzea kostatu egiten da, sakon errotutako ohiturak dira eta. Kontzientziazioa piztea izan daiteke modu bat, baina, askotan, ez da nahikoa izaten. Hala ere, kontzientziazioak saria izaten badu, errazagoa da ohiturak aldatzea. Fagor taldean argi ikusi dute, eta emaitza da urria ezkero martxan duten Fagor Mugi ekimena.

"Fagor Taldean aspalditik egon da mugikortasun jasangarriarekiko kezka eta konpromisoa. Gogoan dut, aspaldi, autobus propioa izaten zela langileak lantegira etortzeko. Baina egia da urteekin gero eta gehiago areagotu dela norbere autoarekin hara eta hona mugitzeko joera. Hori ikusita, Gizarte Eraldaketa Batzordean zerbait egiteko beharra sumatu genuen, ahal genuen neurrian langileak modu jasangarrian lanera etortzeko; eta hortik etorri zen Fagor Mugi ekimena. Gainera, betebetean egiten du bat berriki jaiotako Debagoiena 2030 Garapen Iraunkor Sarearen helburuekin eta filosofiarekin", azaldu du Fagorreko Iraunkortasun arduradun Aritz Otxandianok.




Lagun bat, bizikleta gainean, Fagorren egoitza batera iristen. X.G.

### Kontaketa eta sariak

Hainbat garraiobide erabiliz parte har dezakete bazkideek: oinez, bizikletaz, patinetez, autoa elkarbanatuz edo garraio publikoz. Egindako kilometroak erregistratzeko mugikorreko aplikazio bat erabili behar dute; GPS bidez zenbatzen du aplikazioak egindako distantzia, eta, partaideek zenbat eta kilometro gehiago pilatu, orduan eta aukera gehiago dituzte sariak lortzeko. "Langile bakoitzak zikloak osatuko ditu kilometroak pilatzen doan neurrian, eta betetako zikloekin zenbait sari jasoko ditu: eskualdeko dendetako erosketa-bonuak, dohaintzak, Mugi txarteleko doako kargak... Gainera, erregistratzen diren kooperatibisten artean bizikleta elektriko bat zozketatu genuen abenduaren 3an, eta aspalditik lanera bizikletaz joaten den bazkide bati egokitu zaio, gainera".

### 77.000 kilometrotik gora

Urrian jarri zuten martxan ekimena Fagor taldeko kooperatibetan, eta erantzun "aparta" jasotzen ari dira. "Gustura gaude ekimenak hasieran izan duen harrerarekin, baina kanpainak egiten jarraituko dugu, ahalik eta gehien izan gaitezen".

Une honetan, 373 bazkide ari dira ekimenean parte hartzen, eta, hiru hilabete pasatxo igaro ostean, 77.055 kilometro batu dituzte parte hartzaileek. Horien artean, gehienak auto partekatuan egindakoak dira –37.722 kilometro–. Ostean daude bizikleta –5.683 kilometro– eta oinezkoak –7.813 kilometro–. Ekuador meridianoak 40.019 kilometro dituela kontuan izanik, ia-ia Lur planetari bi bira ematea bestekoa da orain arte egindako bidea. "Orain arte pilatutako zifrei esker, atmosferara 15.404 kilogramo $CO_2$ gutxiago emititzea lortu dugu".

Aipatu behar da Ulma taldean ere antzerako ekimena dutela martxan aurretik.

